goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-10-18
EGUBAKOITZA
570. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM


JON BEREZIBAR

## Elikagai-batze berezia azaroko bi egunean | 6


JAGOBA DOMINGO

## Lope de Agirrek baditu milaka aurpegi | 31

"Minduta eta engainatuta sentitzen naiz, oso-oso engainatuta"

"Triste nago, baina, egoera ikusita, normala da triste egotea"

"Batzuek gaztelu handiak egin nahi izan dituzte"

"Haserrea handia da, eta ez dute aurpegirik eman"

"Hau kooperatiba da eta aurrera segitu behar dugu"

# Eta orain zer?

Noraeza, ezinegona, inpotentzia, haserrea, samindura, tristura, beldurra... Horiexek dira Fagor Etxetresnetako langileen artean ikusi ditugunak egunotan. Familia askok etorkizuna beltz ikusten duten honetan, erantzun gutxi jasotzen dabiltza. Une honetan inork ez daki zer gerta daitekeen Mondragon Korporazioko eta, batez ere, Fagor Taldeko ikur nagusiaren zauriaren odol-jarioa eteteko. | 2

"Zuzendari batzuei erantzukizunak eskatu beharko genizkieke"

"Informazioa eman digute, baina nire kezkak berdin segitzen du"

"Egunotan ikusten eta bizitzen gabiltzan hau desastre hutsa da"

"Konponbidea bilatzeko ahalegin guztiak egingo ditugu"

"Gaizki sentitzen naiz, inpotentzia handia sentitzen dut"

"Egoera latza izan arren, eredu kooperatiboa ez dago zalantzan"

"Ibili dira enpresari izatera jolasten denon diruekin"

## SINADURAK



Argi gorria | 8
HARITZ GALLASTEGI


8 | Kooperatibismoa ez dago krisian
IBAN ARANTZABAL


Musikaren garai berriak | 0
DAVID PEÑALVER


0 | Aro modernoko armadurak
IDOIA ETXEBERRIA

DEBAGOIENA 6 | ELKARRIZKETA 7
IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36
ESKELAK 37 | NON-ZER 38




iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

Passat Alltrack

Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Das Auto.

# Urteko berri (ekonomiko) txarrena

Fagor Etxetresnak hartzekodunen aurre-lehiaketan daude eta langile guztiak langabeziara doaz

## 'Fagorrek zorra birfinantzatzeko prozesuari ekin dio'

*"Fagor Electrodomesticosek, Lehiaketa Legearen 5.3 artikuluaren babesean, Donostiako Merkataritza arloko Epaitegian jakinarazi du zorra berregituratzeko aldez aurretiko negoziazioei ekin diela. Une honetatik aurrera, konpainiak lau hilabetera arteko epea du bere hartzekodunekin akordioa erdiesteko behar diren negoziazio-bideak zabaltzeko. Negoziazio hauek duela aste batzuk hasi ziren Mondragon Korporazioarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, banku hartzekodunekin eta gainerako hartzekodunekin Fagorren jarduera normaltzea ahalbidetuko luketen ordainketei aurre egin ahal izateko".*

Fagor Etxetresnak



Langileak oso kezkatuta eta haserre irten ziren

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Fagor Etxetresnek jarduera geratu dute, ordainketak eten dituzte eta hartzekodunen borondatezko aurre-lehiaketa prozesua hasi dute. Arrazoia, bere zorra birfinantzatzeko negoziazioak egin behar dituela. Zor hori zenbatekoa den ez du argitu kooperatibak. Zifra asko eman dituzte komunikabideek; zifra kontserbadoreena 400 milioi eurokoa da, baina beste batzuek 800 milioi baino gehiagokoa dela esan dute.

Fagor Etxetresnek Euskal Herrian dituzten 2.000 inguru lan-bazkideetatik gehienak langabezian geratuko dira astelehenean; autonomo erregimenean daudenek Lagun Arotik kobratuko dute soldataren %80. Lanean jarraituko dute aurre-lehiaketa prozesua prestatu behar duten langileak, gutxi batzuk eta finantza arlokoak, batez ere.

Eguaztenean baieztatu zuten albistea Fagor Etxetresnek, komunikatu bidez eta langileekin Kontseilu Sozialak izandako batzarretan. Aurretik, Goienak eman zuen horren berri beste edozein komunikabidek baino lehenago. "Gaizki, oso gaizki", "etsita", "doluan banengo bezala"... horrelako hitzak entzun zitezkeen langile eta bazkideen ahotatik. Lanpostua galtzeaz gain, jende askok bizi osoko aurrezkiak ere galdu ditu. Egoera dramatikoak sortu dira, kontuan izanda bikote askotako bi kideek Fagor Etxetresnetan egiten zutela lan. Gainera, familia askotako bi edo hiru belaunalditako kideak izan dira Etxetresnetako bazkide, eta, eguenean, emakume batek, hunkituta, gogoratzen zuen nola aita bizikletan etortzen zen Elgoibartik Maltzagara, eta han autobusa hartzen zuen lanera joateko.

### Langileei "konponbidea"

Etsipenarekin batera haserrea agertu da. Hala, Kontseilu Sozialak kale-agerraldia deitu du gaurko, egubakoitza; guztiz ezohiko ekintza kooperatiben munduan. San Andresen hasiko da, 12:00etan, eta Mondragon Korporazioaren egoitza nagusiraino joango da. Dirudienez, Fagor Etxetresnetako zuzendaritzako zenbait laguni azalpenak eman ditzaten eskatu nahi diete agerraldiaren bidez. Bazkide askok ere ez dute ulertu zergatik Mondragon Korporazioak ez duen kooperatiba diruz sostengatzen jarraitu.

Korporazioak Enplegu Bulego Korporatiboa irekiko du, "soberan dauden langileak" kudeatzeko eta haiei irtenbidea emateko. Aurre-erretiroak eta birkokaketak eskaini nahi ditu Korporazioak. Mondragonek argi utzi du langileei "konponbidea emateko borondatea" duela eta "ahalegin guztiak" egingo dituela.

Korporazioak ez du zehaztu zenbat langile geratuko diren lanik gabe, zenbat aurre-erretiro eta birkokaketa izango diren...

### Akordio pribatuetarako aukera

Aurre-lehiaketa auzitegiari egindako jakinarazpen bat da, lehiaketa prozesua hasteko asmoa duela eta hilabete batzuetako epea irekitzen duela enpresa batek. Epe horretan, negoziazio pribatuak egin ditzake, askatasunez, hartzekodunekin. Lehiaketa lege-prozedura bat da, eta enpresak zorrei aurre egiteko gai ez dela aitortzen du; insolbentea dela, alegia. Bi aukera daude prozesu horren bukaeran: enpresa likidatu, itxi, edo hartzekodunekin akordioa lortu. Espainiako gaur egungo Lehiaketa Legeak enpresaren ondarearen alde egiten du; enpresak aurrera jarraitzea da helburua.

### DATUAK

**5.642**

LANGILE

Fagor Etxetresnek 5.642 langile dituzte mundu osoan. Euskadin, 1.800 lan-bazkide dituzte.

**57**

URTE

1956an sortu zuten Ulgor, gero Fagor Etxetresnak izango zena, bost fundatzaileek.

**13**

LANTEGI

Bost lantegi dituzte Euskadin eta zortzi Frantzian, Polonian, Marokon eta Txinan.

### DATUAK

**10.000**

LANGILE

2008. urtean, 10.000 langile baino gehiago zituzten Fagor Etxetresnek.

**%80**

KOBRATZEN

2013ko maiatzean soldata %6,48 murriztu zuten bazkideek; krisia hasi zenetik, %20.

**4**

NEGOZIO-LERRO

Lerro Zuria, Sukalde-tresneria, Sukaldeko altzariak eta Etxeko klimatizazioa ditu.



GAURSA
Otaola ibilbidea, 22
20600 - Eibar - Gipuzkoa
Tel. 943 820 974
www.gaursacars.com

Kontsumo mistoa: 5,9 l/100 km. $CO_2$ jaulkipenak: 139 g/km.

* PyB-n gomendatutako PSPa, hau hartzen du barne: FAPa, garraioa, Nissan Assistance, promozioko deskontua, PIVE 3 plana, PIVE 3 planerako fabrikatzaileak egindako ekarpena (Nissan Iberiak aseguratua banako bezeroen eskaeretarako, nahiz eta PIVE 3 planerako baldintzak betetzen ez badira ere), BEZa eta Espainiako merkaturako IEDMT zerga (agian hori ez dagokio zure Autonomia Erkidegoari). Nissan Qashqai 1.6i 117 ZP (86 kW) Stop&Start Acenta erosten duten banakoentzat eta autonomoentzat balio du eskaintzak. Euren izenean dagoen ibilgailu erabilia eman behar dute eta RCI Banque S.A bankuko Espainiako sukurtsalaren Magic Plan erabilita finantzatu behar dute. 24 hilabeteko gutxieneko egonaldia. Ez da beste kanpainekin bateragarria, izakinak amaitu arte, 2013/10/31ra arte balioduna. Informazio gehiago lortzeko, jo hurbilen duzun Nissan kontzesionariora. Bistaratutako modeloa: Qashqai 360.



atzo, eguena, Arrasateko Amaia Udal Antzokian egindako batzar informatiboetatik. | IMANOL SORIANO

## ESANAK

"Notizia tristea da. Beste juiziorik ez dut gura egin"



ALFONTSO GORROÑOGOITIA
SORTZAILEA

"Oso triste gaude. Bizi guztia eman dugu hor"



JOSE MARI ORMAETXEA
SORTZAILEA

"Galdera honi erantzun behar diogu: zer egin dugu txarto?"



IÑAZIO AZKARRAGAURIZAR
ARRASATEKO ALKATEA

"Euskal kooperatibismoa izan da eta, ziur nago, izango da"



MARTIN GARITANO
AHALDUN NAGUSIA

"Europako legeen aurka egitea biharko gosea da"



JOSU ERKOREKA
EUSKO JAURLARITZAKO BOZERAMAILEA

"Konponbidearen parte izan nahi dugu. Herri gisa, porrota da"



AINHOA ETXAIDE
LAB-EKO IDAZKARI NAGUSIA

**Fagor Taldearen zati bat**
Fagor Etxetresnek zortzi produktu mota dituzte: Hotza (San Andresen), Arropa –garbigailuak eta garbigailu-lehorgailuak– (Garagartzan), Baxera –ontzi-garbigailuak– (Garagartzan), Egosketa (Garagartzan), Minietxetresnak –lapikoak– (Eskoriatzan), Sukaldeko tresneria profesionala (Eskoriatzan), Berogailu Elektrikoak (Bergaran) eta Confort –galdarak– (Basaurin). Agerian geratu da negozio-lerro batzuk ez zirela errentagarriak, baina beste batzuk badira. Esaterako, sukaldeek balio erantsi handirako aukera ematen dute oraindik Europako merkatuetan saltzeko. Lapikoen eta galdaren lerroak ere ondo zihoazen. Aurre-lehiaketa prozesuan eta Etxetresnek prestatu beharko duten plan industrialean argi daiteke ze negozio-lerro diren bideragarriak eta zeintzuk ez.

### DATUAK

**162**
MILIOI EURO
Brandt erosi zuen 2005ean, 162,5 milioitan. Korporazioak %18 ipini zuen.

**%99**
GUTXIAGO
Alarma guztiak 2008. urtean piztu ziren, aurreko ekitaldian baino %99 gutxiago irabazi zutelako.

Bestalde, eskualdetik kanpo ez dituzte beti bereizten Fagor Taldea eta Fagor Etxetresnak. Fagor taldeko kooperatibetako bat dira Fagor Etxetresnak, eta taldea beste honako kooperatibek osatzen dute: Copreci (etxetresnetarako osagaiak), Fagor Arrasate (produktu metaliko lauetarako ingeniaritza), Fagor Automation (makina-erremintarako automatizazio-sistemak), Fagor Ederlan (suspentsio, balazta, motor eta transmisiorako automobilgintzarako osagaiak), Fagor Elektronika (ekoizpen elektrikoetarako semi-eroaleak, seinale-tratamendua eta ekoizpen-zerbitzuak), Onnera Group (joan den astera arte, Fagor Industrial; ostalaritzarako eta garbiketa industrialerako ekipamendu-soluzioak egiten ditu), Fagor Assembly (muntaia-prozesuetarako automatizazioa) eta Fagor Koop. E. >

## Mondragon Korporazioaren oharra

Mondragon Korporazioak, iturri ofizialetik, GOIENARi adierazi dio taldea osatzen duten "kooperatiba guztien interesak" defenditu behar dituela, erabateko konpromisoa agertzen duela langabezian geratu diren Fagorreko langileekiko eta balio kooperatiboak ez daudela zalantzan: "60 urte egin ditugu balio hauekin eta aurrerantzean ere horrela jarraituko dugu" dio.

Hiru ideia nagusi adierazten ditu Mondragon Korporazioak Fagor Etxetresnen egoeraren aurrean:

Batetik, Mondragon Korporazioa, taldeko "kooperatiba guztiek" osatzen dutela eta "guztien interesak" defenditzen dituela, ez bakarri Fagor Etxetresnena, jakin arren Fagor Etxetresnak "ikur inportantea" dela.

Bestetik, konpromiso sendoa hartzen duela lan barik geratu diren Fagorreko langileekiko. "Konponbidea bilatzeko ahalegin guztiak egingo ditugu lanik gabe geratu direnei laguntzeko". Eta "aukera guztiak" aztertuko ditugu, "ohikoak eta ez ohikoak".

Azkenik, adierazten du Arrasateko kooperatiben mugimenduaren ohiko baloreei eusten dietela. Honaino heldu gara ia 60 urteko ibilbidea eginda eta "etorkizunean ere modu kooperatiboan" aurrera jarraituko dugu. "Esperientzia kooperatiboa ez dago zalantzan" dio.

Azken blokearen salmenta Uribarrin, bista paregabearekin!



UTE URIBARRI AUZOA ARRASATE
SUKIA GEDI

- Orientazio paregabea.
- Kokapen pribilegiatua.
- Kalitatezko etxebizitzak.
- 2 logelako etxebizitza 195.000 €-tik aurrera.
- 3 logelako etxebizitza 240.000 €-tik aurrera.

Tel.: 650 51 98 95 - www.sukia.com

Bisita ezazu gure etxebizitza pilotua!


Tagorren lehen berogailua. | FAGOR ETXETRESNAK


Emakumeak kooperatiban lanean. | FAGOR ETXETRESNAK

# Goraldiaren ondoren, gainbehera

**SORRERA** 1956ko urrian jaio zen gero Fagor Etxetresnak izango zena, Luis Usatorre, Jesus Larrañaga, Alfonso Gorroñogoitia, Jose Maria Ormaetxea eta Javier Ortubaik Gasteizko Otalora tailerra erosi zutenean, etxeko tresna txikiak egiteko lizentziarekin. Enpresari Talleres Ulgor deitu zioten, eta, handik gutxira, Arrasatera lekualdatu zen. Tagor izena ere izan zuen, eta haren lehenengo produktua petroliozko berogailu bat izan zen.

**GORALDIA** 1959an, kooperatiba industrial bihurtu zen. Orduan sortu ziren Arrasate S Coop, Fagor Electronica eta Copreci.

**ANTOLAKETA** 1996an, barruko antolaketa aldatu zuten Fagor Etxetresnek. Zazpi negozio-lerroko antolakuntza sortu zen, produktua-merkatua ardatz bikoitzarekin, nor bere gerentearekin. Helburuak bi ziren: errentagarritasuna eta enplegua.

**URTE OPAROAK** 90eko bukaerakoak eta 2000ko lehen hamarkadako hasierakoak irabazi handien urteak izan ziren; 2004an, adibidez, 16,8 milioi irabazi zituzten.

**BRANDT** 2005ean, behe gamako produktu batzuen ekoizpena Poloniara eroatea eta lehengaietako kostuak txikitzeko Txinako plataforma erabiltzea erabaki zuten. Orduan hartu zen Brandt erosteko erabakia: 162,5 milioirekin erosi zuen Brandt enpresa frantsesaren % 90; aurretik zeukan gainerako % 10a erosita. Dirutza horren erdia baino gehiago, % 55, mailegu bidez lortu zuten; eta % 18 Mondragon Korporazioak ipini zuen.

**AZKEN IRABAZIAK** 2008rako, % 4,5 haztea aurreikusten zuten Fagor Etxetresnetako arduradunek, eta 55 milioi inbertitzea. Baina hura izan zen irabaziak lortu zituzten azken urtea. Gainera, irabaziak aurreko urtekoak baino askoz txikiagoak izan ziren: 121.000 euro bakarrik irabazi zituzten; eta aurreko urtean, 13,4 milioi.

**LEHENENGO MURRIZKETAK** 2008an bertan hasi ziren lantaldea murrizteko neurriak. Urte hartan, 150 langile aurre-erretiratzeko edo birkokatzeko asmoa azaldu zuen kooperatibak. Orduan 4.000 langile zituen Euskal Herriko zortzi lantegitan. Mundu osoan 10.000 langile zituen.

**SOLDATA** Bazkideek soldata murriztea onartu zuten lehen aldiz nazioarteko krisia hastearekin bat. Krisia hasi aurretik baino % 20 gutxiago kobratzen dute orain. Uztaileko aparteko ordainketari ere uko egin zioten. Fagor Talde osoko bazkideek ere soldata murriztuta daukate Fagor Etxetresnen egoera dela eta; Etxetresnetakoek baino sei puntu gutxiago, hala ere.

**MAIATZEKO BATZARRA** Maiatzean jakin-min handia piztu zuen Fagor Etxetresnen Batzar Orokorrak. Aurtengo Kudeaketa Plana eta aurrekontuak onartu zituzten bazkideek, eta berretsi egin zuten lau urterako plan estrategikoarekiko babesa. Hil hartan bertan, Mondragon Korporazioak 70 milioiko dirulaguntza onartu zuen Fagor Etxetresnendako.


Garbigailuen lerroan behargina. | FAGOR ETXETRESNAK


San Andresko pabiloiak egin berri. | FAGOR ETXETRESNAK


2005eko martxoaren 17an sortzaileei eta haien oinordekoei egindako omenaldia, Foru Aldundian. | GOIENA

> Edukien marketinean eta *branding*-ean aditu Juan Luis Azkaratek honela aztertzen du Fagor markak igar dezakeen eragina: "Nahiz eta marka batzuk B2B izan, hau da, ez dira azken kontsumitzailearengana zuzentzen, denak Fagor aterpean egonda, denak kalte daitezke bat txarto dabilenean, marka orokorraren balioaren pertzepzioa ere jaisten delako. Eta egoera honi nola erantzuten zaio? Beste gauza batzuen artean, komunikazioarekin".

Gogoeta hau egiten du: "Interneten eta sare sozialen eraginarekin, oso arriskutsua izan daiteke profil oso baxuko komunikazio estrategia bat aurrera eramatea, nahiz eta zaila izan momentu kritiko hauetan asmatzea". Gaineratzen duenez, "orain jendeak konfiantza berreskuratu behar du eta Korporazioak tentuz jokatu beharko du hala izan dadin".

**"Arduraz jokatu da"**

Aurreko egubakoitzean baieztatu zen Fagorren hozkailuen ekoizpen osoa Poloniara eroango zutela 2014an. Oraingo astelehenean, Mondragon Inbertsioak erakundeak batzarra egin zuen, Fagor Etxetresnek lanean jarraitzeko behar-beharrezko zituzten 120 milioiak injektatu edo ez erabakitzeko. Astelehen arratsalde osoan, 22:00ak arte batzartuta egon ondoren, oraindik erabakirik gabe irten ziren arduradunak. Erabaki hori eguaztenean zabaldu zen.

Finantzazio eskaera horri ezezkoa eman izana aintzat hartuta, Europa Press agentziak Mondragon Korporazioko iturriak aipatzen ditu eta honako adierazpenak batu ditu: "Aparteko ahalegin hori egiteak ere ez zukeen Fagor Etxetresnen egoera behin betiko konpondu izango". Konponbide hori, akaso, etorkizunean topatuko du: "Datozen lau hilabeteak oso garrantzitsuak izango dira, hartzekodunekiko negoziazioetan proiektua berriz definitzeko".

Iturri horien arabera, Europa Press-ek gaineratu duenez, "taldean kooperatiba gehiago dago eta taldeak aurrera jarraitu behar du, aktibitatea eta enplegua sortzen. Talde osoarekiko arduraz jokatu da".

## 4. mailako ikasleen hitzak

Arrasateko 4. mailako ikasle batzuek bertso bat idatzi dute Fagor Etxetresnendako.

***Gure herriaren arima***
*Kolpe handia jaso du herriak*
*latza izan baita oroimena*
*ahotik ahora darabil*
*krisiaren agerpena*
*orain jaso dugu samina eta*
*pena*
*baina ez dugu inoiz galduko*
*barruko kemena*
*goazen denon artean*
*lortzera*
*desiatutako garaipena.*
Gaztelupeko 4G gelako ikasleak


**MARIKRUZ** | ARRASATE

"Inpotentzia handia dut. Aita Elgoibartik etortzen zen bizikletan Garagartzara oraindik fabrika egiten zeudela, eta bi txanda egiten zituen. Hiru belaunaldi ibili gara hemen. Zuzendari batzuek nahi izan dituzte gazteluak eraiki txabolatxo bat ginenean".


**GOIO** | GASTEIZ

"Gaizki nago. Hemen falta dira kreditua ukatu digutenak, gaur egun MCCko zuzendaritzan daudenak. Errazena da goi mailako postua hartu eta gurekin ahaztea. Beldur handia dugu, baina hau kooperatiba da eta aurrera egin behar dugu".


**ABILIO** | ARRASATE

"Ni ondo nago. Uste dut gaurko batzarrean (eguen goiz-eguerdia) informazio nahikoa eman dutela Errektore Kontseilukoek. Hala ere, eta nire kezkari dagokionez, ez dakit ze itxaron ahal dugun, eta jakina, kezkatuta jarraitzen dut oraindik".



Azkenetariko langilea. | IMANOL SORIANO


Nazioarteko oihartzuna. | I.S.



**IÑIGO** | BERGARA

"Beltz ikusten dut egoera. Astelehenean langabeziara goaz, eta plantak itxi egingo dituzte. Diote bi aste barru zerbait lortuko ote den. Inpresio eskasa dut. Aspaldi ikusten nuen ixtera zihoazela. Ikusi da argi eta garbi jendea haserre dagoela".



**IBAN** | ARRASATE

"Lehengo Errektore Kontseilukoak ibili dira jokatzen enpresarioak izatera guztion diruekin. Eta gainera, orain ez digute lagundu nahi. Adibidez, guk dakigunez, batek Fagor utzi ostean, orain SA bateko gerentea da".



**AGURTZANE** | ARRASATE

"Inpotentzia handia sentitzen dut nik, baita beldurra ere. Hala ere, esan beharra dago oraingoek –agintariak– ondo jokatu dutela, baina lehengoek zulora ekarri gaituztela. Hondamendira ekarri gaituzte. Eta horregatik engainatuta sentitzen gara".

**Kooperatibismoa, aurrera**

Debagoieneko herritarrek eta erakundeek ez dute zalantzarik: eredu kooperatibistak lehen bezain baliagarri izaten jarraitzen du. Hala, Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizarrek eguenean esan zuen honakoa: "Udala elkarlanean dabil Foru Aldundiarekin gai honi irtenbidea topatzeko; gaur bertan bildu gara lehen orduan eta behar den guztietan biltzeko asmoa dugu". Hau gaineratu zuen: "Momentu latz hauetan esperantzaren mezua ere zabaldu gura diet langileei: Kooperatibismoa izan da, da eta aurrerantzean ere izango da gure herriaren zati garrantzitsua, ezinbestekoa". Dena dela, "hausnarketa egiteko momentua" dela ere esan zuen: "Zer egin da txarto egoera honetara heltzeko?". Martin Garitano ahaldun nagusiak konfiantza berbera agertu zuen ("Euskal kooperatibismoa izan da, bada, eta seguru nago izango dela") eta ia gogoeta berbera: "Egoera latza da eta honek hausnarketa bat exijitzen du: Nola iritsi gara honaino?".

Eusko Jaurlaritzaren aldetik "babes osoa" duten arren, eguenean ñabardura batzuk egin zituen Josu Erkorekak: "Europako zuzenbidearen aurkako neurrien bidez gobernuak parte hartzea gaur ase eta bihar oso gose izatea da". Erkorekak esan duenez, enpresetan "balio erantsi handiagoa duten alderdiak daude". Horiek dira, haren esanetan, "salbatu behar direna", baina erabakitzea "enpresako zuzendariei dagokie".

Hemerotekak gogoraraziko digunez, 2007a 1.753 milioiko fakturazioarekin bukatu zuen, 2006an baino %60 gehiago irabazita. 2008an %4,5 hazteko asmoa zuen. Baina urte hartan, krisiaren hasiera urtean, tendentzia aldatu egin zen. Orduz geroztik, salmentak %37 jaitsi dira (600 milioi euro) eta 2008an zeukan lantaldearen erdia baino zertxobait handiagoa dauka orain.

Zergatik?

**Informazio gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## IKUSPUNTUA

**LEIRE KORTABARRIA**
KAZETARIA
'lkortabarria@goiena.com'



### Etxetresnak, bidegurutzean

Fagor Etxetresnen gainbehera aspalditik zegoen debagoiendarron ahotan. Horrelako albistea espero genuen? Beharbada, ez hain azkar, ez modu honetara, egun batetik bestera aurre-lehiaketa eta ordainketak etetea. Baina, era berean, zurrumurrua gero eta ozenagoa zen. Zerbait gertatu behar zen, eta gertatu da. Bada, orduan, zergatik geratu gara hain txundituta, izoztuta? Zergatik egiten zaigu hain sinesgaitza? Akaso, arazoak aspalditik zetozela ere aski entzunda genuelako. Arazoak ez zirelako atzo goizekoak eta hartu beharreko neurriak (oraindik) garaiz hartuko zirela pentsatzen genuelako. Baina susma genezakeen gauza batzuk ez zetozela garaiekin eta nazioarteko egoerarekin bat: kualifikatu bako lana Arrasaten, Euskal Herrian egiteak, XXI. mendean, ze irtenbide dauka? Erantzuna badakigu; baina akaso, neurririk ez da lehenago hartu, neurri horiek ere ez zirelako gustukoak, ez hartzeko errazak ere.

## IRITZIAK

**ADRIAN ZELAIA** | EKONOMIALARIA

## "Hartzekodunek sinetsi behar dute plana bideragarria dela"

Ekai Centerko Adrian Zelaia izan zen eguaztenean Goiena telebistan. Oraingo eta etorkizuneko egoerari buruzko klabeak eman dizkigu.



Adrian Zelaia, Goiena telebistan. | IMANOL GALLEGO

**AURRE-LEHIAKETA FASEA** Zabaltzen da hiru-lau hilabeteko epea zuzenki hartzekodunekin negoziatzeko, eta hori ez bada arrakastatsua, epe hori pasata zabaltzen da prozedura judiziala bera, hartzekodunen lehiaketarako prozedura judiziala. Aldea da lehiaketa bera dela prozesu judiziala, nolabait epailearen esku geratzen dela zela bideratu, eta abar; eta oso araututa dago. Aurre-lehiaketan ez, hemen epea zabaltzen da, modu guztiz librean, eta kasu horretan Fagor Etxetresnen eta hartzekodunen artean zabal daiteke negoziazio prozesua, eurek nahi duten moduan eta nahi duten epean.

**NEGOZIAZIOA ZERTARAKO?** Bi motatako erabakiak har daitezke: enpresa itxi edo enpresari jarraipena eman. Hori da komunikatuan esaten dena: helburua dela jarduera egonkortzea. Horretarako helburu funtsezkoena da hartzekodunekin akordioa lortzea, euren zorretatik kitapena egiteko. Hori oinarritzen da enpresak aurkezten duen plangintza estrategiko baten. Eta hor bi faktore daude: hartzekodunek sinistu behar dute plangintza hori bideragarria dela, eta aldi berean ikusi behar dute plangintza edo akordio hori ez bada lortzen, ondorioak askoz txarragoak izango direla eurentzat.

**EGONKORTASUN FINANTZARIOA** Kontua da Fagorren negozioa zatitzea eta jarduera batzuk bideragarriak egitea. Egin diren planteamendu eta azterketetan esan da baietz, negozio batzuk bideragarriak direla. Hori horrela bada objektiboki, bigarren erronka da hartzekodunak konbentzitzea hobe dela negozio horien bideragarritasuna lortzea, akordio ona eginez, ezer ere ez lortzea baino.

**BIRKOKAPENAK BIDERAGARRIAK DIRA?** 1.700 badira oso zaila izango da, 200 badira oso erraza, eta tarteko aukera guztiak egongo dira. Klabea da akordio horretan zer lortzen den eta ze enpresa eredu ateratzen den negoziazio horretatik.

**ZELA IRITSI GARA HONETARA?** Barne egituran langileek ez badute behar den prestakuntza lehen mailan egoteko, eta behar den teknologia, ez dituzu konponduko arazo horiek, ez inbertsio estrategikoekin, ez erosketekin, ez operazio finantzarioekin.

**AINHOA LARRAÑAGA** | LANKIKO KIDEA

## "Fagor Taldeak baditu izateko arrazoia eta sendotasuna"



AMAIA TXINTXURRETA

Ainhoa Larrañaga MUko irakasle eta Lankiko kideak, egoera lazgarri honen gainetik, mezu positiboa helarazi gura izan du.

**Zela iritsi da egoera honetara?**

Urte askoan egon gara entzuten arazoak zituela, eta luzaroan egin da ahalegina egoera hobe bat etorriko zela pentsatuaz, lagundu eta finantzazioa topatzen. Borondate nagusia izan da ekiditea eguazteneko berria. Egoera honetara iritsi da ekiditea nahi zen egoera horri babesa eskainiaz eta esfortzu handia eginez. Kooperatibek erakutsi dute iaz hartutako erabakiarekin laguntzeko borondatea, eta bazkideek, kooperatibek eta korporazioak berak ere ahalegin handia egin dute.

**Kooperatibismoaren eredua, elkartasun mekanismoak... zalantzan jartzen dira?**

Ez. Inondik inora. Mundutik jende piloa etortzen da hori ezagutzera Arrasatera. Eta nahiz eta kolpe latza den eta hausnarketa ekarriko duen, inondik inora ez du zalantzan jartzen halakorik.

**"Eredu kooperatiboa eta elkartasun mekanismoak ez daude zalantzan"**

**Ze eragin du honek Fagor Taldean? Mondragon Korporazioan?**

Fagor Taldea osatzen dute Fagorreko kooperatiba ezberdinek, bakoitzak dauka bere izaera juridikoa, bere autonomia... zorionez, orokorrean Fagorreko gainerako kooperatibak ondo daude, bizi ditugun egoerak zeintzuk diren kontuan izanda. Garbi dago Etxetresnak dela dimentsiorik handiena zuena eta, nolabait, beste guztien sorburu edo ernamuina izan zela; beraz, sinbolikoki balio handia dauka, baina Fagor Taldea beste kooperatiba batzuek osatzen dute, eta horiek ondo daude. Kolpe latza da, baina, hala ere, Fagor Taldeak izateako arrazoia dauka, sendotasuna dauka, eta, gainera, erakutsi du azken urtean bazkideek, kostata bada ere, borondatea izan dutela laguntzeko Etxetresnei. Orain egin beharko da diagnostiko bat ikusteko ea ez bakarrik Fagorrek, baizik eta besteok ere hori nola asumitzen dugun. Baina Fagorrek egin beharko duena da, orain arte moduan, bide guztiak ipini aurrera egiteko.

**Eta Korporazioak?**

Espektroa zabaldu egiten dela uste dut. Orain, erabaki honek beste batzuk ere jartzen gaitu lehen mailan. Eta orain arte zama eraman badute, batez ere, Fagor Taldeko kooperatibek, bada garaia besteok ere ikusteko ze aukera ditugun, ze eskaintza ditugun, ze profiletako lanpostuak ditugun...eta orain iristen da Korporazioko gainerako kooperatibendako garaia.

**Lagun Arok hainbat bazkideri pretazioa ordaindu beharko die. Badu diru nahikorik?**

Garbi dago Lagun Aro osatzen dugunok egin beharko dugula ahalegina. Lehen esandako moduan, bai enplegua birkokatzerakoan eta bai langabeziarako prestazio horiei erantzutzeko orduan ere, kooperatibok eta bazkide bakoitzak ikusi beharko dugu nola inputatzen zaigun hori. Lagun Arok erantzuteko gaitasunik duen edo ez, zenbakiak ikusi barik ez dakit. Baina bai aurrera egin beharko dugula, eta ikusi beharko dugula gerrikoa nola estutzen dugun horri erantzuna emateko.

**Beste zerbait nahi duzu gaineratu?**

Egoera latza da, eragin handia du, ez bakarrik Debagoienean, baita Euskal Herrian eta ekonomian ere... baina jarri behar dugu aurrera begira, bazkideen hobebeharrez.


Elikagai Bankuak Bergaran duen biltokian zenbait boluntario. | JON BEREZIBAR

# Elikagai Bankuak janaria batuko du azaro bukaeran

Janari-batze berezia izango da eta boluntarioak behar dituzte horretarako

J.B./L.K. | BERGARA

Gipuzkoako Elikagai Bankuak jendea behar du azaroaren 29an eta 30ean elikagaiak biltzen laguntzeko. Kanpaina Gipuzkoako 29 herritan egingo dute. Debagoieneko supermerkatuetan ere egingo da: Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatin.

Ezohikoak diren merkataritza-guneetan egingo denez, kanpaina berezia izango dela esan du GEBk. "Behar handiagoa" antzeman dute, eta, boluntario kopuruak gora egin duela aprobetxatuz, kanpainan parte hartzea erabaki dute.

Egun bakoitzean, lau orduko hiru txanda egingo dituzte: 10:00-14:00, 14:00-18:00 eta 18:00-22:00. Boluntarioek identifikazio-txaleko batzuk eramango dituzte eta dendan sartzen den jendeari poltsa bat emango diote, irteterakoan janariz beteta bueltatzeko gonbidatuta. Poltsak jaso eta janariak horretarako propio ipinitako ontzi batzuetan utziko dituzte.

Gehienetan horrelako kanpainak antolatzen dituzten ikastetxeen laguntza daukatenez, oraingoan, hezkuntza elkarteak, irakasleak, irakasleak ez direnak, 18 urtetik gorako ikasleak eta gurasoak gonbidatu dituzte. Kanpaina erraldoia izatea espero dutenez, boluntario guztientzat adina lana egongo dela adierazi du GEBk.

Boluntarioaren datu pertsonalak, telefono zenbakia eta lehentasunezko herria *bagcolectas@gmail.com* helbidera bidali behar dira. Eskaera egiteko azken eguna urriaren 30a da.

**Boluntarioak, aseguratuta**

Boluntario guztiek edozein ezbeharren aurka asegurua daukate. Gainera, sarrera eta irteera orduetan aldaketak egon daitezkeela azaldu dute.

Arduradunek bereziki aipatu nahi izan dute erakundeak egiten duen lan bikoitza: ingurumena zaindu eta gizarteari lagundu. 2012. urtean 20.000 pertsona inguruk jaso zuten GEBren laguntza. Guztira, 1.800.000 kilo banatu zituzten.

Informazio gehiago erakundearen webgunean aurkituko duzue: *www.bancoalimentosgipuzkoa.org.*

**3.000 lagunendako janaria**

2011an hasi ziren lanean Bergarako San Juan auzoan daukaten biltegian eta lurralde aldetik, ia Gipuzkoako probintziaren erdiko biltegi eta banaketa zentroa da, Deba bibar osoa eta Urola eta Goierri aldeetako janaria batu eta banatzen dutelako bertatik. Gipuzkoako beste biltegia Oiartzunen dago.

Debagoieneko erakundeek 1.001 lagunendako janaria batzen dute. Antzuolan, Caritasek 25 laguni ematen diote jaten; Aretxabaletako Udalak 33 herritarren artean banatzen du janaria; Arrasateko Frantziskotar Kontzeptzionistek 12 laguni ematen diote jaten; Eliza Ebanjelikoak, 392ri; Emakume Musulmanen Elkarteak, 94ri; Bergaran, Inclusion Bergarak (Caritasen barruko proiektu bat) 40 laguni ematen dio jaten, eta Caritasek, 278ri; Elgetan, Caritasek 12 lagunendako janaria banatzen du; Eskoriatzako Caritasek, 33rendako; eta Oñatiko Asesma elkarteak, 82 lagunendako.

Horiez gain, Azkoitiko Caritas eta Brigiden komentukoek jasotzen dute janaria Bergaran; Azpeitiko Udalak; Beasaingo Bategite etorkinen elkarteak eta Eliza Ebanjelikoak; Debako Elizbarrutiak; Eibarko Udalak eta Compartir GKEk; Elgoibarko Udalak; Ermuko Udalak; Ezkio-Itsasoko Udalak; Lazkaoko Izan erakundeak eta Udalak; Legazpi, Mendaro, Mutriku, Olaberria, Soraluze, Urretxu eta Zaldibiako udalek; Segurako Frantziskotar Kontzeptzionistek; eta Zumarragako Himunpro eta Caritasek. Erakunde horien guztien artean, beste 2.090 laguni ematen diete jaten.


Jardunaldien antolatzaileak eta jatetxeetako ordezkariak. | A.E.

# Onddoak, garaiko ehiza eta sagarrak aukeran, abendura arte

ANE ETXEBERRIA | DEBAGOIENA

Debagoieneko XV. Jardunaldi Gastronomikoak aurkeztu dituzte asteon. Abenduaren 30era arte iraungo dute, ohikoa den moduan, hemengo zenbait produktu oinarri hartu eta plater eta eskaintza bereziak eginda. Oraingo honetan, produktu izarrak onddoak, garaiko ehiza eta sagarra izango dira. Hain justu ere, parte hartuko duten jatetxeak (Debagoien osokoak) Lasa, Goiko Benta, Etxe Aundi, Hilarion, Torre Zumeltzegi, Santa Ana, Maialde eta Soraluze izango dira. Eta, beraz, jatetxe horiek guztiek jaki goxoak prestatuko dituzte, herritarren gozamenerako.

**Tailerrak eta beste**

2009an hasi ziren ekintzok prestatzen jardunaldi gastronomikoen bueltan, eta urtero berritzen eta askotariko ekintzak antolatzen saiatzen direla adierazi du Ana Herizek, Turismo arduradunak. Aurten ere tailerrak antolatu dituzte, Gabino Iartzak esan duenez: "Tailerrek arrakasta handia izaten dute, jende ugari etortzen da eta galdera asko egiten dizkigute. Gure helburua herritarrei laguntzea da euren mahai gainean gauza desberdinak aurkez ditzaten". Tailerrez gain, bisita gidatuak ere antolatu dituzte ekoizpen jatorrietara; besteak beste, Lapatza baserrira.

**Leire Muxika** | Emun-eko kultur zerbitzuetako aholkularia

# "Antolatzen diren ekimen kulturalei zentzua bilatzen laguntzeko gida da hau "

Kultur kudeaketari buruzko jardunbide egokien gida euskaratu eta denon eskura jarri du Emunek

UBANE MADERA | ARRASATE

Edozein egunkaritako kultur agenden atala gainezka ageri da sarri. Udaletako teknikari, kultur eragile eta kultur elkarteen lanaren emaitza da. Baina herritarren –erabiltzaileen– premiei erantzuten diete antolatutakoek? Erabilitako komunikazioa egokia da? Horrelakoei erantzuten laguntzeko gida argitaratu du Emunek, euskaraz.

**Zer da gida hau?**

Kultur ekimenak antolatzen dituzten eta kultur kudeaketarekin harremana dutenei begirakoa da. Helburua kultur kudeatzaileen kalitatezko jardun profesionala sustatzea da. Kontsultarako eskuliburu bat da, kulturan aplikatzen diren kudeaketako praktikei buruzko argibideak ematen dituena.

**Jarri adibide bat, mesedez.**

Atal bat tresnei buruzkoa da. Kultur kudeaketa aurrera eramateko lagungarriak diren bitartekoak azaltzen dira, labur. Batzuk aipatzeko: bideragarritasun plana, marketin-komunikazio plana, eraikin eta ekipamenduen segurtasun plana, parte hartze eta ebaluazio sistemak, e.a.


Leire Muxika. | EMUN

**Ze eduki du, bestela?**

Hainbat atal: kultur kudeatzailearen gaitasun profesionalak; kalitatea eta balioak; kudeaketarako tresnak; jabetza intelektualaren kudeaketa eta erabiltzaileen eskubideak; jarduera, zerbitzu eta espazioen kudeaketa; kultur politikak: lankidetza eta autonomia; giza baliabideen kudeaketa; kudeaketa ekonomikoa; obrak, zerbitzuak eta hornidurak eskuratu eta kontratatzea; kontratuak.

**Kataluniatik dator, ezta?**

Bai, Kataluniako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarteak (*http://www.gestorcultural.org/*) 2011n sortua da eta Emunen geurera ekarri dugu. Euskarara itzultzeaz gain, Euskal Herrian zabalkundea emateko asmoa dugu, hori baita Kataluniako elkartearen nahia; hau da, gida ahalik eta gehien zabaltzea. Gida tresna interesgarria iruditu zitzaigun, eta Euskal Herrirako ere oso baliagarria.

**Hemen eskura dugu? Nola?**

Emunek ere bat egiten du Kataluniako elkartearen filosofiarekin eta gida ahalik eta gehien zabaltzea da gure asmoa. Horretarako, jada denon eskura dago edizio digitala *http://kulturagara.com/baliabideak/* atarian. Paperezko bertsioa ere prestatzen ari gara eta laster izango dugu zabaltzeko moduan.

**Besterik gura baduzu gaineratu...**

Aipatzea gida hau kudeaketan ohikoak diren gaiak kulturara gerturatzeko lehen urrats bat dela, oinarri edo abiapuntu bat. Bertan aipatzen diren gaiak sakonak dira, xehetasun ugari eskatzen dituztenak, eta gida honetan modu laburrean ageri dira, kokatzeko baliagarri izateko. Hasieran aipatu dugun moduan, kultur kudeatzaileen kalitatezko jardun profesionala sustatu nahi da eta gida hau ikuspegi horretan jartzeko baliagarri ikusten dugu.

**Agustin Untzurruntzaga** | SOS Arrazakeriako kidea

# "Etorkinekiko aurreiritzi eta zurrumurruak handitu egin dira krisian gaudenez geroztik"

▸ Gipuzkoako SOS Arrazakerian dihardu azkeneko 20 urteotan lanean bergararrak

▸ Gure lurraldean etorkinen egoera zein den azaldu du Bergarako erretiratuen aurrean

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Gazte-gaztetatik, 20 urte zituelarik, etxetik atera behar izan zen atzerrira, Francorengandik ihesi. Parisen aurkitu zuen bizitoki eta lantokia. Giroa borbor aurkitu zuen 1968ko Parisen eta horrek betiko markatu zuen. Augustin Untzurruntzagak (Bergara, 66 urte) bizitza osoa eman dio sindikalgintzari (ESK) eta etorkinen bizi baldintzak hobetzeko lanari. Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren sortzaileetakoek bat, elkarte horretako koordinatzailea izan da urteetan. Gaur, erretiroa hartuta, bertan segitzen du kolaboratzen. Oraingo astean Bergaran izan da berbaldia egiten, San Joxepe erretiratuen elkartearen kultur hamabostaldiaren barruan.



Agustin Untzurruntzaga, bizitza guztia sindikalgintzan edo etorkinen alde lanean. | ARGAZKI PRESS

**Zertarako, ze helbururekin, sortu zen SOS Arrazakeria eta ze lan egiten du?**

Asistentzia bulegoan lan egin izan dut eta orain ere jarraitzen dut. Etorkinak bertara datoz paperen gaineko informazio eske eta horrelakoen gaineko laguntza eske. 2.000 pertsona inguru igarotzen dira bertatik urtero. *Mugak* izeneko aldizkaria ere ateratzen dugu, sentsibilizazio kanpainak egiten ditugu, adin txikiko etorkinei laguntza emateko lerro berezi bat daukagu, urtero txosten bat ateratzen dugu, inkestak egiten ditugu, egunero sare bitartez emigrazioaren gaineko berriak banatzen ditugu, tailerrak egiten ditugu zurrumurru eta aurreiritzien gainean, hitzaldiak ematen ditugu han eta hemen...

**Oraintsu argitaratu duzue SOS Arrazakeriaren urteroko txostena, Ikuspegi izenekoa. Bertan diozuenez, nabari handitu dira etorkinen salaketak. Ze salatzen dute zehazki?**

Azpimarratzen dugu gure bulegoetan salaketa asko jasotzen ditugula, nahiz eta ez agertu hedabideetan. Etorkinen salaketak aurrera egitea oso zaila izaten da. Epaitegira heldu eta irabaztea zaila izaten da askotan, lekukorik ez delako edo salatzailearen iritzia eta poliziarena aurrez aurre egotean, epaileen artean joera dagoelako funtzionarioek esaten dutenari kasu egiteko. Hori gertatzen dela azpimarratu nahi izan dugu txostenean.

**Krisian gaudenetik okertu egin dira etorkinei eskaintzen zaizkien laguntza eta zerbitzu publikoak?**

2008an itxi egin zen Erregimen Orokorra. Horrek eragin zuzena izan du eta krisiak ere bai. Orain, normala denez, etorkin gutxiago dator. 2007an, orain arte etorkin gehien sartu den urtean, milioi bat lagun inguru sartu ziren eta 2012an 314.000 izan ziren. Hori estatu osoan. Aldea izugarrizkoa da. Eta bada beste fenomeno bat, berria: jende asko hasi da hemendik ateratzen. Etorkin asko euren jaioterrira doaz eta bertan jaiotako asko ere kanpora doaz lan bila.

**Noiz hasi da igartzen hori?**

Batez ere 2010. urtetik aurrera. Gaur egun jende gehiago doa kanpora hona datorrena baino. Iaz 476.000 atera ziren kanpora. Hortaz, saldo negatiboa dago. Hori estatu mailan. Euskal Autonomia Erkidegoan, 10.500 errol-datu ziren, baina atera ziren 24.400 lagun. Hemen ere saldoa negatiboa da 2012an. Gipuzkoan gauza bera: 3.900 etorri ziren hona eta joan ziren 6.100. Gipuzkoaren kasuan konpentsatzen da estatuko beste toki batzuetatik datorrelako Gipuzkoara lan bila. Estatu mailako mugimenduekin konpentsatzen da. Azkeneko 20 urteotan, batez ere 2007ra arte, Espainia eta Euskadi izan dira immigrazio lekuak; orain emigrazio lekuak dira.

**Zeintzuk dira gaur egun etorkinen zailtasun nagusiak?**

Etorkinek euren egoera erregularizatu nahi dute. Hori lanaren bidez lortzen dute. Lehen, Erregimen Orokorraren bidez egiten zen. Hiru hilero katalogo bat argitaratzen zen eta lan eskaintzaren bat bazegoen horren barruan, lan eta erresidentzia baimena lortzen zuten etorkinek. Baina 2008tik aurrera ez dago katalogorik. Hortaz, beste modu batzuk daude egoera erregularizatzeko. Arraigoaren sistema da hori. Hiru urtez jarraian erroldatuta egonez gero, nahiz eta egoera irregularrean egon, urtebeterako lana lortuz gero, baimena lor daiteke.

**Zergatik dago hemen beste toki batzuetan baino etorkin gutxiago?**

Hemengo lan merkatua oso zaila da, esku lan kualifikatua eskatzen du. Industria da nagusi. Zerbitzuek ez dute beste leku batzuetan daukaten indarrik eta nekazaritza oso txikia da. Horregatik dator etorkin gutxiago hona. Erraztasun gehiago aurkitzen dute Mediterraneo aldean, esaterako, Bartzelonatik Murtziara. Hiri handietan ere aukera handiagoak aurkitzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoan etorkinak populazioaren %6,8 dira; Espainian, %12, 1. Batez bestekoaren erdia daukagu hemen.

**Etorkinekiko irudia aldatu egin da azkeneko urteotan?**

Krisiaren eraginez badaude aldaketa batzuk. Aurreiritzi eta zurrumurruak handitu egin dira. Azkeneko bi urtetako *Ikuspegi* txostenean hori argi ikusten da.

**Arrazistak gara gipuzkoarrak?**

Ez da posible horri erantzutea. Denetik dago. Orain, azkeneko bi urteotako datuak kezkagarriak dira. %17tik %20ra doan tarte baten oso erantzun kezkagarriak lortzen dira. Esaterako, egoera irregular baten aurrean etorkina kanporatu behar dela esaten dutenak geroago eta gehiago dira. Legeak ere ez du hori esaten. Edo beste erlijio batzuetakoek euren eraikin erlijiosoak izateko eskubideaz galdetzean, %20k erantzuten du ezetz. Konstituzioa baino harantzago doa hori. Jendearekiko errespetua ez edukitzea da hori.

**Europan handituz doaz eskuin muturreko joerak?**

Espainian eta Portugalen ez dago halako partidurik. Taldetxoak daude. Baina Europan badaude eta geroago eta indar handiagoa daukate: Frantzian, Suedian, Norvegian, Danimarkan Holandan, Britainia Handian. Hemen ez daude eta eskerrak! Baina eskuin muturrekoen ideiak hemen zirkulatu egiten dute, nahiz eta forma politikorik hartu ez. Hori hala izango den denbora askoan? Ez dakigu. Tinkotasuna behar du Estatuak ideia xenofoboen aurrean.

**Gizarte zerbitzuetara geroago eta diru gehiago bideratzen dela eta etorkinek eroaten dutela diru guztia... Halakoak sarri entzuten ditugu. Gezurrak dira?**

Zurrumurruen eta estereotipoen barruan sartzen da hori. Ez du errealitatearekin zerikusirik. Datu ofizialek ez dute hori baieztatzen. Edozelan ere, zurrumurruen aurka zaila da borrokatzea. Bartzelonan sare bat sortu dute zurrumurruen aurka. Bada, horrelako zerbait egin nahi dugu hemen.

**Gu eta besteak?**

Bai, hori da diskurtso horren abiapuntua. Beti ikusten da gure mundua beste guztiarenaren aurka. Bestea ez da gizartearen parte.

**Dauden baino etorki gehiago dagoela uste dugu?**

Bai. Urtero galdetzen digu jendeari ea zenbat etorkin dagoen uste duen eta erantzunak beldurgarriak izaten dira. Jendeak erantzuten du %25ekoa dela.

**"Etorkinek egoera erregularizatu nahi dute, hori da duten zailtasun nagusia "**

**"Etorkinak hemen populazioaren %6 dira, Espainian bikoitza dira"**

**"Beti ikusten da gure mundua beste guztiarenaren aurka"**

**"Jendeak uste du daudenak baino etorkin gehiago daudela"**

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## ZABALIK

**HARITZ GALLASTEGI**
http://goiena.net/iritzia/



# Argi gorria

Uberan nago. Semaforo aurrean. Gorri dago, betiko legez. Gehienetan *off* egiten dut eta irratiaren laguntzaz argia noiz aldatu zain egoten naiz. Gaurkoa ez da ohiko eguna, ordea. Azken hilabeteetan gertatu diren zenbait notizia hasi zaizkit burutik pasatzen. Ez sinesteko modukoak dira gehienak: esate baterako, gutariko askok ezagutu dugun egoera sozioekonomiko gaitzenean Espainiako ministro bat kapaz da eskatzeko "errezatzeko" beharrik ez duten lagun guztiei; bestalde, boterean dauden politikarien zintzotasuna eta sinesgarritasuna ezbaian dago kargu publikoak zituztenean eskupekoak hartzearren… eta, hala ere, ez da ezer pasatzen; eta zer esan bi sindikatutako kideak inputatuak ikustea langabeentzat izan behar zuen dirua ustez eurenganatzearren. Akabo!

**"Ez dakit zertan ari diren gizartean eredu izan beharko luketenak"**

Gugan eragin zuzena dute aipatu lagun gehienek hartzen dituzten erabakiek. Hala ere, sarri, urruneko kontuak direla iruditzen zaigu. Zenbat aldiz esan dugun: "Hori ez da Euskal Herrian gertatzen". Baina, zoritxarrez, gure artean ere ez dira horrelakoak falta. Galde diezaietela nafarrei. Ondo zaintzen zituzten han politikariak banketxe nagusiko ordezkariek. "Relaxing kafe con leche"-k ere eman du nahikoa zeresan. Ez dugu barre gutxi egin horren kontura. Lehertu arte. Baina zer pentsatuko lukete eurek euskaraz ez zekien lehendakari bat genuen sasoian? Eta neurri handi batean diru publikoaz eraiki den futbol zelaian egunero-egunero hamabi ordu inguru lan egiten duten lagunek mila eurotik behera irabazten dutela jakinda? Eta kiroldegi baten sartzeko herrikoek prezio bat dutela eta inguruko herrietakoek beste bat dutela jakinda? Eta jaietako aurrekontuaren berri zehatza eman eta lagun askok harrituta ekimena txalotu egin dutela jakindakoan? Berotzen hasi naiz… eskerrak semaforoko argia kolorez aldatu den! Ez dakit zertan ari diren egungo gizartean eredu izan beharko luketenak. Hori bai, aurrera egin behar da. Ni Elgetara noa bueltan…

## USTEAK USTE

**IBAN ARANTZABAL** | iarantzabal@goiena.com

# Kooperatiba eredua ez dago krisian

Tertuliano askotxo ez ote dabilen kooperatibez berbetan… eta iritzia libre ematea ona da, baina edozer entzuten ere hasiak gaude! Eredua erori dela, kooperatibek zirudíten zeru puska eta orain infernua direla, azkenean benetako egia zein den ikusi dela Fagor kasuarekin, langileak kanpora doazela leku guztietan moduan, ez dela informatzen barruko jendea… Hara! Zelako estilo gutxirekin eta jakintza eskasarekin egiten diren zenbait baieztapen. Kooperatibetan ere denetik dagoela? Jakina! Eta kooperatibagintzan gorabeherak izaten direla? Ezin ezkutatu. Gaur-gaurkoz kooperatiba eredua ona da eta baita etorkizun handikoa ere.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Noraezari sari

**Anjel Lertxundi Esnal**
berria.info/blogak/lertxundi/

Ekonomiaz zipitzik ez dakien honentzat zinez argigarria aurtengo Ekonomiako Nobel sarien banaketarena.

Eugene Famak dio merkatuen portaera arrazionala dela, bi eta bi lau kontatzea bezain kontrolagarria.

Robert Schilerrek, aldiz, justu kontrakoa esaten du: inbertsioen portaera erruleta errusiar batena bezalakoa omen.

Hirugarren sariduna, Lars Hansen, beste biak baino zuhurragoa da, nonbait, eta aktibo finantzarien ibilerak aztertzen ditu, ondorio teorikorik atera gabe.

Dakitenek, beste bien erdian kokatzen dute.

Labur esanda: ekonomiaren anabasan dagoen noraeza totalaren aitorpena izan da saria.

Despistatuta daude sari emaileak (Suediako Banku Nazionalak ematen du dirua), despistatuta ekonomialariak, baina susmoa dut aurtengo sariak ekonomiaren lege zuhur bakarra aitortu dutela: noraezaren zurrunbiloan, gorotza errege.

Irri egitekoa litzateke, ekonomiaren zurrunbiloak gu itoko ez bagintu.

Galdetu Fagorrekoei.

# Hau dena desagertuko da

**Eneko Barberena**
blogak.goiena.net/barberenea/

Hau dena desagertuko da.

Bizilegea da.

Jaio, bizi, hil.

Arrasate mende luzez oinarritu zen meatzegintzan eta burdinola txikien industrian.

Agortu ziren meak, itxi ziren burdinolak.

XX. mendean hegemonikoa izan zen Union Cerrajera enpresa ere desagertu zen, herri eta eskualdean garrantzia berebizikoa izan zuena.

Bere arrastoak geratzen dira, Oñatiko subirautza energetikoa eta Arrasaten kaleren bat edo polemika eragiten duen eraikin multzoren bat.

Fagor etxetresnak enpresan garai ilunak dira hauek.

Bertan lanean ditudan senide eta lagunek errespetua eta besarkadarik handiena merezi dute.

Animoa doakiela lerro hauetatik.

Burdinoletatik, Union Cerrajeratik… tradizio industrial luze baten esperientzia geratzen zaigu.

Kultura bat, izaera bat, inpronta bat.

Krisi garaietatik berriz, geratu zaiguna da momenturik zailenetan apostu fidagarriena mingarria dela, ez baita epe motzekoa.

Hezkuntzaren alde, berrikuntzaren alde apustu egin zuen Biterik eskolak sortu zituenean XIX. mendean, arrasate populazioz gainbeheran eta lur jota ikusi zuenean.

Hezkuntza izan zen ere Arizmendiarrietak berrikuntza teknologiko eta soziala enpresan uztartzeko abiapuntua.

Badugu unibertsitatea, badugu giza kapitala.

Akaso egitasmoaren oinarrietara jotzea ideia bat izan liteke, oinarri txiki eta horizontalagoetara.

Bide luze eta gogorra dator arrasatear guztiontzat.

Has gaitezen berramesten.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

www.garraioahobetzen.net




Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

NOLAKO AUTOBUS ZERBITZUA NAHI DUZU?

Gipuzkoako Foru Aldundiak zurekin batera hobetu nahi du zerbitzua, eta horretarako 56 herritan bilera irekiak antolatu ditu. Internet bidez ere egin dezakezu zure ekarpena: www.garraioahobetzen.net.

PARTE HARTU ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.

Gipuzkoa BERRIA

## GUTUNAK

# Kinto-ospakizuna martxan dago

**Danel Mendizabal**
(1959an jaiotakoen batzordearen izenean)
Arrasate

Kaixo, kinto!

Aurtengoa antolatzea egokitu zaigun aldetik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu iaz egitaraua borobildu zuen taldeari, behar izan dugunean eskuzabal azaldu baita.

Gogoan dugun olerki xarmangarri bat plazaratuz, maite ditugunak eta beraien jarraibideak ez direla sekula guztiz joaten azpimarratu ziguten. Oraingoan, antolatze lanetan eta era xumean orotan buru-belarri aritu zen emakumea ekarri nahi dugu gogora. Bertan izan ez bada ere, belarrira xuxurlatu digulakoan gaude. Laster, egitarauaren berri izango duzue.

# Erreka lagunei eskerrak

**Jaione Isazelaia Igartua**
(Bergarako alkatea)
Bergara

Isil-isilik, oraindik ilun zela hasi zen biltzen jendea. Batzuk kotxez, hiruzpalau kamioiarekin, bizikletaz gehienak. Goizeko hotzak ez zuen jendea beldurtu.

"Iepa! Egun on. Hi be bai? Dotore etorri haiz erreka zuluan ibiltzeko! Atzo zer?".

Geroz eta jende gehiago.

Berehala taldeak egin eta bakoitza bere lekura abiatu zen. "Zuei tokau jatzuen lekuan ikusiko dituzue arraiñak, guanterik bihar dozue? Hartu plastikuak!".

Errekara danok.

"Pipipi, ezer bihar dozue?", lanean hasi orduko. Kasurik ere ez, denok presaka lehen poltsa betetzeko erreka kontrako lizarretan, haltzetan, akazietan zein harri artean zegoen plastiko, kotoi, tela, alanbrez eta abarrez ehundutako zikinkeriari tiraka.

Uraren zurrumurrua lagun, jardun gutxi, baina, hala eta guztiz ere, aurrerapen txikia. "Poltsak gastau dira, etorri bitartean segi biltzen gero jasoko ditugu-eta".

Walkiaren pipipi tematia geroz eta urrunago. "Hemen mikroondasa, hor estintorea, ikusi koltxoia, kotxian altaboza, han motorra... ikusten don hau?!".

Lau bat ordutan zabor tona mordo bat atera genituen errekatik; hala eta guztiz ere, mordo bat geratu zen bertan. Egarriz eta gosez bildu ginen sagardo, gazta eta txorizoaren inguruan, jendea pozik bakoitzak bereak kontatzen eta besteenak entzuten. "Merezi zeban! Hurrenguan be bai. Zenbat denbora pasatu behar da guztiz garbitzeko?".

Denak pozik? Ez, denak ez. "¿Vais a dejar eso ahí?" -batek; "Erreka garbitzia? Hori udaletxiari tokatzen jako!" -besteak. "Eta zikintzia zeiñi tokatzen jako?"– ondokuak.

Aurtengoa ondo joan da, egindako ahaleginari esker erreka garbiagoa izango dugu, baina hori baino garrantzitsuagoa da auzolanak eragin duen poztasuna eta errekarenganako sortu duen erantzukizuna. "Aita, ume bat ikusi dot gusanitos paketia lurrera botatzen eta esan dotsat: jaso hori, bestela errekara joango da-eta. Ondo egin dotela?".

Eskerrik beroena eman nahi dizuet aurreko igandean Epeletik Osintxura erreka garbitzen ibili zineten erreka lagun guztioi eta bereziki antolaketa lanetan ibili zaretenoi.

# Mehatxu gehiagorik ez!

**Juan Antonio Iturbe eta Mari Carmen Jauregi**
(Antzuolako Ezker Abertzalearen izenean)
Antzuola

Ohar honen bitartez Antzuolako Ezker Abertzaleak publiko egin nahi du Patxi Olabarria Ezker Abertzaleko militante eta zinegotzi ohiak J.R-ren aurka epaitegian jarritako mehatxu salaketa. Patxik salatu du, zaborra ateratzera irten zen iluntze batean, J.R lehendabizi begira-begira geratu zitzaiola, eta berak zerbait gertatzen zen galdetu ondoren irainka eta mehatxuka jardun zitzaiola bera berriro ere etxean sartu zen arte.

Aurretik ere antzeko egoerak bizi behar izan dituzte hainbat udal arduradun eta arduradun ohik, hainbat langilek eta baita zenbait bizilagunek ere.

Duela hiru aste inguruko gertakari horien aurrean, Antzuolako Ezker Abertzaleak babes osoa eskaini nahi dio Patxiri. Era berean, gure babesa helarazi nahi diegu azken urteetan zehar euren ardurak betetzeagatik J.R-rengandik antzeko egoerak jasan dituzten pertsonei, eta baita bizilagunei ere.

Horrelako mehatxu, irain edo jarrera oldarkorrik ez dugula onartuko adierazi nahi dugu, eta bide judiziala eta salaketa publikoa erabiliko ditugula horrelako egoerei aurre egiteko.

# Erreka biziberritzea amets, auzolana tresna: eskerrik asko!

**Unai Etxeberria**
(Erreka Garbiketarako Batzordearen izenean )
Bergara

Bada hilabete inguru Erreka Garbitzeko Batzordea eratu eta lanean hasi ginenetik. Gure helburua gure erreka garbitzeko jende asko biltzea zen. Horretarako, izaera eta adin ezberdinetako jendea batu ginen.

Bazen, batzen gintuenik: erreka biziberritu batekin amets egin eta auzolana lotzea.

Azkenean, astez asteko dinamika eta antolaketan aritu ostean iritsi zen eguna: urriaren 13a, Osintxutik Epelera. 350 lagun inguru batu ginen 17 talde-tramutan; egun polita izan zen eta ahazteko zaila egingo zaigu askori. Antolaketa txukuna, hobetzekoak ongi identifikatu eta datorren urtera begirako auzolanari ondo jasota.

Lerro hauek baliatu nahi ditugu egun hori posible egin zutenei eskertzeko. Alde batetik, herriko elkarte gastronomiko hauei: Umore Ona, Osintxukoa, San Migel Pe, Oilagorra, Pertxa eta Artatse. Bestetik, ardo banatzaileak, Atxega eta Manso. Okindegiei ere, eskerrik asko: Ogi Berri, Ogizun, Olabe, Mizpildi, Konde Panaderokua eta Bolintxo. DYA eta Beti Bustiko piraguistei, baita udal langileei ere, eta bereziki banakakoei, izena eman eta errekara jaitsi eta norbaitek noizbait botatakoa jaso duzuenoi. Eskerrik asko!

Asko batu genuen, ikaragarri. Baina, zoritxarrez, asko geratu zen. Lan batzuk Udalera eta Diputaziora bideratuko dira, baina jarri dugu datorren urterako hitzordua ere: 2014ko urriaren 11, zapatua.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Egoera zail honetan,
Arrasaterekin bat egiten dugu!
Egingo dugu aurrera!

Hemen
ascensores • igogailuak
debagoiena
debagoiena@ascensoreshemen.com

# HERRIAK

ARRASATE

# Zundaketak Kurtzetxikin, ura atera ahal izateko

▶ Zundaketak egingo dituen enpresa kontratatu du Udalak 7.000 euroko aurrekontuarekin

▶ Kurtzetxikiri balioa emateko egitasmoaren barruan daude zundaketa lan berri horiek

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE

Aurrera doaz Kurtzetxiki berreskuratzeko planak. Ura erraz ateratzeko modurik badagoen jakiteko, zundaketa egin gura dute Kurtzetxikin, Arrasaten. Aurtengo udan behiak eta behorrak egon dira Kurtzetxikin bazkatzen; 70 buru. Hortik dator lehenbailehen ura eskuratzeko premia. Zundaketa lanak aste honetan esleitu dizkio Udalak Pozos y Sondeos del Cantabrico SL enpresari, 7.000 eurotan.

Ura, gainera, egon badagoela badakite, ze bi ur-bilatzailerekin ibili baitira lanean eta hainbat puntu markatu dituzte. Zulo bertikal bat egingo dute gailur alboan, eta hortik ikusi dute ur mailaren sakonera eta uraren beraren kalitatea. Rafa Ugarte Ingurumen teknikariak hauxe adierazi du: "Ura egon badago, akuifero bat da, San Josepek ere badauka, eta Kurtzetxikin ur poltsak daude la badakigu. Orain begiratu behar da non dauden, sakoneran egoten baitira, eta, aldi berean begiratu emankorrak diren edo ez, ze gerta baitaiteke bilatzea baina kopuru edo emaria nahikoa ez izatea. Ez da erreka ondo". Beraz, laster hasiko dituzte zundaketa lanak ur hori topatu eta lehenbailehen emaria aztertzeko.


Kurtzetxikiko gailurra. | ANE ETXEBERRIA

**Kurtzetxikiri balioa ematen**

Arrasateko Udalak hiru egitasmo jarri ditu martxan Kurtzetxikin, mendiari balioa emateko asmoz. Herritarrei aisialdirako gune moduan proposatzea, basoa berreskuratzea eta azken hamar hektareetan larre bat egitea dira helburuak. Herritarrei aisialdirako gunea eskaintze aldera, seinaleak prestatzen ari dira Udaletik; izan ere, Pello Garai teknikariak hauxe dio: "Nahiz eta erraza izan Kurtzetxikiraino heltzea, batzuk bidean galtzen dira, eta hori ez gertatzeko seinale batzuk jarriko ditugu. Bide oso polita da, gainera, herritik aterata 6 kilometroko ibilbide polita da".

Bigarren egitasmoak, berriz, basoa berreskuratzea du helburu. 20 hektareako azalera duen artadi gazte bat babestuko dute itxituren bidez. Bertan ez dute ganadurik sartzen utziko. Horrez gain, 30 hektareako artadi heldua eta baso mistoa dago eta beste itxitura baten bidez mugatuko dute lursail hori. Baso-abeltzaintza deritzon ustiaketa mota sustatzea planteatzen da, antzina ere egiten zena eta larreko bazka basokoarekin uztartzen duena. Basoa zainduko dute horrela, eta, emaitza moduan, herritarrentzako eremu polit bat lortuko dute urte batzuen buruan.

Gainera, Kurtzetxiki jarduera ekonomiko berriak bultzatzeko eta lehen sektoreari bultzada emateko aukera moduan ikusten du Udalak.

Horrekin guztiarekin, Arrasateko eta bailarako herritarrentzako bista ikusgarriak dituen mendia aisialdirako gune garrantzitsu bilakatuko da eta aproposa izango da ikasleek txangoak egin eta inguruko balioa aztertzeko.

**DATUA**

**7.000**

EURO

Zundaketa egiteko 7.000 euroko gastua egingo du Arrasateko Udalak. Aste honetan esleitu diote Pozos y Sondeos Cantabricos SL enpresari Kurtzetxikin egin beharreko lan hori.


Kurtzetxikitik dauden bista ikusgarriak. | A.E

**ESANAK**

**"Gure nahia ur poltsak bilatzea da, emaria nolakoa den ikusi eta ur hori aprobetxatzeko"**

RAFA UGARTE
INGURUMEN TEKNIKARIA

ARKAUZ MUEBLES
ARETXABALETA
ETXE MOBEL ALTZARIAK
ARRASATE
ARKAUZ COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA FAGOR banatzaile ofiziala
GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2013 ARRASATE
60 urte baino gehiago
Arkauz zure etxea da.
ARKAUZ ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA expert banatzaile ofiziala

# Umeak protagonista bihar baserritarren merkatuan

Bisita gidatuak egingo dituzte postuz postu, azoka haurrei ere gerturatzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Baserritarren azoka egingo dute bihar Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. Udaleko Enplegua eta Garapen Ekonomikoa Saileko Marga Garmendiak asteon Arrasate Irratian iragarri duenez, 18 postu egongo dira biharko azokan. Horietatik lau Arrasatekoak izango dira eta beste sei, Debagoienekoak: "Horiek sasoiko produktuak eta produktu eraldatuak ekarriko dituzte". Beste eskualde batzuetako postuak ere egongo dira, bost hain justu, eta horietan produktu bereziagoak egongo dira salgai. Gainera, beste hiru postu berezi ere egongo dira: "Ez dira baserriko produktuak baina dagoeneko ohikoak dira gure azokan; janaria prestatzeko tresnak, baserrirako eta orturako makinaria eta ukenduetarako belarrekin prestatutako produktuen postua, adibidez".

Biharko azokan udako produktuak egongo direla aurreratu du Garmendiak: "Gutxi dira, baina uda berandu heldu zenez oraindik badaude. Hori bai, udazkeneko produktuak izango dira nagusi. Izan ere, udazkena urtaro ona izaten da baserriko produktuendako".


Haur taldea aurreko baserritarren azoketako baten. | GOIENA

**'Goazen merkatura' ekimena**

Baserritarren azokan hilero egoten da berrikuntza bat eta biharkoa ez da salbuespena izango. Jakion enpresak *Goazen merkatura* izeneko ekimena aurkeztuko du. Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarra dago ekimenaren atzean eta honakoa esan digu biharko aurkezpenaren gainean: "Umeak azokara gerturatzea gura dugu, gure baserritarrekin eta garaiko produktuekin harremanetan jartzeko".

**Aukera ona familia osoarentzat**

6 eta 12 urte arteko umeendako ekimena da eta azokan bisita gidatua egingo dute, postuz postu: "Udako zein udazkeneko produktuen uzta nola joan den galdetuko diegu baserritarrei eta haurrek euren lana nolakoa den ezagutuko dute bertatik bertara". Jakion enpresako produktuekin tailer txiki bat ere egingo dute: "Besteak beste, gosariaren garrantziaz egingo dugu berba eta Jakionen produktuekin gosari bat prestatuko dugu".

Bi bisita egingo dituzte. Lehena 10:30ean hasiko da eta bigarrena 12:30ean. Bisiten artean, 11:00etan, ipuin kontaketa saioa ere egongo da: "Gurasoei dei egiten diet haurrekin agertzeko. Zapatua da, elkarrekin egoteko eguna, eta aste osorako menua zehaztu dezakegu", dio Diaz de Monasteriogurenek. Haurrak erosketa unetik inplikatzea ona dela uste du dietistak: "Elikadura erosketa unetik hasten da. Haurrak elikagaiak aukeratzerakoan protagonista badira samurrago jaten dute. Biharko azoka aukera ona da jatorria ulertzeko, eta baita ohiturak aldatzeko zein produktu berri bat probatzen hasteko ere".

**ESANAK**

**"Gurasoei dei egiten diet haurrekin ager daitezen"**

AMAIA D. MONASTERIOGUREN | DIETISTA

## Haurrasate: bigarren saioa urriaren 23an

J.B. | ARRASATE

Txatxilipurdik, Bagarak eta Huheziko Heldu iker-taldeak sustatutako Haurrasate ekimena martxa onean doa. Arrasate hobe bat eraikitzen joateko haurren ikuspegia hartu gura dute oinarri eta horretarako gogoeta fasean daude. Lehen saioa egin zuten, haurrekin lehenengo eta helduekin gero. Bigarrena hilaren 23an egingo dute, Kulturateko Loramendi gelan (18:00); irisgarritasuna eta pertsonen autonomia izango dute berbagai. Gazte eta helduei dago zuzenduta, baina haur zaintza zerbitzua egongo da.

## Elkartruke azoka egingo dute bihar Azoka plazan

Bagarak sustatutako Elkartruke ekimenaren azoka egingo dute bihar: "Era guztietako ondasunak, ezagutzak zein denbora elkartrukatzeko espazioa da", diote. Bihar, txoko berezia egingo diote musikari eta literaturari; askotariko disko eta liburuak trukatzeko aukera egongo da, beraz.

## Lanbide Heziketako 37 ikasle, 'AuzolanArtean' ekimeneko parte

J.B. | ARRASATE

Martitzenean Arrasateko Lanbide Heziketako 37 ikasle izan ziren Garaionekoen etxaldean auzolanean. *AuzolanArtean* izeneko egitasmoan, lasto, adar, garo, hosto eta halakoekin artelanak sortu zituzten. Munduari begiratzeko ikuspegiak adierazi gura izan zituzten eta artelana *Bizitzako ikuspuntuak* moduan bataiatu zuten.

**Munduaren suntsiketa salatu**

Naturak berak ematen dituen baliabideak erabili zituzten gazteek artelanak sortzeko: garoa, buztina, hostoak, adaxkak, lastoa... Taldetan banatu ziren artelanak egiteko. Bost puntu handi marraztu eta gune bakoitzean ideia bat garatuz, artelan bana egin zuten. Rock-and-rolla adierazteko esku bat, naturaren zuhaitza, maitasunaren loreak, lasaitasunaren marihuana-hostoa eta mundu bat, natura zaindu beharra dagoela adierazi eta mundua suntsitzen gabiltzala salatzeko.

Jarduera horrekin, askotariko ikuspuntuak izanda ere, elkarrekin gauza asko sor ditzaketela erakutsi gura izan zieten ikasleei Garaion Naturartea elkarteko kideek.


JOKIN BEREZIARTUA

## Ibaiko zaborra herriari erakusten

Uraren eta Errekaren Astearen barruan 12 lagun aritu ziren Deba ibaia garbitzen. Gehienbat, plastikozko poltsak, latak eta bestelako ontziak atera zituzten. Tarteka, burdin zatiak, arropak, bizikleta bat eta erosketako karro bat ere agertu ziren. Argazkian ikusten dena da 12 lagunen artean bi ordu eta erdian ateratakoa: "Atera kontuak", adierazi dute Udaletik.

## OHARRAK

**1959AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 23an egingo dute bazkaria Aldape jatetxean. Azaroaren 8a baino lehen eman behar da izena; 60 euro sartu beharko dira Laboral Kutxako 3035 0047 11 0471084297 kontu korronte zenbakian.

**1967AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 16an egingo dute urteroko afaria. La Caixako 0200134059 kontu zenbakian 50 euro sartu behar dira.

**1980AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 23an ospakizunerako 40 euro sartu beharko dira Laboral Kutxako 3035 0001 56 0011155838 kontu zenbakian, azaroaren 6a baino lehen.

JON
Prentsa eta janari denda
EGUNERO ZABALIK:
Astelehenetik ostiralera
07:00–13:30 /17:00–20:30
Zapatuetan eta domeketan
07:00–14:00
ADI!
ZERBITZU BERRIA!
IBAI-GANEren produktuak helbide berrian:
Erdiko kalea 9 ARRASATE
kioskoportalon@gmail.com
943 79 34 37
Kupoi hau ekarriz gero, IBAI-GANEren produktuetan
%10eko deskontua*
* Eskaintza baliagarria: 2013ko urriaren 25era arte. Erosketa bakoitzeko kupoi bat.

# Ibilgailuentzako noranzkoak aldatu dituzte zenbait gunetan

Zirkulazioa "seguruagoa eta arinagoa" izatea lortu gura du Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aurrerantzean herriko bi gunetan aldaketak igarriko dituzte gidariek. Izan ere, Arrasateko Udalak zirkulazio norabide aldaketak egin ditu asteon, eta herriko hainbat lekuri eragingo die erabakiak: Legargain-Elkano eta Oñati kaleetan eta Uriburu kalean dauden bidegurutzeetan ezarri dira ibilgailuentzako aldaketak, hain zuzen ere.

**Helburua, arriskuak txikitzea**

Helburua da puntu horietan zirkulazio "seguruagoa eta arinagoa" lortzea; eta gainera, dauden arriskuak txikitu egin gura dituzte. Udalaren arabera, bi gune horietan badira estuak diren zenbait kale, bertan aparkalekuak daudelako.

Azaldu dutenez, kale horietan "nekez" zirkulatu ahal dute autoek bi noranzkoetan. "Zailtasun hori areagotu egiten da autoak baino handiagoak diren ibilgailuak –direla furgonetak, kamioiak zein zaborraren kamioiak edo bilketa selektiboko kamioiak– pasatzerakoan", gaineratu dute. Bada, egoera hobetu gura dute.

**Arriskuak txikitu**

Elkano eta Oñati kaleen gunean, sarrera eta irteerako zirkuitu bat antolatu dute. Eta Udalak dioenez, ibilgailuarekin metro batzuk gehiago ibili behar izatea dakarren arren, zirkulazioa "seguruagoa eta arinagoa" izatea lortuko da.

Era berean, Uriburu kalean beste aldaketa bat ezarri dute, eta Uribarri etorbiderako sarrera debekatu dute. Aditzera eman dutenez, arrazoia izan da ikusgarritasun txikiko gunea dela eta zirkulazioan "arrisku handia" eragiten duela maniobra horrek.

Debekua adierazten duen bigarren seinalea, ostera, kale horren goialdean ezarri dute –7-bis zenbakirantz–. Toki hori hautatzearen arrazoia ere azaldu gura izan dute Udaletik: "Autoak baino handiagoak diren ibilgailuentzat, esate baterako zaborraren kamioientzat, oso zaila da 7-bis zenbaki aldera sartzeko bihurgunea hartzea, oso itxia delako".



Legargain kaletik Elkanorako sarbidea debekatu dute. | JOKIN BEREZIARTUA

## Gazte Bulegoak sukaldaritza eta bitxigintza ikastaroak antolatu ditu

Z.V.D.M. | ARRASATE

Udaleko Gazteria Sailak bi ikastaro antolatu ditu: batetik, Igor Otadui arrasatearrak "menu errazak, goxoak, merkeak eta osasuntsuak" prestatzen irakatsiko du; azaroaren 5etik abenduaren 10era izango da ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara.

Dunixe Royok, ostera, birziklatutako materialekin apaingarriak egiten irakatsiko du, azaroaren 6tik abenduaren 11ra, eguaztenero ( 18:00-20:00). Izenematea: Gazte Bulegoan; 943 25 20 65; *gib@arrasate-mondragon.net* helbidean. Prezioa: 30 euro (20 ikasle eta langabeek).



Plater errazak prestatzen irakatsiko dute ikastaroan. | GOIENA

## Usaetxe ludotekaren seigarren urteurrena ospatuko dute gaur

Usaetxe udal ludotekak sei urte betetzen dituela-eta, urteurren festa antolatu dute gaurko, egubakoitza. Hala, 17:00etatik 20:00etara askotariko ekintzak izango dituzte eskura bertaratzen direnek: karaokea, aurpegi margotzea, jolas erraldoia eta merienda, hain zuzen ere.




# Ford Mugarri, liga hasiera onari jarraipena ematera

- Leioako Quiron Askartza taldea etorriko da bihar Iturripera, 18:30ean
- Mailaz igo arren, lehen lau partiduetatik hiru irabazi dituzte arrasatearrek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ford Mugarrik Leioako Quiron Askartza taldearen bisita izango du bihar Iturripen (18:30). Arrasateko taldeak denboraldi hasiera onari eutsi gura dio, eta azken astean Santoñan emandako erakustaldiari jarraipena eman. Ezin da ahaztu, Lehen Nazional mailara igo berri, jokatu dituzten lau partiduetatik hiru irabazi dituztela eta bakarra galdu. Zortzi puntutik sei lortu dituzte: "Oso baikorra izanda ere inork ez zukeen pentsatuko horrenbeste puntu ateratzea", esan digu Pablo Gartzia entrenatzaileak.

Aurkariaren gainean honakoa uste du Gartziak: "Oso talde ona da, azken jardunaldian lehen sailkatua garaitu zuten, eta, beraz, zaila izango da irabaztea".

**Defentsan are gehiago hobetu**

Taldea bide onean doala uste du entrenatzaile oñatiarrak: "Apurka hobetzen ari gara, taldearen bilakaera ona dela esango nuke. Hori bai, oraindik asko dago hobetzeko. Denboraldia oso luzea da eta ezin gara erlaxatu". Izan ere, Lehen Nazional Mailan ez dago erlaxatzerik: "Konturatu gara liga honetan edozein taldek irabaz dezakeela, talde guztiek maila berdintsua dutela". Erasoko jokoan oso jokalari trebeak ditu Ford Mugarrik baina defentsako lana erasokoa bezain garrantzitsua da maila honetan, Gartziaren arabera: "Defentsan hobetu dugu bai, baina hobetzeko asko dugu oraindik".



Mikel Zuloaga jaurtiketarako gertu, etxeko partidu baten. | ARTXIBOA

**Kantxaren egoera auzian**

Bestalde, kirol arlotik haratago, Iturripeko kantxa izan da Arrasate Eskubaloi Taldearen kexa nagusia denboraldia hasi zenetik. Oso labainkor egon dela salatu izan dute. Azken egunotan kantxaren egoera hobetzeko lanean aritu dira baina Gartziak ezin du egoera hobetu den azaldu, martitzenean entrenamendua Aretxabaletan izan zuelako. Gaurko saioan ziurtatu ahalko dute kantxaren egoerak hobera egin duen edo ez.

ESANAK

**"Liga honetan maila berdintsua dute talde guztiek"**

PABLO GARTZIA | ENTRENATZAILEA

## "Formaziorako denboraldia" Mondrako neskendako

J.B. | ARRASATE

Mondrako neskek, Emakumezkoen Bigarren Mailan jokatzen duten bigarren denboraldi honetan, bost partidu jokatu dituzte. Guztiak galdu dituzte, gol bakarra sartu eta 34 jaso. Datu deigarriak dira eta Andoni Ezkurrak azaldu digu zein den, haren ustez, gainbeheraren arrazoia: "Iaz gazteenak ziren jokalariak bakarrik geratu dira, bost edo sei jokalari. Gainerako guztiek taldea utzi dute. Taldea mantentzea bera ere kili-kolo egon zen, jokalari faltagatik. Azkenean, gazte mailakoekin osatu da taldea". Azken hiru urteetan entrenatzaile moduan aritu da Ezkurra; orain bertan, Fernando Uranga entrenatzailearen laguntzailea da.

**"Oso handia" da aldea**

"Oso talde gaztea da eta argi dute aurtengoa formaziorako denboraldia izango dela. Partidu gehienetan hainbat gol jasoko dituzte eta horretarako mentalizatuta daude", gaineratu du Ezkurrak. Partidu bakarra jarraitu du talde berriarekin baina nahikoa izan da harendako taldeen artean dagoen aldea "oso handia" dela ikusteko: "Asteburu honetan Lezaman ere zakukada ederra jasoko dute".

Bihar jokatuko dute Lezaman Athletic B taldearen aurka (17:00). Bilboko taldea hirugarrena da sailkapenean.

## MUk Atletico San Sebastian taldearen bisita jasoko du bihar Iturripen (20:00)

J.B. | ARRASATE

Donostiako Atletico San Sebastian taldea hartuko du Mondragon Unibertsitateak bihar Iturripen (20:00): "Talde ona dute, partidu gogorra izango da. Kontraerasoan abilak dira eta erreboteetarako jokalari altuak dituzte. Sailkapeneko goiko postuetan egongo den taldea dela esango nuke". Partidua irabazteko gakoa "azken partiduan egindakoa ez egitea" dela uste du Eskoriatzako entrenatzaileak. Gainera, taldeak arlo fisikoa hobetu behar du: "Orain arte ezin izan gara nahi moduan entrenatu, kantxa oso egoera txarrean zegoelako".

Hala ere, azken lanen ostean, kantxa "askoz hobeto" dagoela esan digu Larreategik.



Igor Isasiren mutilak, iaz jokatutako partidu baten, Mojategin. | ARTXIBOA

## Hernanin hasiko du denboraldia bihar Arrasate Rugby Taldeak

J.B. | ARRASATE

Bihar hasiko du denboraldia Arrasate Rugby Taldeak; Hernanin jokatuko dute, 18:15ean. Igor Isasi entrenatzailearen arabera, aurten ere jokalari falta izango da taldearen arazo nagusia: "Jokalari gutxi dago aurten ere. Lehen partidurako 16 edo 17 jokalari egongo gara. Aurten badirudi hasieratik sufrituko dugula".

Bihar zelaian etsai izango duen taldea ez du ezagutzen Isasik: "Urtetik urtera asko aldatzen den taldea da". Izan ere, Arrasateko taldeari gertatzen zaion kontrakoa gertatzen zaie hernaniarrei. Hau da, errugbian jokatzeko gertu dauden hainbat jokalari dituzte: "Gure liga berean bi talde dituzte. Izan ere, aurten 17 talde gaude eta bi multzo egin dituzte; talde bana dute multzo bakoitzean. Gu talde bat osatu ezinik eta Hernanikoak bi talde egiteko beste jokalari...", dio Elorriokoak.

**Elortzaren etorrerarekin pozik**

Hala ere, bada pozteko moduko albisterik: "Oso pozgarria da Iker [Elortza] hemen egotea. Edonor da ongietorria, baina halako maila duen jokalari baten presentziak asko laguntzen dio taldeari". Asteleheneko *Goiena* paperean luze eta zabal arituko da Isasi denboraldi berriaz.



AKE

## AKE, pozik padel lehiaketarekin

Irailaren 29an amaitutako padel txapelketa dela-eta pozik agertu dira AKE elkarteko kideak: "Oso ondo joan zen txapelketa, batez ere partaidetza aldetik". 40 gizonek eta hamar emakumek hartu zuten parte. Mutiletan irabazleak Juan Luis Etxaniz eta Oskar izan ziren eta nesketan, berriz, Amaia eta Arantza. Irudian, finalistak.

## DV-Bankoa pilota txapelketa bihar Uarkapen

J.B. | ARRASATE

DV-Bankoa pilota txapelketaren jardunaldia izango da bihar Uarkapen. Amateur mailako pilota txapelketa entzutetsuena da. 17:30ean hasiko dira partiduak: promes mailan, Bakaikoak eta Erasunek Etxebarriaren eta Ibarrondoren aurka jokatuko dute eta seniorretan, Agirrek eta Lasak Mendinuetaren eta Diezen aurka. Sarrera doakoa izango da.

**Alebinak eta infantilak**

Gaur eta domekan ere Arrasate Pilota Taldeko 12 pilotarik partidua izango dute Gipuzkoako txapelketako alebin eta infantil mailetan. Gaurko partiduak 19:15ean hasiko dira; domekan, ordea, 11:15ean hasiko dira.



Celine Benavente sopranoa, Kulturaten egindako aurrerapenean. | JAGOBA DOMINGO

# 'La Traviata'-n, amodioa eta heriotza bat eginda

Ozenkin taldearen eskutik, 30ean 'La Traviata'-k Amaian antzokia beteko du

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE
Giuseppe Verdik 1853an estreinatu zuen *La Traviata,* arrakasta handirik gabe. Denborak aurrera egin ahala, obraren garrantzia handitzen joan da.

Operak Violetta gorteko prostituta baten bizitza du ardatz, haren eta Alfredo maitalearen arteko drama kontatzen du. Amodioa, heriotza, samina, poztasuna... *La Traviata* sentimentu guztiak nahasten dituen istorio bat da. Obra horrekin, Verdik estilo helduagoa lortu zuen. Amodio istorio horrren bitartez orduko errealitatera hurbiltzeaz gain, ordura arte ez bezala, pertsonaiei sakontasuna eman zien.

Garaiko estilo eta gustuak errespetatuz, oso istorio erromantiko eta iluna idatzi zuen konpositore italiarrak.

**Motorrak berotzen**
Aste honetan, Ozenki elkarteak *La Traviata* iragartzeko aurkezpen berezia egin du kultura etxean. Celine Benavente soprano frantsesak ederto girotu zuen Kulturate. Benavente sopranoak Isabella Blezien piano-jolearen laguntza izan zuen.

Aurkezpen txukuna izan zen, eta Benavente sopranoak aho bete hortz utzi zituen han batutakoak, *La Traviata* eta *Rigoletto* obren bi aria interpretatuta. Aurkezpen berezi horretan ez zen bakarrik egon, eta Ibon Robles opera kritikariak obraren nondik norakoak eta konpositore italiarraren testuingurua azaldu zituen.

Horiekin batera Manu Gallardo Ozenki elkarteko kideak ere parte hartu zuen. Gallardok Arrasateko emanaldiari buruzko hainbat xehetasun aipatu zituen.

**Verdiren urteurrena**
Aurten Verdi Urtea da opera munduan, konposatzaile italiarra orain dela 200 urte jaio zelako, eta horrek eragina izan du Ozenki elkarteak *La Traviata* opera aukeratzeko orduan.

Urriaren 30ean, urtero moduan, Amaia antzokia bete egingo da. Gogoan izan behar da Udalaren webgunean sarrerak erosi ahal izateko esteka dagoela. Hala, Amaia antzokiko txarteldegiko ordutegiaz gain, sarrerak erosteko beste bide bat ere egongo da. Sarrerak Internet bitartez erosten dituztenek, gainera, %10eko deskontua izango dute. Aurkezpenean aurreratu zutenez, gehienak salduta daude.


GOIKOBALU

## Santiago bidea kantuz egiten

2009. urtean ekin zioten abentura honi, eta aste bukaeran Ponferrada eta Villafranca del Bierzon izan dira. Zapatuan Ponferradan emandako kontzertuan eliza bete egin zen, eta Villafrancako meza nagusian ere antzerako zerbait gertatu zen. Goikobaluk bi emanaldietan errepertorio sakro eta euskaldun tartekatu zuen.

# Arregi arte aretoan erakutsiko dituzte Galartaren lanak

**I.GALLEGO/I.GOITIA** | ARRASATE
Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkarteak artistaren hainbat lan ikusgai izango diren erakusketa inauguratu zuen atzo, eguena, Arregi arte aretoan. Erakusketak helburu bikoitza dauka: batetik, Galartaren obra ezagutzera ematea; eta bestetik, Arrasateko pintorearen obrak babesten dituen elkartearentzako dirua lortzea. Horretarako, Julio Galarta margolariaren zenbait artelan salgai jarriko dituzte.

Apirilean aurkeztu zuten Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkartea, eta hau da egingo duten lehen erakusketa. Jose Mari Velez de Mendizabal elkarteko presidenteak adierazi zuenez, erakusketa Arrasaten izanik, horixe hartu dute gai moduan. Galarta oso paisajista trebea izan zen, eta, arrasatearra izanda, hurbileko bizitokia askotan margotu zuen.

Erakusketan ikusten denez, kaleko txokoak eta baserri giroko estanpak oso ohikoak dira. Arregi arte aretora, guztira, 18 koadro eroan dituzte. Pintore arrasatearraren elkarteak, lan horiekin, Galartaren ondarea ezagutzera eman nahi du.

**Elkartearentzat dirua lortu**
Erakusketaren helburuetako bat Galartaren lana ezagutzera ematea da eta bestea, dirua batzea. Horregatik, salgai jarriko dituzte Galartaren artelanetako batzuk, eta batutako dirua artistaren obra ikertzeko erabiliko dute. Bada, arte mostra azaroaren 17ra arte ikusgai egongo da Arregi arte aretoan.


Arregi aretoko aurkezpena. | IRATI GOITIA

# Lehen aldiz ospatuko da biblikoteka eguna herrian

Espainia 1997.urtean ospatzen ari zen, urtero ilustratzaile batek sortzen du eguneko kartela

**I.G.** | ARRASATE
Beste toki batzuetan oso errotua dagoen tradizioa izan arren, Arrasateko biblioteketan lehen aldiz ospatuko da egun hau.

**Guztiontzako ekimena**
Bibliotekak zerbitzu publiko interesgarri eta anitzak direla aldarrikatzeko data da. Horregatik, adin tarte guztientzako saioak antolatu dituzte.

Astelehenean 18:00etaik aurrera Santa Marinako auzo bibliotekan 4-6 urte bitarteko haurrek *Kontu Kantoi* ipuin saioa izango dute. Eguaztenena, ordu berean, 6 urtetik aurrerakoek *El guardián de los cuentos* antzerkia izango dute, eta egunean 19:00etatik aurrera Boni Ofogo eta Koldo Amestoyk helduentzako ipuin saioa eskainiko dute. Azken bi ekitaldi hauek kulturaten izango dira.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

# Irregulartasunak salatu dituzte atez atekoaren aurkako sinadura-batzean

## "Oposizioa kuantifikatzeko zifrak errealak ez" direla dio Gobernu taldeak

**T.M./M.B.** | BERGARA
Gaikako hondakin bilketaren eta horren bueltan azken hilabeteetan esan direnen inguruan agerraldia egin zuen atzo Udal Gobernu taldeak.

"Pozten gaitu adierazteak aurrera jarraitzen dugula hondakinak gaika biltzeko proiektuarekin eta laster izango dugula martxan emaitzarik onenak lortzen dituen bilketa sistema Bergaran", esan zuen Jaione Isazelaia alkateak.

"Egia da gai korapilatsua" dela eta "oraindik ere herritarren artean tentsioa" sortzen duela esan zuen, baina "Gobernu taldeak tentsio hori apaltzeko saiakerak" egin dituela eta "prest azaldu diren pertsona eta talde guztiekin gaia lantzeko beti irekita agertu" direla ere azpimarratu zuen.

Hondakinen problematikari erantzuna emateko "ahalegin handiak" egin dituztela azaldu zuen: "Herritarrengana gerturatu gara, atariz atari bilerak egin-da; hainbat informazio saio antolatu ditugu; sistemari forma emateko parte hartze saioak egin ditugu; eta, azkenik, oposizioarekin eta herriko beste hainbat eragilerekin batera mahai batean jesarri gara guztiontzako irtenbiderik hoberena bilatzeko. Onartu beharra daukagu, tamalez, azken honek ez duela ia fruiturik eman".

### "Datuak ez dira errealak"

Gehitu zuenez, kontziente ere badira "herritar batzuek ez dutela onartzen" proposatzen duten aldaketa. "Baina kontziente gara, era berean, ezin diegula entzungogor egin duela bi urte gugan konfiantza jarri zuten bergararrei. Are gehiago, herrian dagoen oposizioa kuantifikatzeko eman diren zifrak eta datuak errealak ez direla jakinda. Izan ere, Bergara Garbiak eta EAJk 4.691 sinaduraz hitz egiten badute ere, datu horiek egiazkoak izatetik urrun daude", gehitu zuen Isazelaiak.


Gobernu taldeko kideak atzo prentsaurrekoan. | TXO,MIN MADINA

Aurkeztutako dokumentuak udal idazkariaren laguntzaz aztertu dituztela azaldu zuen eta salatu nahi izan zuten "Bergara Garbia plataformak eta EAJk herritar ugariren zilegizko desadostasuna manipulatu eta itsustu dutela".

### Azalpenak eskatu dizkiete

Horren aurrean azalpenak eskatu nahi izan dizkiete publikoki Bergara Garbiari eta EAJri, zenbait galdera planteatuta: "Zer dela eta deitzen die sinadura bilketa dokumentu hauei, sinadurarik jaso ez denean? Zer dela eta daude orrialde osoak pertsona berak idatzita? Zergatik daude Bergara Garbiako eta EAJko hainbat politikariren izenak bikoiztuta? Zergatik daude Bergarakoak ez diren izenak zerrendetan?".

"Egia esan, iruzurrari buruzko informazio hau ez da berria guretzat", esan zuen Isazelaiak, "baina ez dugu publiko egin nahi izan, berez teknikoa den gai honi kutsu politikoa eta morbosoa ez ematearren. Gobernu talde bezala arduraz jokatzea egokitu zaigu, gu, bergararren arteko tentsioa ekiditeko".

Bergara Garbiak eta EAJko eta PSEko ordezkariek horren berri bazutela ere esan zuen, "baina egoera gogortzen jarraitu dute eta orain galdeketarako dei egin dute". Eta dei horren aurrean zera gehitu zuen: "Adieraz dezakegu ez dugula konfiantzarik, ez galdeketaren asmoetan, ezta emaitza posibleetan; izan ere, aurrekariak ditugu: batetik, Bergaran bertan, ustezko sinaduron iruzurra eta, bestetik, Gipuzkoan orain arte egin diren galdeketen sinesgarritasun falta".

### "Arduraz jokatzea dagokigu"

Egoera horren aurrean "arduraz jokatzea" dagokiela uste du Isazelaia alkateak, Gobernu taldeko gainerako kideek bezala. "Herritarrak aspertuta daude gai honekin eta behin betiko erabakia hartzeko ari zaizkigu eskatzen", esan zuen. Eta gehitu zuen: "Gainera, hondakinen gaiaz gain, Bergarak eta Debagoien osoak baditu oso garrantzitsuak eta larriak diren gaiak eta hauen inguruan jarri nahi dugu gure arreta eta indar osoa legegintzaldiaren bigarren zatian".

Amaitzeko, "herritarren beldurrak uxatu" nahi dituztela azpimarratu zuen, eta lasaitasun mezua igorri. "Aldaketa oso txikia da eskatzen duguna eta ziur gaude herritarrek ondo egingo dutela", azpimarratu zuen.

### Bilketa sistema berriaren gaineko argibideak eman dituzte

**NOIZ** Abenduko lehen asteetan ezarriko dute hondakinen bilketarako sistema berria.

**KONBINATUA** Sistema berrian edukiontziak eta esekitokiak konbinatuko dira.
> Papera, ontzi arinak, beira, arropak eta olioa edukiontzietan bilduko dira. Ordutegi eta egutegi librean.
> Organikoa eta errefusa, berriz, esekitokietan kateatu beharko dira, ordutegi eta egutegi zehatzarekin.

**PLANGINTZA** Sistema berria martxan jartzeko honako plangintza zehaztu dute.
1. Uda aurretik ekarpen-guneak eraiki zituzten landa auzoetako hondakinak jasotzeko.
2. Urriaren 14ko astean posteak jartzen hasi dira Labegaraietan eta San Lorentzon. Herriaren kanpoaldetik erdigunerantz jarriko dituzte eta zenbait aste beharko dira.
3. Oraingoz edukiontziak daudenez, lur okupazioa handiagoa da. Horrek eragin du posteak jartzerakoan aurreikusitako lekutik metro gutxi batzuk mugitzea, betiere leku egokiagoan jarriz, irizpide teknikoarekin.
4. Material banaketa. Etxe bakoitzeko bi balde marroi —organikorako— eta bat gris kolorekoa —errefusarako— banatuko dira. Gida, hiztegia eta imana ere banatuko dira. Gidan funtzionamendua jasotzen da eta hiztegian, zer-nola bereiztu. Urriaren 29tik azaroaren 13ra egingo da banaketa, Oxirondoko azokan, azaroaren 8an izan ezik. Egun horretan Labegaraietako kiroldegian banatuko da eta Osintxun eta Angiozarren azaroaren 13an.
5. Bando eta eskuorri bidez jakinaraziko da zein egunetan eta non jaso beharko den materiala. Etxebizitza bakoitzari dagokion bilketa puntua ere bertan adieraziko da.
6. Ordutegia: 10:00-14:00 eta 17:00-20:00 izango da.
7. Dagokion egunean joaterik ez duena azaroaren 13a arte edozein egunetan pasatu ahal izango da azokatik materiala jasotzera.
8. Aurrerantzean, informazio bulegoa udaletxean, udaltzainen pareko bulegoan egongo da, astelehenetik eguenera, 10:00-14:00 eta 15:00-19:00 eta egubakoitzetan 10:00-14:00. Materiala banatzeko, herritarren laguntza eskertuko dute: 943 76 46 18.

# Bergara Garbiak hondakinen bilketa sistemari buruzko kontsulta egingo du



Ehunka pertsona Bergara Garbiak astelehenerako deitu zuen elkarretaratzean. | IMANOL GALLEGO

**IURE EIZAGIRRE** | BERGARA
Bergara Garbia plataformak hondakinen bilketa sistemari buruzko herri kontsulta antolatu du azaroaren 9rako eta 10erako. "Behin baino gehiagotan planteatu dugu Udalean kontsulta bat egitea eta ez dute egin, horregatik pentsatu dugu geuk eramatea aurrera", azaldu du Jose Antonio Aperribai plataformako kideak.

"Seguru gaude jendeak zer nahi duen, lehen ere ia 5.000 sinadura lortu genituen eta batzuk sinatu ezinda geratu ziren. Batzuk egongo dira ados, baina gehienak atez atekoaren kontra daude", gaineratu du Aperribaik.

Joan den astelehenean San Martin plazan egin zuten elkarretaratzean iragarri zuen kontsulta egiteko asmoa Bergara Garbiak. Ehunka pertsona batu ziren plazan *5. edukiontziari bai. 4691 sinadura. Atez atekoari ez* lelopean.

### "Malgutasunik eza"

Elkarretaratzean, "Bergarako Udaleko agintarien malgutasunik eza" salatu zuten, "hondakinen mahaia apurtu eta hasieratik pentsatuta zuten sistema mistoa ezartzea erabaki dutelako". "Ez dituzte gure proposamenak kontuan izan, eta, horren ondorioz, gure protestekin jarraituko dugu", argitu dute.

Hondakinen bilketa sistema berriaren aurka daudenei eurena defendatzen jarraitzeko dei egin diete plataformatik: "Gehiengoak gaitzesten duen sistemaren eta ezarritako inposaketaren aurka euren iritzia defendatzen jarraitzea eskatzen dugu". Herri kontsultan botoa emateko dei egin diete bergararrei.




Bitoriano Gallastegi eta Aintzane Oiarbide. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

# EAJk alkatearen dimisioa eskatu du zintzilikarioengatik

## Elkartasuna adierazi dio Bergara Garbiak azaro erdialdean egingo duen herri kontsultari

Z.V.D.M./I.E. | BERGARA

Bergarako EAJ alderdiak prentsaurrekoa egin zuen eguaztenean, hondakinen bilketa sistemaren gainean azken egunotan jazotakoak baloratzeko. Bitoriano Gallastegi eta Aintzane Oiarbide izan ziren bozeramaileak eta "Bilduk harriduraz betetako bergararren borondatea zapaldu" duela esanez hasi zuten agerraldia.

Hasteko, Bergara Garbia plataformak egindako atez ateko sistemaren aurkako protestak eta azaroaren 9rako eta 10erako deitutako kontsultak "erantzuna" izan dutela esan zuen Oiarbidek. "Martitzen goizean Labegaraietan eta San Lorentzon zintzilikarioak ipini zituzten", eta, EAJko zinegotziak gaineratu zuenez, ez zeukaten hori egin behar zutenaren berri.

Jeltzaleek Bilduren jarreraz ere egin zuten berba: "Ez gara harritu Bilduren erantzun totalitarioarekin". Oiarbidek esan zuen bi urtetik gora daramatzatela Udal Gobernuaren funtzionamendua ikusten: "Oposizioko ordezkariei eta bergarar gehienei bizkarra behin eta berriz nola ematen dien sufritzen. Bi urte pasatxo atez atekoari buruzko informazio eskaerak ukatuz, beraien erabaki politikoak justifikatzeko datu manipulazioak sumatuz eta herri partaidetzaren funtsa nola indargabetzen den ikusiz".

EAJk uste du jarduera hori areagotu egin dela alkate berriarekin: "Argi dago kale egin dutela lehenengo ahaleginean, bigarren alkatearekin bergararrak isildu eta euren borondatea zapaltzea dute helburu".

Bestalde, esan zuten askotan eskatu diotela Udalari herri kontsulta egiteko hondakin bilketaren inguruan, eta "hondakinen mahaia apurtzean galdeketa hauteskundeetan egin eta gehiengo nagusia zutela erantzun ziguten". "Horrelako jarrerarekin erabateko legitimitatea galdu dute inolako galdeketak eskatzeko".

### Alkatearen dimisioa

Jaione Isazelaiaren dimisioa ere eskatu zuten: "Jardunbide prepotente eta harroputz honek gogora ekartzen digu PPren gehiengo nagusia duen Gobernuaren gobernatzeko era, Bilduk behin eta berriz kritikatua".

Eta gehitu zuten: "Bildu eskizofrenia fasean sartu da eta alkate andreari eskatzen diogu ez ditzala Bergarako Udala eta herritarrak gehiago kaltetu. Ez dezala gehiago *burdinazko damarena* egin eta utz dezala bere kargua behingoz".

ESANAK

**"Ez dezala gehiago 'burdinazko damarena' egin eta utz dezala bere kargua behingoz"**

AINTZANE OIARBIDE | EAJ

# Kirol argazki onenak sarituko dituzte gaur

## Bergarako XII. kirol argazki lehiaketako sariak banatuko dituzte gaur, 20:00etan, Aroztegin



Xabier Mataren *Travesia 3* argazkia. | XABIER MATA



Javier Pedro Fernandezen *Carrera de vacas* argazkia. | JAVIER. P. FERNANDEZ

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Aurtengo kirol argazki hoberena dagoeneko aukeratu dute lehiaketako epaimahaiko kideek: zuri-beltzeko argazki onena Legorretako Xabier Mataren *Travesia 3* izan da; koloretan, aldiz, Berangoko Javier Pedro Fernandez Ferrerasen *Carrera de vacas II* irudia.

Sari banaketa gaur izango da, 20:00etan, Aroztegi aretoan, eta bertan izango dira saritutako argazki guztiak, baita egileak ere, jakina.

Bada, lehenengo bi sariez gainera, zuri-beltzean eta koloretan, bigarren, hirugarren eta herriko sariak ere banatuko dituzte. Koloretan, bigarren saria Manu Barrerirok irabazi du *Reading for surfing* argazkiarekin eta hirugarrena, Xabier Matasek *Salto de vallas* argazkiari esker. Herriko saria Jose Agustin Gurrutxagak bereganatu du *Water polo* argazkiarekin. Zuri-beltzeko atalari dagokionez, bigarren saria Bergarako Aritz Ugartek irabazi du *Gasteiz* argazkiarekin eta hirugarrena, Jose Agustin Gurrutxagak *Gimnasia rítmica*-rekin. Herriko saria, berriz, Benito Canterorentzat izan da.

Aurten, 133 argazki jaso dituzte, 54 zuri-beltzean eta 79 koloretan, eta Euskal Herriko txoko askotatik bidalitako irudiak jaso dituzte. Argazkiak Aroztegin izango dira ikusgai gaur iluntzetik azaroaren 3ra arte, asteko egunetan.

## Eskubaloi partidu garrantzitsua domekan

A.E | BERGARA

Bergarako Soraluze BKE eskubaloi taldeak partidu garrantzitsua jokatuko du domeka honetan, urriaren 20an, Leitzaran taldearen aurka. Izan ere, Leitzaran bigarren dago sailkapenean eta bergararrak, aldiz, hirugarren dira, puntu bakarrera. Horrenbestez, pauso garrantzitsua emateko garrantzitsua izango da aste bukaerako norgehiagoka. Bada, zaleek domekan, 10:45ean, Labegaraietako kiroldegian dute aukera taldea animatzeko.



ANE ETXEBERRIA

## Erregetxoko etxebizitzen zozketa

Martitzenean, Erregetxo plazan egingo dituzten etxebizitzak zozketatu zituzten: babes ofizialeko 12 eta tasatutako 13, hain zuzen ere. Guztiak bi eta hiru logelako etxebizitzak dira eta, guztira, 36 eskatzaile izan dira. Gainera, itxaron-zerrenda sortu zuten, norbaitek atzera eginez gero, zerrendan daudenek etxea eskuratzeko aukera izan dezaten.

Jolas
Moda eta osagarriak
Barrenkale 27 - BERGARA - 943 76 46 48
%30 Urrian eko deskontua
Marka hauetan:
SINRECETA
UNO de 50




ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

# Udal Bandak Osintxun emango du kontzertua

Entzuteko musika erraza eskaini eta euskal doinu herrikoiekin amaituko dute

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Bergarako Udal Musika Bandak Osintxura lekualdatu du hilabete honetako kontzertua. Domekan izango da emanaldia, 12:30ean hasita, betiko moduan, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean.


Bergarako Udal Musika Banda kontzertu batean. | GOIENA

Udal Bandak hamabi kontzertu eskaintzen ditu urtero herrian, normalean plazan. Duela urte batzuk arte, herriko hainbat auzotan ematen zuen herriko kontzertuetako bat, eta, ohitura hori berreskuratzeko ideiarekin, Osintxuko auzo-alkate Jon Olivaresek berak eskatu zion Udalari bandak auzoan jotzea. "Komentatu genuen aspaldian ez zela etorri banda auzora eta proposatu egin genuen. Nahi eta nahi ez Osintxu Bergara da, eta zergatik ez ekarri banda auzoetara? Ez zen inolako trabarik egon". Hala, bada, Udal Musika Banda auzoko pilotalekuan izango da giroa alaitu eta auzoa girotzen.

Aurreikusitakoaren arabera, 35 minutu inguruko kontzertua emango du bandak, formatu berezian. Obertura klasikoarekin hasiko da, Ferdinand Herolden *Zampa* piezarekin. Entzuteko musika erraza eskaintzeko asmoa du bandak eta honako piezek osatuko dute egitaraua: Pascual Markinaren *Certamen Levantino* pasodoblea, Peter Milrayren *Cake Walk Phantasy*, Kees Vlak *Rivieren-Cyclus* suitea eta, amaitzeko, Oskorri taldeko Natxo de Feliperen *Furra-Furra* kantu herrikoi eta ezaguna.

Egitaraua aztertuta, musika klasikoarekin hasi eta euskal doinu herrikoiekin amaituko du emanaldia Udal Bandak. Izan ere, kontzertuaren lekua kontuan izanda, publiko guztiendako egitaraua prestatu nahi izan dute. Eta herritar guztiak daude gonbidatuta emanaldira. "Ilusioz hartu dugu kontzertua auzoan eta espero dugu bertakoak han izateaz gain, herriguneko jendea ere hurbilduko dela", adierazi du Olivaresek. Auzoarendako pizgarri izango dela gaineratu du.

### Azaroa Gaztañatan

Domekan sortuko den giroa baliatu nahi dute Osintxun eta Udal Musika Bandaren kontzertua erabiliko dute urtero antolatzen duten Azaroa Gaztañatan ekimena aurreratzeko.

Egitasmo horren barruan, askotariko kultura ekintzak egiten dituzte Osintxun hilabete osoan. Aurreko urtean, adibidez, umeendako pailazoak eta magoa, gaztainak eta sagardo banaketa, Erretiratuen Eguna, musika ikuskizuna eta mus txapelketa antolatu zituzten.

Oraindik ez dituzte datozen asteetarako ekintzak iragarri, baina, Olivaresek jakinarazi duenez, bandaren kontzertuaren harira, erretiratuen bazkaria egingo dute. Emanaldiaren ostean izango da auzokoen bazkaria, Txuringo jatetxean.

# Erromantizismoa ezagutzeko ziklo berezia

Organoaz gain, Airean ahots taldeak lehen emanaldia egingo du Santa Marina parrokian

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Erromantizismoa, egun duen izaeratik urrun, XIX. mendean gizakiaren argi-ilunak azaleratzen saiatzen zen estiloa zen, Euskal Herrian estilo ezezaguna den arren, "konposizio konplexu bezain aberats eta ederrak izan ohi dira", dio Marije Ugaldek, organo erromantikoaren nazioarteko zikloaren sustatzaileetako batek.

Bada, 14. edizioa martxan dagoen arren, biharkoa zikloari amaiera borobila emango dion saioa izango da. Musikazaleek ez dute hutsik egingo eta zale ez direnek, 20:00etatik aurrera, argi-ilun eta ñabarduraz betetako obrak ezagutuko dituzte. Brahms eta Mendelssohn konpositoreen aberastasuna ezagutzeko aukera izango da. Emanaldia berezia izango da, Aitor Olea organo-maisuaz gain, emakumeek presentzia berezia izango dute-eta.

### Airean ahots taldea

Bederatzi emakumek osatzen dute taldea. Guztiak ere, musika prestakuntza eta esperientzia zabalarekin. Musika irakasleak, bakarlariak, abesbatzen zuzendariak eta abeslariak dira. "Euskal Herrian gizonezko abesbatzek tradizio handia dute, baina emakumezko oso talde gutxi dago", azpimarratu digu Ugaldek.

Taldearentzat une berezia izango da, maiatzean sortu eta gero, zapatukoa lehen emanaldia izango da: "Dudarik gabe, saio berezia izango da, lehenengoa izateaz gain etxean egingo dugulako".

Ziur, bada, musika erromantikoak Santa Marina parrokia bete egingo duela.


Taldeko bederatzi kideak. | AIREAN AHOTS



*¿Dónde está la pierna del alcalde?* antzezlana. | JOSETXO ARANTZABAL

## San Joxepen kultura hamabostaldiari ekin diote

I.G. | BERGARA

Martitzenean ekin zioten San Joxepekoek kultura hamabostaldiari, Jerardo Lekuona apaiz bergararraren hitzaldiarekin, eta hilaren 26ra bitartean ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Egitarau zabala osatu dute San Joxepekoek kultura hamabostaldirako. Gernikako urriko asteleheneko azokara joango dira urriaren 21ean, eta ondoren, Mundakako itsasadarra ezagutzera joango dira. Irteerez gain, dantzaldia, hitzaldia, erretiratuek eginiko eskulanen erakusketa eta, nola ez, antzerkia ere izango dituzte.

### Ikusi Makusi taldea

*¿Dónde está la pierna del alcalde?* izeneko antzezlana egingo dute gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 17:30ean.

## Kartzela zaharra kulturaren erakusleiho bihurtu da

I.G. | BERGARA

Bergarako gaztetxea –garai baten kartzela zena– herriko kulturaren muina da gaur egun.

### Zapatuan kontzertua

Ondo ezagutzen dute agertokia larunbateko bi taldeek. Fiachrasek hamaika aldiz bete du kartzela zaharra eta Sumison City Blues-eko jendearentzat ere ez da oholtza ezezaguna izango. Bi taldeek Bonberenea Ekintzekin egin duten lana aurkeztuko dute. Emanaldia 23:00etan hasiko da, eta 5 euro kostako da sarrera. Kontzertua Txapa Irratiari laguntzeko izango da.

### 'Kar-kartzela'-ren barruan

Aurreko asteko lehen emanaldian lortutako arrakastaren ostean, aste honetan ere kritika umoretsuaz gozatzeko aukera egongo da. Gaur, Txiki eta lan hauetan ezaguna den Jon Plazaola gerturatuko dira gaztetxera, guztiari punta ateratzeko prest. Urriaren 25ean, berriz, Xustin Sermoia eta Alopecia en la Lenguaren emanaldiak izango dira. Bi egunotako saioak 22:30ean hasiko dira eta sarrera hiru euro kostako da.

## Bergara izango da aurtengo toberako herri epaitua

Bagara elkarteak hirugarren tobera egingo du urte amaieran eta Bergara izango da aurtengo herri epaitua. Ohi bezala, abenduaren 28an egingo dute ekitaldia, Udal Pilotalekuan. Lantaldea dagoeneko martxan da eta datozen aste eta hilabeteotan herri antzerki satirikoa gorpuzten joango da.

## OHARRAK

**1944AN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE**

Azaroaren 9an izango da, Zumelagan, 14:00etan. Izen-ematea 943 76 21 86, 943 76 10 32 eta 943 76 23 70 zenbakietan.

**1947AN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE**

Azaroaren 9an egingo dute, Tartufon. Izena emateko 40 euro aurreratu behar dira Laboral Kutxan: 0991144632.

**1970EAN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE**

Azaroaren 23an egingo dute, Etxagin. Ariznoan batuko dira, 13:00etan. Izena Sugoi dendan eman behar da (943 76 59 54).

**1955EAN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE**

Azaroaren 23an egingo dute bazkaria Erreki jatetxean. 12:00etan dute hitzordua eta txartelak Errekin eros daitezke 12 eurotan.




Alebin mailako atezainen entrenamendua eguaztenean, Jesus Barberorekin. | AMAIA TXINTXURRETA

# Bete-betean hasi du ikasturtea Azkoagainek

## Aloña Mendiko, eskola kiroleko eta beteranoen partiduak han jokatuko dira

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Bete-betean hasi du ikasturtea Azkoagain futbol zelaiak. Asteburuetan jokatzen diren partiduez gain, herriko futbol taldeek hortxe egiten dituzte entrenamenduak. Eskola kiroleko partiduak ere hantxe izango dira eta beteranoek ere Azkoagainen jokatuko dituzte aurtengo txapelketako lehiak. "Araututako herriko futbol taldeak Azkoagainen ibiliko dira, bai; baita Eskola Kirola ere, oraingoz, behintzat. Ikasturtea horrelaxe hasi da", baieztatu du Oskar Carrascalek, Udaleko Kirol teknikariak.

Larrañako futbol zelaia ere erabilgarri dago eta eskola orduetatik kanpo edozein herritarrek edo taldek erabil dezake. Oraingoz, baina, futbolean jarduten duten herriko taldeek ez dute zelai hori erabiliko. Erabili gura duenak, baina, Zubikoa kiroldegian egin behar du eskaera.

**Aloña Mendiko 11 talde**

Aloña Mendik jakinarazi duenez, kirol elkarte horretako futbol saileko talde guztiak Azkoagainen entrenatzen dira. "Denboraldi -aurrean talderen batzuek, puntualki, erabili dute Larrañako zelaia, baina garai honetan, eta Larrañan argi artifizialik ez dagoela kontuan izanda, futbol zelai hori ezin dugu erabili", gehitu dute Aloña Mendiko futbol saileko kideek.

Ohorezko erregional mailatik alebin mailara bitartean, Aloña Mendiko 11 futbol taldek erabiltzen dute Azkoagain. 17:00etatik 21:30era bitartean egiten dituzte entrenamenduak.

**Beteranoetan, 16 talde**

Bestalde, asteburu honetan hasiko da herriko futbol taldeen txapelketa, beteranoen txapelketa, alegia. Asteon egin dute bilera eta bihar, zapatua, jokatuko dute lehen partidua; Paketinaikos eta Indar 85 taldeen arteko partiduak hasiko du haien denboraldi berria. Asteburu honetan zortzi taldek jokatuko dute eta hurrengoan, beste zortzik. Azkoagainen izango dira partiduak.

2013-2014 denboraldian 16 talde lehiatuko dira beteranoen txapelketan, iaz baino bi gutxiago. Baja eman duten taldeak dira: The Gibel Boys, Lozorromo eta Ankarteko. Deboraldi honetan lehiatuko den talde berria, berriz, Kili Kolo taldea da.

Eskola Kiroleko asteburuko partiduak ere bihar hasiko dira.

## Nobel saridunekin batera ikasle oñatiarrak

*Passion for Knowledge* jaialdian parte hartu dute Elkar Heziko lau ikaslek. Nobel saridunen eta DBHko ikasleen arteko topaketa horrek zientzia eta teknologia ikasketei begirako bokazioa sustatzea du helburu. Argazkian daude: Ana Novoa, Josune Odriozola, Ane Mondragon eta Irati Abaun.




ELKAR HEZI

# Pertsonen erreskate simulakroa egingo dute bihar Gesaltzan

**O.E.** | OÑATI

Erreskate baten simulakroa egingo dute bihar eta etzi Gesaltzako kobazuloan. Euskal Espeologoen Elkarteak antolatutako simulakroa izango da, eta Aloña Mendiko Espeleologia Taldea izango da laguntzailea; hark egingo ditu azpiegitura lanak. Hau da, AMETek prestatuko ditu lokalak, kobako putzuak instalatuko ditu, eta baita kobako ibilbideak balizatu ere.

**100 lagun**

Urtean behin antolatzen dute horrelako simulakro bat Euskal Herriko koba ezberdinetan, eta aurten, Oñatiko Gesaltzan egingo dute.

Guztira, 100 bat lagunek hartuko dute parte simulakro horretan. Parte hartuko duten taldeak dira: EEL Espeleologoak, Gurutze Gorriaren mendi unitatea, Gipuzkoako DYA, Bizkaiko suhiltzaileak, Toledoko suhiltzaileak, Ertzaintzaren brigada mugikorra eta beste herrialde batzuetako espeleologoak.

**Eteotik Gesaltzara**

Erreskate simulakroaren praktika bihar, zapatua, goizean hasiko da, 09:00etan. Eteo erainkinean jarriko dute kontrolgunea eta hantxe elkartuko dira sorosle guztiak. Handik kontrolatuko du simulakroa, horretarako erabiliko dituzten aparailuekin: talkieak, tedrak eta koba barruko telefono lineak. Horrela, Eteotik bertatik koba barruraino komunikazioa egongo da aginduak bidaltzeko. AMETek, bide batez, eskerrak eman gura dizkio Udalari instalazioa uztearren.



Aurretik egindako beste simulakro batean ateratako argazkia. | AMET

## 500 euro banatuko ditu Txandak urria bukatu arte

**O.E.** | OÑATI

Txanda elkarteak 500 euro zozkatuko ditu urrian bezeroen artean. Bost euroko 100 erosketa-txartel zozketatuko ditu edozein saltokitan egiten den hurrengo erosketan trukatzeko erosketa-txarteletan. Sari horiek erosketak Txanda txartelarekin egiten dituztenen artean banatuko dituzte, zoketarik gabe. Bezeroak saria edozein dendatan trukatu ahal izango du, txartelaren balio berbera edo handiagoa duen erosketa egiten duenean.

Saritua suertatzen den bezeroari, erosketaren bi txartel emango dizkiote. Horietako bat beste erosketa baten truke erabili ahal izango du eta bestea dendariarendako izango da. Urriaren 31ra arte iraungo du kanpainak.

## Emakume trikitilarien omenezko jaialdia

**O.E.** | OÑATI

"Emakumeek egin duten lan bikaina trikitia munduan eta baita trikitia indartzen egindako lanagatik", aurten emakume trikitilariak omenduko dituzte trikiti festan. Urriaren 26an da, Lizargarate Oñatiko Trikitizale Elkarteak egingo duten V. Trikiti Jaialdiaren barruan.

Hori kontuan izanda, emakumez osatutako zazpi talde ekarriko dituzte egun horretan Santa Ana aretora, baita oñatiarrak ere. Jaialdira joateko txartelak salgai daude Urbia eta Arrano tabernetan, 10 eurotan. Egun horretan, goizean, gainera, afaria egongo da gaztelekuan, eta afariko txartelak ere taberna bi horietan eskura daitezke 20 euroren truke.



Irailaren 22an egin zuen azken ekitaldia Martiñolak; erraldoien konpartsan, hain zuzen ere. | MARTIÑOLA

# Martiñolak erreleboa eskatu du, 25 urteren ostean

## Olentzeroren laguntzaile izan dira mende laurdenez, eta ohitura horrekin gazteek jarraitzea gurako lukete

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Txistularien taldeko bi lagun eta Oñatz dantza taldeko beste bat elkartu, eta herriko kultur ekitaldiak musikarekin laguntzen hasi ziren. Martiñolaren hasiera izan zen hura.

### Olentzero eta konpartsak

"Olentzerori lagun egiten hasi ginen, duela 25 urte. Joan den urtekoa izan zen azkena. Mende laurden honetan 25 karroza ezberdin egin ditugu. Ilusio handiz bizi izan dugu beti Olentzeroren laguntzaile izateko lan hori; umeen aurpegiak ikustea sekulakoa izaten zen. 25 urteren ondoren, baina, beste batzuen esku utzi gura izan dugu lan hori, gazteen esku. Laguntzeko prest izango gaituzte, baina gazteek jarraitzea izango litzateke ona", kontatu du Ruper Arkauzek. Udalak oraindik ez du erabaki nola antolatu Olentzeroren eta Erregeen laguntzaile lana, baina laster helduko dio gaiari.

Olentzerorekin bezala, erraldoien konpartsen laguntzaile ere urtetan izan dira Martiñolako kideak. "1995ean hasi ginen horretan, orduko San Migel jaietan. Harrezkero, beste herri bateko erraldoiak gonbidatu ditugu urtero. Aurtengo jaietan, esaterako, Bergarakoak. Horixe izan da azkena. Hori ere utzi dugu", zehaztu du Imanol Arkauzek.

Herriko kultur ekitaldietan parte hartzeaz gain, txalaparta eta dantza askeko ikastaroak ere antolatu zituzten, baita argazki zaharren erakusketa ere. Denborarekin, musika gailentzen joan zitzaien beste ekitaldiei, eta kide berriak gehitzen joan zitzaizkion hasierako hirukoteari.

### Kale zaharreko elkartean

Ruper, Mikel eta Imanol Arkauz gaita jotzen ikasten ere hasi ziren. Lizarrara joaten ziren, zapatuetan, gaita eskolak hartzera.

Handik gutxira, soinua jotzen zuten beste bi lagun hurbildu zitzaien. Baita gitarra eta biolina jotzen zuten beste batzuk ere, eta talde bihurtuta zeudela konturatu ziren. "Beste talde batzuen kantuak jotzen genituen; Oskorrirenak, esaterako. Gerora, Oñatiko kantu zaharrak berreskuratzen hasi ginen, eta baita geureak egiten ere. Kale Zaharreko sozietatean elkartzen ginen, eta esan daiteke hantxe sortu zela Martiñola taldea", du gogoan Ruper Arkauzek.

1997. urtean, diskoa grabatzeko aukera sortu zitzaien. "Gogoan dut uztaila zela eta Arrasateko Shot estudioan egin genituela grabazioak", kontatu du Imanol Arkauzek. 11 lagun ziren orduan taldean: Maria Lizarralde eta Nerea Markuleta (biolin-joleak), Idoia Elkorobarrutia eta Edurne Ugarte (soinu-joleak), Ander Moiua, Andoni Campos eta Arturo (gitarra-joleak), Alazne Elkorobarrutia (abeslaria), Imanol Arkauz (danbor-jolea), Rupez Arkauz eta Mikel Arkauz (gaitariak). Diskoaren aurretik, baina, beste proiektu bat izan zuen Martiñolak. "Euskal Eskola Publikoak Donostian egin zuen jaialdirako izan zen. Oñatiar bat, Mikel Plazaola, zebilen orduan antolatze lanetan, eta *Gure etorkizuna* izeneko kantua egin genuen festarako", gogoratzen du, ondo, Imanol Arkauzek.

### Urtean behin

Urte pare baten kontzertuak egin zituen Oñatin Martiñolak, baina, handik gutxira, kideak sakabanatzen hasi ziren. Oraindik, baina, urtean behin elkartzen dira, bazkaltzeko. Olentzeroren eta konpartsen laguntzaile izan dira oraintsu arte.

**Urtero karroza bat egin dute Olentzerorekin, 25 karroza ezberdin**

**1997an diskoa grabatu, eta Durangoko Azokan aurkeztu zuten**

# Domina asko ekarri dituzte karatekek Hondarribitik

Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu zuten domekan Hondarribian kadeteek, juniorrek eta 21 urte azpikoek. Aloña Mendiko karatekek oso emaitza onak lortu zituzten. Argazkian daude, dominekin: Kevin Martin, Ane Guridi, Naia Rodriguez, Oier Alberdi, Asier Natividad eta Lide Fernandez. Zorionak!



ALOÑA MENDI

# Erakusketa berriak ditu zabalik ARG! Festibalak

**O.E.** | OÑATI

Unibertsitatean, Eteo eraikinean eta Txandako erakusleihoetan zabaldu berri dituzten argazki erakusketekin, hamabostaldiko bigarren erdiari ekin dio Ilunpetan taldeak antolatu duen argazkigintzako ARG! Festibalak.

### Herriko txokoak

Argazkizaleen topaleku bihurtu dituzte, horrela, herriko txoko asko. Atzo, eguena, esaterako, Zaloa Fuentes abadiñarraren bilduma zabaldu zuten Eteo eraikinean. Sancti Spiritus Unibertsitatean, berriz, Ilunpetan taldeko Asier Egañaren eta Txarli Marquezen bilduma inauguratu zuten, Oñatiko Udal Artxiboko hainbat argazkirekin osatutakoa. Urriaren 27ra arte egongo dira ikusgai bi erakusketa horiek.

Bestalde, argazkiak jarri dituzte Txanda elkarteko denden erakusleihoetan. Euskal Herriko Argazkilarien Federakuntzak antolatzen duen *Argizaiola* lehiaketara aurkeztutako argazkiak dira horiek, hain zuzen ere, eta hilaren 27ra arte egongo dira ikusteko moduan.

Bihar eta etzi, bestalde, tailer monografikoa egingo dute Gorka Salmeronekin eta *Photbook Club Donostia* Gandiaga Topagunean. Zinekluba eta *Photo kafe* proiekzioak ere lotu dituzte.

# CC627 talde oñatiarrak Pakon joko du gaur, egubakoitza

Punk-rock musika egiten duen CC627 talde oñatiarrak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Oñatin. Pako tabernan izango da eta ezohiko orduan hasiko da emanaldia, 23:15ean. Taldekide batek urte osoa kanpoan egin du eta oholtza gainean izango dira denak gaurko kontzertuan. Hilaren 27an Los Galerna taldeak joko du toki berean.

# Oñatiko ur-bidea ikusteko irteera egingo dute domeka goizean

Ur-bidea ezagutzeko mendi irteera erraza egingo dute domeka goizean. San Martinetik abiatu eta Tokillorainoko errotak ikusiz, Urzulora joango dira handik. Antzubar arroan sartu eta Azkoagaingo iturrian bukatuko dute ibilaldia. 08:30ean Foruen plazan elkartuko dira. Ogitartekoa eramatea komeni da.



*Sexpearemente* antzezlana. | GORKA BRAVO

## 'Sexpearemente' antzezlana ikusgai gaur Santa Ana aretoan

IURE EIZAGIRRE | OÑATI

Seaxpeare antzerki taldeak *Sexpearemente* antzezlana eskainiko du gaur gauean Santa Ana antzokian. Emanaldia 22:30ean hasiko da eta sarrerak salgai daude dagoeneko *www.barra-barra.eu* webgunean. 10 euro balio dute sarrerek.

*Sexpearemente* lanak errealitatea eta fikzioa nahasten ditu, umorea eta parodia erabilita horretarako. Seaxpeare taldeak Hamleten eta Lorca poetaren burezurra nahastuz sortu nahi duen lan berri bat hartzen du abiapuntu antzezlanak. Baina hortik konpainiaren beraren fikziozko historia kontatzera jotzen du.

Santiago Molero eta Rulo Pardo aktoreek taularatzen dituzten egoerak errealak ez badira ere, antzerki taldeek egungo krisi egoeran bizirik irauteko egin behar duten borroka islatzen du *Sexpearemente*-k. Hain zuzen ere, duela 18 urte urte sortutako Seaxpeare taldea da eguneroko borroka horretan dabilenetako bat.

**Estreinaldia Donostian**

Ohikoa da Seaxpeare taldea inguruko antzokietan ikustea eta gaur Oñatin eskainiko duen lana, adibidez, Donostian estreinatu zuen martxoan, dFERIAn. Hurrengo emanaldiak ere, asteburuan, han izango dira.

# Ganbara Abesbatzak bigarren diskoa kaleratuko du abenduan

Aurreko asteburuan grabatu zuen diskoa parrokian eta Santa Ana antzokian

I.E. | OÑATI

Ganbara Abesbatzak ez du denbora alferrik galtzeko asmorik 20. urteurrenean, eta joan den asteburuan bigarren diskoa grabatu zuen. *Amaraun* izango du izena lanak eta abenduan kaleratuko dute.

Herriko parrokian eta Santa Ana antzokian grabatu zuten diskoa eta 26 ordu baino gehiago behar izan zituzten horretarako, eta, abesbatzatik adierazi dutenez, "ilusio, giro on eta musikaz betetako orduak" izan ziren.

Aitor Biain ibili zen zuzendari lanetan. Pianoan Eli Mendiaratz izan zen eta perkusioan, Gorka Otamendi.

"Lan gogorra izan bada ere, *Amaraun*-ek 20 urte hauetako oroitzapen desberdinen bizipenak jasoko ditu", ondorioztatu dute.

Bigarren diskoa du hau Ganbara Abesbatzak, lehenengoa beste urteurren biribil batean kaleratu zuen-eta: 10 urte bete zituenean. Orduan grabatu zuten *Sagatz* diskoa, lehen urte haietan abestutako kantuekin. Lan berrian ere, azken urteetan taldearendako garrantzitsuak izan diren kantuak batuko dituzte. Mota askotariko piezak grabatu dituzte, baina euskal folkloreari garrantzi berezia eman diote.



Ganbara Abesbatza, diskoaren grabazioan, parrokian. | GANBARA ABESBATZA

**DATUA**

**26**

ORDU

Asteburuan egindako grabaziorako 26 ordu baino gehiago behar izan zituzten Ganbara Abesbatzako kideek. Diskoa parrokian eta Santa Anan grabatu zuten.

**Bihar, Tolosan**

2013ko topaketa egingo dute bihar Tolosan, Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren barruan. Oñatiko Ganbara Abesbatza ere bertan izango da, Hondarribiko Xatz -Eskifaia Abesbatzarekin batera kantatzen. Junkal Guerrerok zuzenduko ditu kantu komunak. Emanaldia 20:00etan hasiko da, San Frantzisko elizan.





Azken etxebizitzak!!

Etxe tasatuak baino merkeago!!!

ORTUZAL PROMOCIONES S.L
943 76 11 18
943 79 40 00
619 71 82 78

ARETXABALETA
AUKERA EZIN HOBEA

ETXEBIZITZAK:
2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
Ganbara bikaina

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO
160.000€
(BEZa ez dago barne)



Saski-eskolaren une bat. | GOIENA

# Saskibaloia hobeto ezagutzeko, saski-eskola

Eskoriatza KE eta Arrasateko Ointxe! taldeak arduratuko dira eskolez

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL**

Saskibaloia ezagutu eta probatzeko aukera. Horixe eskainiko du saski-eskolak Ibarra kiroldegian 2013-2014 denboraldian. Eta nortzuek parte hartu ahal izango dute bertan? Hirugarren, laugarren eta bosgarren mailetako neska-mutilek; hau da, 7 eta 11 urte bitartekoek.

Hala, Aretxabaletako gaztetxoek kirol hori ezagut dezaten, beste bi herritako saskibaloi taldeen laguntza edukiko dute: batetik, Eskoriatza kirol elkartearena; eta bestetik, Ointxe! saskibaloi taldearena.

**Balioen transmisioa**

Josu Larreategi Ointxe! taldeko kidea da eta urteak daramatza saski-eskola gidatzen. "Asier Muxika Kirol teknikaria kirol elkarteekin kontaktuan ipini zen Debagoieneko saski-eskolaren metodologia bateratua izateko. Hala, Arrasateko eta Bergarako eskaintza bera emango dugu Aretxabaletan".

Saskibaloia baliatuz, balioak transmititu gura dituzte: talde lana, errespetua, diziplina, lehiakortasuna... Eta hori guztia egiteko, dibertsiorik ere ez da falta izango. "Ongi pasatzea funtsezkoa da eta jolasak, koordinazio ariketak, baloiarekin jokoak eta beste egingo ditugu".

**Probatzera animatu**

Saski-eskolan izena emateko aukera urte osoan egongo da. Eta azpimarratu gura izan dute neska-mutilek multikirolean izena emanda egon behar dutela. Azaro amaiera bitartean, gainera, doakoa izango da, eta, jarraitu gura izanez gero, "100 euroko kuota ordaindu beharko da denboraldi osorako".

Aretxabaletako Udalarekin egindako akordioak jasotzen duenez, Eskoriatzako kirol elkartea arduratuko da herriko nesken saski-eskolaz. Astelehen eta eguaztenetan elkartuko dira, 18:00etatik 19:00ak arte.

Arrasateko Ointxe! taldea izango da, ostera, Aretxabaletako mutilei saskibaloia gerturatzearen arduraduna. Eta, hain zuzen, haiek egubakoitzetan izango dute elkartzeko eguna, 18:00etatik 19:00etara.

Amaitzeko, bai nesken eta baita mutilen taldeen babesle ofiziala Mondragon Lingua izango dela eman dute aditzera saski -eskolako kideek.

### Mahai-futbola eta foruma asteburu honetan Gaztelekuan

Urria aurrera doa, eta Aretxabaletako Gaztelekuko egitaraua ere bai. Hala, gaur, egubakoitza, mahai-futbol txapelketa egingo dute. Biharko, aldiz, karting irteera antolatu dute eta zine-foruma, etziko; azken horretan, gainera, gazteek euren gustuko filma ikusiko dute. Datorren asteburuko ere pare bat ekintza prestatu dituzte. Hilaren 25ean eta 26an larrugintza tailerrean parte hartzeko aukera izango dute neska-mutilek eta hilaren 27an, ostera, mendi irteera egingo dutela eman dute aditzera. "Animatu eta gerturatu Gaztelekura!".

### Barriketan egitasmoan izena emateko dei egin du Loramendi elkarteak

Loramendik Barriketan izeneko egitasmoan izena ematera deitu ditu herritarrak. "Asmoa euskaraz berba egiteko ohitura dutenen eta euskaraz berba egiteko ohiturarik ez dutenen artean euskaraz hitz egitea da". Astean behin elkartzen dira, taldeetan, eta ordubetez euskaraz berba egiteko saioak izaten dira. Iaz zazpi talde elkartzen ziren Aretxabaletan, bost bat pertsona bakoitzean. "Urtean zehar ekintza ezberdinak antolatzen dira, herrian zein eskualdeko beste herri batzuetako taldeekin". Urrian zehar eman dezakete interesatuek izena, baita aurrerago ere, "baina lehenbailehen" egitea gomendatu dute. Egitasmoan parte hartzea doakoa da.

### Gastronomia eta folklore jaialdia domeka honetan

Domeka honetan zenbait kulturaren erakustaldia egingo dute Aretxabaletan. Izan ere, XVII. Gastronomia eta Folklore Jaialdia egingo dute Herriko Plazan, 10:00etan hasita. Herrialde askotariko gastronomiaz gozatu ahal izango da –Euskal Herria, Gaztela-Leon, Extremadura, Galizia eta Errioxa–. Baina janariaz gainera, Errioxako Agrupacion de Habaneras de Calahorrak, Galizia etxeko taldeak eta Gaztela eta Leongo San Fernandok emanaldiak eskainiko dituzte. Bestalde, etxeko patxaran lehiaketa egingo dute domekan bertan; 19. aldia izango da.

# Atletismoari buruzko erakusketa prestatzen

Abenduan Arkupen erakusketa egin gura dute eta materiala biltzeko laguntza eskatu dute

**Z.V.D.M.** | ARETXABALETA

Herritar talde batek atletismoa ardatz hartuta argazki erakusketa antolatu gura du abendurako. Eta horretarako, aretxabaletar guztien laguntza eskatu dute Arkupen hilabete osoan irekita egongo den erakusketa osatzeko.

Hori horrela, norbaitek kirol horrekin lotutako argazkiak edukiz gero Arkupeko harreran uzteko edo *hirigintza@aretxabaleta.net* helbidera bidaltzeko eskaera egin dute.

**Herriko atletak omendu**

Erakusketaren helburua zein den ere azaldu dute antolatzaileek: atletismoaren historia jaso gura dute, eta, era berean, herrian zeresana eman duten bizpahiru korrikalariren irudia nabarmentzea da euren nahia. Hori horrela, Fernando Aguilarrek, Joseba Larrinagak eta Ramon Jausorok tokia izango dute abenduan Arkupen.

Argazkiak uzteko eperik ez egon arren, "lehenbailehen" eskuratu gurako lituzkete.



ARIZMENDI IKASTOLA

## Bisita berezia Basabeazpin

Basabeazpiko neska-mutilek bisita berezia izan zuten astelehenean, urriaren 14an. Huhezira Jatorrizko Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua ateratzera etorritako kitxuak, nasak, maiak, nahualtak, katxikelak, movidak, kurduak eta amazigh ordezkariek ikastetxea bisitatu zuten eta neska-mutilekin hartu-emanean aritu ziren.



ODILO VAZQUEZ

## Dominak Hondarribitik

Urriaren 13an Hondarribian jokatu zen kadete, gazte eta 21 urte azpiko Gipuzkoako karate txapelketa eta UDA Karateko ordezkariak izan ziren bertan. Kadeteetan, Andoni Martin bigarren eta Oxel Vazquez lehenengoa izan ziren. 21 urte azpikoetan, ostera, Odei Vazquez kanporatu egin zuten eta Ekaitz Irusta bigarren geratu zen. Zorionak!

# Hilaren 28an hasiko dira hiri hondakinak gaika batzeko ontziak banatzen

Azaroaren 4an jarriko dute proba pilotua martxan herriko 601 etxebizitzatan


Herritar bat bilketa puntuak non egongo diren ikusten. | IBARRAUNDI MUSEOA

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzak gertu du, hiri hondakinen bueltan, herriko iparraldean martxan jarriko duen proba pilotua, eta martitzen iluntzean sistemaren aurkezpena egin zuten Ibarraundi museoan. Batzarrak ikusmin handia piztu zuen; aretoa lepo bete zen eta batzuek gelatik kanpo entzun behar izan zituzten azalpenak.

Maria Gonzalezek, informazio zerbitzuko kideak, eman zion hasiera batzarrari. Azaldu zuen proba pilotua Intxaurtxuetan, San Pedron eta Gaztañaduin egingo dela eta 601 etxebizitzari eragingo diela.

Horrekin batera, gogorarazi zuen sistema zehazterakoan kontuan izan dutela herritarren hainbat erabaki. Irailaren bukaeran, papera zelan jaso eta ontzi arinendako poltsen gainean galdetu zitzaien, baita bilketa puntuen kokapenari buruz ere. Auzo horietako atariek erantzundakoa hartu dute kontuan, eta erabaki horren berri eman zuen Gonzalezek atzoko bilkuran: "Papera eta kartoia, esaterako, banaka jasoko dira herritarren artean banatuko dugun ontzi urdinean". Ontzi arinei dagokienez, bakoitzak erabilera bakarreko plastikozko edozein poltsa erabiltzea eskatu dute eskoriatzarrek. Bestalde, bilketa puntuen behin-behineko kokapenarekin erakusketa jarri dute museoan.

### Desadostasuna

Parte-hartze prozesu horretan, dena dela, ez dute atari guztiek parte hartu; horren gainean, honakoa esan zuen Gonzalezek: "Denera, 52 atari ziren, eta horietatik seik ez dute erantzun". Sistemarekiko duten desadostasun hori ere agerian utzi gura izan zuten martitzeneko batzarrean, galderen txandan.

### Zintzilikarioak eta edukiontzia

Esan bezala, sistemak zelan funtzionatuko duen azaldu zuten: hainbat bilketa puntu egongo dira eta horietan zintzilikarioak eta hondakin organikoarendako edukiontziak jarriko dituzte; azken horiek komunitarioak izango dira, eta familia bakoitzari emango zaion giltza bidez zabalduko dira; egunero eta edozein ordutan atera ahal izango da organikoa. Paper, errefus eta ontzi arinendako ontziak, bestalde, zintzilikarioetan utziko dira. Azkenik, beira gaur egungo edukiontzietan uzten jarraituko dute eskoriatzarrek.

### Banaketa hiru egunetan

Funtzionamendua azaldu ostean, emango dituzten hurrengo pausoak ere azaldu zituzten. Urriaren 28an eta 29an, ontziak, edukiontzi marroiendako giltzak eta dokumentazioa banatuko dizkiete herritarrei eta urriaren 30ean, komertzioei. Proba azaroaren 4an jarriko dute martxan eta hiru hilabeteko iraupena izango du. Denbora horretan, jarraipen batzorde batek emaitzak aztertuko ditu, eta horien arabera erabakiko dute hobekuntza neurriak sartzea eta sistema herri osora zabaltzea edo bertan behera uztea. Batzarrean, eskoriatzarrak animatu zituzten batzorde horretan parte har dezaten.

Amaitu aurretik gogorarazi zuten informazio bulegoa dagoela zabalik Ibarraundin, honako ordutegian: astelehenetik eguenera, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; eta egubakoitzetan, goizez. Horrekin batera, honakoa esan zuen Gonzalezek: "Dena ondo joatea espero dugu, eta, hori horrela izan dadin, eskoriatzarrei dei egiten diegu proban ondo joka dezaten".

> **ESANAK**
>
> **"Eskoriatzarrei dei egiten diegu proban ondo joka dezaten"**
>
> MARIA GONZALEZ | INFORMATZAILEA

hemen bada giro!
ARETXABALETAKO TABERNA ETA JATETXEEN GIDA
hemen bada giro!

Gurea
TABERNA
Lotoak eta kinielak
WiFi GUNEA
Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64

IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
•
Kroasantegia
•
Gertatutako janariak
Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08

ORLY TABERNA
Orly aretxabaleta
Giro berria dastatu,
eta Orly aukeratu!
Herriko plaza 3 • ARETXABALETA

IZARTU
kafetegia

Iralabarri plaza ARETXABALETA

GIN-TONICA PRESTATZEN ESPEZIALISTAK
• 20 gin desberdin baino gehiago!
• Izotz sikuarekin, zapore ederra izan dezan bukaerara arte.
Etorri eta gozatu!

# EAJko alderdikideak omenduko dituzte domekan frontoian

Mendeurreneko ospakizunen barruko azken ekitaldia 12:00etan hasiko da

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eskoriatzako EAJ alderdia mendeurrenaren ospakizunen azken txanpan sartu da. Gaur arratsaldean, esaterako, Tor magoak umeendako ikuskizuna eskainiko du Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan hasita. Eta domekan, ostera, alderdikideei omenaldia egingo diete, 12:00etan hasita, frontoian.



Amaiur batailoia Orduñan (Bizkaia) 1936an. | ESKORIATZAKO EAJ

**50 alderdikideri omenaldia**

Mende bateko bidea egin du EAJk Eskoriatzan, eta, Aintzane Oiarbide batzarkideak aditzera eman duenez, abertzaletasun antolatuaren hasiera izan zen. "Eskoriatzarrek pentsatu dute denbora honetan guztian alderdian lanean aritu diren abertzale guztiei omenaldia egitea".

Hala, domekako ekitaldiaren helburu nagusia horixe izango da, EAJren alderdikideak eta alderdiaren inguruan aritu izan direnak omentzea. Aitor Urrutia zinegotzi jeltzaleak omenduak 50 lagun izango direla azaldu du.

Hala, eguerdian hasiko den ekitaldian hainbat testigantza entzun ahal izango dituzte bertaratzen direnek. "Gudari izandakoen ahotik zenbait istorio entzuteko aukera egongo da. Eta gerrako eta diktadurako uneei buruz gurasoei edo aitaita-amamei entzundakoak ere ezagutuko ditugu beste lagun batzuen ahotik". Domekan, gainera, oroigarri bana emango zaie omenduei.

Aitor Urrutiak ere hartuko du hitza domekan. "Labur-labur ehun urteko ibilbideaz egingo dut berba". Ekitaldiaren ostean, luncha egingo dute batzokian.

**Ospakizunak, bide onetik**

Domekako omenaldiak emango die amaiera ospakizunei. Urrutiak azaldu du orain arte antolatutako ekimenek izandako erantzuna ona izan dela. "Pozik gaude, eta mendeurreneko ospakizunak bide onetik doazela gaineratuko nuke".

Esate baterako, antolatu dituzten berbaldietara –Iñaki Goiagak eta Paco Etxebarriak egindakoak– bertaratutako ikus-entzuleen kopurua ona izan dela azaldu du Urrutiak.

Eta erakusketak ere jendearen interesa piztu duela gaineratu du. "Bitxikeria moduan, aste honetan bertan eskoriatzar batek etxean zeukan materiala ekarri digu".

Gaur, egubakoitza, izango da kultura etxeko erakusketa irekita egongo den azken eguna.

## Oihulari Klown 'Divinas' lanarekin dator

M.B. | ESKORIATZA

Antzerki zaleek hitzordua dute gaur, egubakoitza, Huhezi unibertsitatean. Oihulari Klown taldeak helduei zuzendutako *Divinas* izeneko antzezlana aurkeztuko du, 22:30ean. Ordu eta erdi inguru iraungo duen lana gazteleraz da, eta sarrera debalde da.

Ikus-entzuleak pertsona jainkotiar anonimoak laguntzeko taldearen asteroko batzarrean murgilduko dira. Jainkotiarrek besteak laguntzea dute helburu; kosta egiten zaie ezetzik ematea. Inork ez du esan bizitza samurra denik, baina betiko bizitzaren egunerokotasuna ez da errazagoa. Magdalena estresatuta dago, Ama Birjina errudun sentitzen da eta Jesu Kristok beldur dio konpromisoari.

Antzezlan honetan Virginia Imazek gidatutako taldeak jainkotiar horien gainean deliratuko du.

## Koldotxo elkartekoek perretxikoz beteko dute herria asteburuan

M.B. | ESKORIATZA

Urtero moduan, udazkenarekin batera, perretxiko jardunaldiak gertatu dituzte Luis Ezeizako Koldotxo Guraso Elkarteko kideek. Bihar, zapatua, hasiko dira ekintzak: 09:30ean plazan elkartuko dira inguruko mendietara joateko; perretxikoak ezagutzeko eta biltzeko asmoa dute. Egun berean, baina arratsaldean, perretxikoen sailkapena egingo dute. Aurten ere Errotari Elkarte Mikologikoaren laguntza izango dute. Goizean batutako perretxikoez gain, elkartekoek ekarritako beste perretxiko mota asko sailkatuko dituzte, 16:30ean, kultura etxean. Koldotxotik nabarmendu dute edozeini dagoela zabalik hori.

**Marrazketa txapelketa**

Etzi, domeka, ostera, sailkatutakoa ikusteko aukera izango dute eskoriatzarrek: 12:00etatik 14:00etara perretxiko erakusketa egongo da ikusgai, plazan. Horrez gain, umeendako marrazketa txapelketa egingo dute, perretxikoak gai moduan hartuta; eta asmakizun jokoa ere izango da, perretxikoak ezagutzen ikasteko. Jatekorik ere ez da falta izango, taloak eta pintxoak gertatuko dituzte-eta Koldotxo elkartekoek.

## Arizmendikoak Ezkurtxorekin jolasean ibiliko dira bihar Marinen

M.B. | ESKORIATZA

Irteera dute bihar, zapatua, Arizmendiko 2 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoek. Urtero elizate bat bisitatzen dute, urrian, eta aurten Marinera igoko dira. Betiko moduan, Ezkurtxo izango dute lagun.

Jose Arana eraikin aurrean egin dute hitzordua, 15:30ean, autobusez joateko. Marinera iristean, Isasi baserriraino joango dira eta gero, ibilaldia egingo dute trenbide zaharretik, eta tunela ere igaro beharko dute. Hori dela eta, Arizmendititik gomendatu dute linterna eroatea. Ibilaldia egitearekin batera, auzoan hainbat joko izango dituzte eskura, hala nola baloi errea eta tiragoma.

**Pilotan ere bai**

Horrez gain, Marinen pilotalekua dutenez, pilotan ere jokatu ahal izango dute umeek. Eta urtero moduan, ipuin kontaketarik ez da falta izango; elizan izango da hori. Jaialdiari amaiera emateko, txokolatea banatuko dute.

Elizateak ezagutzeko asmoz egiten dute urtero irteera Arizmendikoek. Dagoeneko bi bider bisitatu dituzte Eskoriatzako zazpi elizateak.

## Autobus zerbitzua hobetzeko batzarra dago martitzenean

Gipuzkoako Diputazioak herri arteko autobus zerbitzua hobetu gura du, eta, horretarako, herritarren iritzia eta ekarpenak jasoko ditu bileren bitartez. Gurean, martitzenean, urriak 22, izango da batzar hori, Ibarraundin, 18:30ean. Erabiltzaileei, ordutegi, geraleku eta ibilbideen gainean duten iritzia eskatuko diete bilera horretan.

## Gorka Azpitarte presoak gose greba amaitu du

Hamaika egunez gose greban egon eta gero, Gorka Azpitartek eta Frantziako Fleury Merogis espetxeko gainerako presoek akordioa lortu dute espetxeko zuzendaritzarekin. Bertan behera utzi dute DSP moduan izendatu duten "euskal presoen aurkako zigor gaineratua". Bi hilean behin ziegaz aldatzea zekarren zigor horrek.

## Lanerako orientazio zerbitzua jarri dute eskoriatzarren eskura

Debagoieneko Mankomunitateak enplegu orientazio zerbitzu ibiltaria jarri du martxan. Eskoriatzan martitzenean izango da orientatzailea, 09:30etik 13:30era, udaletxean. Aurrez hartu behar da txanda Gizarte Zerbitzuetara deituta (943 71 31 36) edo *beronika@eskoriatza.net* posta elektronikora mezu bat bidalita.



## Egun ederra pasatu zuten 1953. urteko kintoek

GOIENA

Urriaren 5ean, 1953ean jaiotako kintoak elkartu ziren. Egun osoa eman zuten batera: goizean Pasaia aldean ibili ziren eta Jaizkibelera igo ziren. Jarraian, Hondarribirantz abiatu ziren, han bazkaltzeko asmoz. Eguna borobiltzeko, Eskoriatzara bueltatzean, afaltzera joan ziren batera. Ederto pasatu zutela esan digute.

## OHARRAK

**ESKULANAK**

Tortolis ludotekan gatzarekin eskulanak egingo dituzte neska-mutikoek gaur arratsaldean.

**KARTINGERA IRTEERA**

Gaztelekuan ere hainbat ekintza egitea dute aurreikusita: bihar, karting irteera; eta etzi, mendira joatea.

**EPELE ARAZTEGIA**

Epele araztegira bisita gidatua dago bihar, zapatua. Hitzordu bikoitza gertatu dute: 10:30ean euskarazko bisita hasiko da eta 12:00etan, gaztelerazkoa. Antolakuntzak garraio publikoa erabiltzea edo bizikletaz joatea (haraino bidegorria dago-eta) gomendatzen du.

# Tomas Madinabeitiaren Kongoko lana gogora ekarriko dute bihar elizan

Bihar beteko da hura hil zeneko lehen urteurrena eta ekitaldi xume batez oroituko dute abade izandakoa

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Tomas Madinabeitia Antzuolan hainbat urtez abade egondakoaren heriotzaren lehen urteurrena beteko da bihar. Eta, hain zuzen, data zehatz hori aukeratu du Anelkar elkartasun taldeak Afrikan misiolari ibilitakoaren irudia gogora ekartzeko.

Hura hil berritan egin nahi izan zuten zerbait Anelkarko ordezkariek, baina, azkenean, urteurrena baliatuko dute hura gogoratzeko. Ekitaldi xumea antolatu dute biharko: hiru ordu laurden irautea aurreikusten duten bideo emanaldi, ipuin kontaketa eta abesti saioa.

Bideoak Madinabeitiaren bizitza erakusten du, eta, Anelkarko kide Jabi Etxanizek adierazi duenez, "hiru zati ditu: familia eta Mendiola, Antzuolan pasatako denbora eta Kongoko esperientzia. Gainera, Antzuolako zein kanpoko jendea agertzen da abade izandakoaz hizketan".

Ipuina Belen Azkarate ipuin kontalariak eskainiko du. Une berezia izango da, Azkaratek harreman zuzena zuen-eta Madinabeitiarekin.

Biharko ekitaldia amaitzeko, haurrek zenbait abesti kantatuko dituzte, batzuk euskaraz eta beste batzuk afrikarrez.


Madinabeitia, Kapiriko herritarrei ura bideratzeko proiektua aurkezten. | ANELKAR

### Kongorekin lotura

Tomas Madinabeitia Eskoriatzan jaio zen, Mendiola auzoan. Antzuolan apaiz lanetan aritu zen 1976. eta 1981. urteen artean. Hemendik Kongora joan zen misiolari, Iñaki Larrea apaiz donostiarrarekin batera.

Etxanizen esanetan, "Kongok ukituta utzi zuen eta hona itzuli zenean, harremana mantendu zuen hango jendearekin". Besteak beste, Algortako Alfonso Sainz de Bilbaok Kansensyako Kapiri herrira ura bideratzeko hasitako proiektua amaitu zuen. Hainbat antzuolar ere sartu ziren egitasmo horretan: Andres eta Bittor Arbulu anaiak, adibidez. Urteetako lanaren ondoren, 2007an eman zuten amaitutzat ura bideratzeko proiektua: zazpi tokitan jarri zituzten iturriak eta 10.000 litro ur gordetzeko bi edukiontzi ere egokitu zituzten.

Madinabeitiak haurren eskolaratzea bideratzeko Kansensyan jarritako eskoletan lagundu zuen azken urteetan, Estatuak eskola horien ardura bere gain hartu bitartean. Antzuolako Anelkar taldearen babesa izan zuen zeregin horretan. 2011. urtean bidaiatu zuen azkeneko aldiz Kongora eta iaz ere joatekoa zen, baina medikuak ez zion baimenik eman.

Madinabeitiaren ospea kontuan hartuta, herriko, Eskoriatzako eta Getxoko jendea espero dute bihar antolatzaileek.



PILAR ETXANIZ

## Antzuolarrek ere ezezkoa eman diote LOMCE legeari

Antzuolako eskolako guraso, irakasle, ikasle eta ikasle ohiek hartu zuten parte zapatuan Bilbon *LOMCEri ez, Euskal Herrian geure eskola* lelopean egindako manifestazioan. Bi solairuko autobusa txiki geratu zitzaien eta autoetan ere joan ziren. Adierazi zutenez, "Antzuolako eskolan ez dute atzerapausorik nahi".

### Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek ipuin saioa eskainiko du gaur arratsaldean San Joxepen

Oihulari Klown antzerki taldeko kide Virginia Imazek ipuin kontaketa egingo du gaur, 17:00etan, San Joxepe erretiratuen egoitzan. *Semillas* ipuin sorta eskainiko du, haziei buruzko kontakizunez osatua. Landatxope Elkarteak urrirako antolatutako ekitaldien barruan dago gaurko ipuin kontaketa; bihar, Bergarako Mizpirualde egoitza bisitatuko dute.

### Laskurain Psikomotrizitate Zentroko helduendako babes taldearen hileroko saioa gaur egingo dute

Gaur egingo dute Laskurain Psikomotrizitate Zentroan helduendako taldearen urriko saioa. Hilean behin egiten dute norberarendako denbora eta espazioa hartzea helburu duen tailerra. Psikomotrizitatea lantzen dute saioetan: arnasketa eta erlaxazioa, gorputz mugimendua, emozioen erabilera, sormena, masajea, gorputz adierazpena, norberaren erritmoa eta estresa.

### Eskola Mendizaletasuneko Finalistaren Egunean parte hartuko dute hogeina haur eta gurasok

Domekan egingo dute Eskola Mendizaletasuneko Finalistaren Eguna. Aurten Donostian izango da eta herriko 19 haurrek eta 20 gurasok parte hartzeko asmoa dute. Mendi ibilaldia 09:00etan hasiko da eta antzuolarrak 08:00etan irtengo dira herriko autobus geltokitik. Ibilaldia 5,5 kilometrokoa izango da eta amaieran opariak zozkatu eta sariak banatuko dituzte.

### Astelehenean eman behar da izena Arrolak hilaren 27rako Bardeetara antolatu duen irteerarako

Arrola mendi taldeak Bardeetara irteera egin zuen duela zortzi urte, eta, esperientzia errepikatu eta leku berriak ezagutzeko, beste bat antolatu du urriaren 27rako. Astelehenean izango da izen-ematea, 19:00etatik 20:00etara, taldearen egoitzan. Posta elektronikoz ere egin daiteke: *arrolamt@gmail.com*. Ikasleek eta langabeek 12 euro ordaindu behar dituzte; besteek, 15 euro.

## Gerra eta diktadura emakumeen ikuspegitik

Asteburuan helduko da herrira 'Debagoieneko emakumeak Gerra Zibilean eta frankismoan'

I.E. | ANTZUOLA

Asteburu honetan bailarako historiaren beste ikuspegi bat ezagutzeko aukera izango da herrian, bihar helduko da-eta *Debagoieneko emakumeak Gerra Zibilean eta frankismoan* argazki erakusketa. Asteburu osoan egongo da zabalik erakusketa, 18:30etik 20:30era, Olaranen.

36ko gerran eta ondorengo diktadura frankistaren garaian emakumeek bizi izan zuten errealitatea ezagutzera emateko asmoz antolatu du erakusketa Arrasateko Ekin Emakumeak elkarteak. Irudien bitartez, garaiko emakumeen bizipenak berreskuratu eta ezagutzera eman nahi izan dituzte, elkarteko ordezkariek uste baitute gerrako bizipenak ez zirela berdinak izan emakumeendako eta gizonendako.

Bestalde, bailaran gertatutakoa eraiki eta biktimei aurpegiak jartzeko ahalegina egin dute erakusketarekin, euren senideei elkartasuna adierazi eta ondorengo belaunaldiei jazotakoa erakutsita.

### Lantaldea

Ekin Emakumeek Aldundiko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin antolatu dute erakusketa. Adin askotariko jendearekin osatutako lantalde bat arduratu da argazkiak sailkatu, aukeratu eta erakusketa osatzeaz.

Martxoaren 8an inauguratu zuten eta bailarako hainbat herritan egon da erakusketa.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



Azoka izaten da eguneko izarra. Irudian, ganadu feria iaz Nardeaga kalean; eguraldiak ez zuen batere lagundu. | ARTXIBOA

# Dena dago gertu herriko erretiratuen omenezko jairako

Urriaren 26an egingo da; aurten ez da artzain-txakur txapelketarik egongo

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Aurten ere ez du hutsik egingo herriko erretiratuendako jaiak. Urriaren 26an egingo dute aurten eta egitaraua urterokoa izango da: herriko trikitilari eta txistularien kalejira (10:30), urtean zehar hildako erretiratuen aldeko meza San Martin elizan (12:00), mezaren ostean Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzen saioak, herriko dantzarien emanaldia (13:00) eta bazkaria kiroldegian (14:30). Gaur zehaztuko dute bazkarira joango direnen kopurua, baina antolatzaileek ez dute aldaketa handirik espero. Beraz, 130 bat lagun elkartzea espero dute. Udalaz aparte, herri osoa inplikatzen da erretiratuendako jaian: elkarte gastronomikoak –salda eta ogitarteko txikia doan ematen diete erretiratuei–, Lagunartea dantza taldea, Trikitixa Eskola, Papargorri eta Bizente Goikoetxea abesbatzak eta herriko txistulariak. Arabako Diputazioak, Laboral Kutxak eta Kutxabankek ere babesten dute.

**DATUA**

**46**

POSTU EGONGO DIRA

Bertako 21 postu eta kanpoko 25 egongo dira, ganaduarekin batera.

**Azoka, eguneko izarra**

Azoka izaten da eguneko izarra. Baserriko produktuak, artisau lanak eta animaliak egongo dira aurten ere. Askotariko produktuekin 46 postu egongo dira: bertako 21 eta kanpoko 25. Era berean, 16 baserritako ganadua egongo da azokan. Aurten ere Nardeaga kalean jarriko dute, goizeko lehen ordutik 14:30ak arte.

Bestalde, nobedade nagusiak dira artzain-txakur txapelketarik ez dela egingo eta Bizente Goikoetxea plazan biomasarekin lotutako postuak jarriko dituztela. Biomasarekin lan egiten duten Vernicam eta Kapelbi enpresak bertan egongo direla konfirmatu dute. Gaiaz informatzeko aukera egongo da.

# Bertso eskolak eman dio hasiera ikasturte berriari

"Gogotsu" ekin diote: "Herriari gehiago eman gura diogu, urtaro bakoitzean zerbait, gutxienez"

**J.B.** | ARAMAIO

Aramaioko bertso eskolak hasi du ikasturte berria. "Gogotsu" ekin diote, Xabi Igoa eskolako kideak esan digunez: "Aurten helburu bat finkatu dugu: herriari iaz baino gehiago ematea. Urtaro bakoitzean herriarendako ekintzaren bat antolatu gura dugu, gutxienez". Aurten hiru taldek osatzen dute bertso eskola: 10 eta 12 urte arteko haurrak, 14 eta 16 urte arteko gaztetxoak eta 18 urte baino gehiagoko helduak. Azken talde hori herriko bertsolariek osatzen dute; egun, zortzi dira. Gainerako bi taldeetan hamar bat lagun daude.



Bertso eskolakoen ikasturte hasierako afaria, Marixekan. | XABI IGOA

**Udaberrirako "sorpresa" bat**

Udazkenerako eta negurako ekintza bat edo beste lotuta dute dagoeneko. Azaroaren 22an, adibidez, Aitzol Barandiaran, Iñaki Gurrutxaga eta Julen Goikoetxea etorriko dira Sastiñara, *Bi bala* proiektua aurkeztera (22:30). Gabonetan urtero egiten den bertso saioa abenduaren 27an izango da. Era berean, Igoak aurreratu duenez, bertso eskolakoek Santa Agedako batzean parte hartuko dute aurten ere. Gainera, udaberrirako "sorpresa" bat lortu guran dabiltzala aurreratu digu: "Ea lortzen dugun".

# Aitor Villareal, Lagunartean dantza taldeko irakasle berria

**J.B.** | ARAMAIO

Lagunartean dantza taldeak duela bi aste ekin zion ikasturte berriari. Azken urte luzeetan Adela Elexalde eta Ainara Inuntziaga aritu dira irakasle lanetan eta iaz lan hori beste batengan uztea erabaki zuten. Bada, ordezkoa aurkitu dute dagoeneko: Gasteizen bizi den Aitor Villareal arrasatearra arituko da irakasle lanetan.

Villarealek 25 bat urte daramatza dantza eskolak ematen eta Aramaion adin askotariko 65 bat ikasle izango ditu aurten. Eguen eta egubakoitzetan elkartzen dira San Martin eskolako gimnasioan, 16:00etan. Adelaren bitartez heldu da Villareal Lagunartean taldeko irakasle izatera: "Aspaldi ezagutzen dugu elkar".

## ARETO FUTBOLA

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Real Beni | 1 | 3 |
| 2 | Bar Pura Vida | 1 | 3 |
| 3 | Bar Flor de Lara | 1 | 3 |
| 4 | Electricidad Jolma | 1 | 3 |
| 5 | Cafeteria Manai | 1 | 3 |
| 6 | Altrans | 0 | 0 |
| 7 | Numero K | 1 | 0 |
| 8 | Aramaixo | 1 | 0 |
| 9 | Colegio San Prudencio Bat | 1 | 0 |
| 10 | La Trattoria Da Luigi | 1 | 0 |
| 11 | Galtxagorri-Gasteiz | 1 | 0 |

**HILAK 19, ZAPATUA**

**16:45** Electricidad Jolma - Aramaixo

**Denboraldiko lehen garaipenaren bila**

Joan den asteburuko atsedenaldiaren ostean, denboraldiko lehen garaipena lortzen saiatuko dira aramaioarrak bihar Gasteizen, Hegoalde kantxan. Oraingoz, partidu bakarra jokatu dute Euskal Ligan eta 5-7 galdu zuten.

## Espainiako banderaz eta Adif-en erreklamazioez berba egiteko batzarra

Herri batzarra deitu du Udalak hilaren 21erako, Sastiñan (18:00). Aztergaiak izango dira Espainiako banderaren auzia –udalbatza behartuta dago bandera jartzera eta herritarrekin berba egin gura dute nola aurre egin erabakitzeko– eta Adif-ek A-2620 errepidea moztuta egon izanagatik herritarrek aurkeztutako erreklamazioei emandako erantzuna.

## Hitzaldi sorta datorren astean Sastiñan, Alaiak elkarteari esker

Hilaren 21ean eta 22an medikuntzaren eta automedikuntzaren gainean egingo du berba Marisa Bouzas medikuak eta hilaren 23an eta 24an, berriz, saltokietatik kanpo egiten diren salmentak eta mirari-produktuak izango ditu hizpide Jon Ariño medikuak. Bi saioak Sastiñan izango dira, 16:30ean.

## Murugaingo indusketa proiektua, beste udal batzuen laguntza bila

Murugaingo indusketa proiektuarekin aurrera jarraitzeko, Ondare Babesa arkeologo taldekoak beste udal batzuen babes bila ari dira: "Oraindik bilerak egiten ari gara ea udal gehiagoren inplikazioa lortzen dugun". Murugainek gehiago eman dezakeenaren adierazle, 36ko gerrako lubakien errekreazioak egin dituzte.



Murugaingo lubakien errekreazioa. | ETOR TELLERIA

ELGETA

# Mantenu lanek izango dute lehentasuna aurrekontu berrian

Alkateak 2014ko aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu zuen eguaztenean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Sei lagun elkartu ziren eguaztenean, 2014ko aurrekontuaren inguruan Udalak antolatutako batzar irekian; bi zinegotziak ziren eta bat udal langilea. Herritar gutxi bertaratu arren, Oxel Erostarbe alkateak Udalaren egoera ekonomikoaren inguruko informazio ugari eman zuen. Jakinarazi zuen baita ere herritarrek egindako eskaera gehienak jaso dituela Udalak 2014ko aurrekontuaren zirriborroan.



Oxel Erostarbe, eguaztenean, aurrekontuaren zirriborroa aurkezten. | L.Z.

**Zorra 926.071 euro**

Erostarbek jakinarazi zuen Elgetako Udalak 926.071,28 euroko zorra duela. "2014an Udalak 160.000 euro amortizatu beharko ditu, bai mailegutan, bai 2011ko Foru Funtsera 19.000 euroko itzulketa egiteko", adierazi zuen.

Hain zuzen ere, 2014ko aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu zuen eguaztenean Erostarbek, eta diru-sarrerak mantentzea aurreikusten du Udalak. Hala, 1.600.000 euro inguruko aurrekontua iragarri zuen. Kontuan izanda 2013an 200.000 euro inguru amortizatu dituela Udalak, inbertsioetarako tarte handiagoa emango du aurrekontu berriak.

**Inbertsioen atala**

Gastu eta transferentzia korronteak, gizarte-ongizatea, Kirol eta Hezkuntza zerbitzuak... "Lehentasunezko zerbitzuak eta gastuak mantenduz, inbertsioetarako aurrekontuaren %10 geldituko litzateke; hau da, 160.000 bat euro". Inbertsio horien, Intxortako ibilbide tematikoak eta errekreazioak 25.500 euroko diru-lerroa izango dute, argiteria berritzeko 20.000 euro, irisgarritasuna lanetarako 20.000 euro, baserri-guneen mantenurako 19.680 euro, hilerriko horma bat konpontzeko 15.000 euro, erdigunean autoen abiadura murrizteko neurrietarako 10.000 euro, auzo-konpostoko gune berrietarako 9.000 euro, herriko kaleen mantenurako 7.500 euro, bizikleta-gunerako 6.800 euro, hiri-altzariak berritzeko 4.000 euro, usoak kentzeko neurrietarako 3.000 euro eta eskolan hesi bat ipintzeko 1.000 euro. Udal ordezkariak asteotan ari dira aurrekontua lantzen. Datorren astean, 2014ko tasak eta ordenantza fiskalak onartuko dituzte.

## Hondakinen kudeaketaren gaineko batzarra

L.Z. | ELGETA

Herritarrak hondakinekin dagoen arazoaz jabetzeko batzar irekia antolatu dute elkarlanean Elgetako Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak. Eguenean, hilak 23, egingo dute, 19:00etan, udaletxean. Elgetarrok sortzen dugun zaborrarekin zer egiten den azalduko dute *Zer egiten da gure herriko hondakinekin* izenburupeko batzarrean. Saioa hondakinen gaiaren inguruan Udaleko talde guztiek adostutako ekintza planaren neurrietako bat da.

## Perretxikoen bueltan pintxoak, irteera eta erakusketa asteburuan

L.Z. | ELGETA

Aurten ere perretxikoak izango dira protagonista urrian. Turismo sailetik Elgetako II. Jardunaldi Mikologikoak antolatu dituzte eta aste bukaera honetan egingo dira.

Herriko tabernariek, esaterako, eskaintza gastronomiko berezia egingo dute gaur, bihar eta etzi, eta perretxiko pintxoak izango dira eskaintza horren ardatza. Euro bateko prezioan eskainiko dituzte pintxo horiek gaur eta bihar 19:00etatik aurrera, eta domekan, eguerditik aurrera. Nork bere pintxoa egingo du baina perretxikoetan oinarrituta.

**Irteera eta erakusketa**

Aurreko urteetan ez bezala, Turismo Sailak irteera antolatu du *Perretxiko bila* izenburupean. Bihar, zapatua, egingo dute, eta, familiendako bereziki antolatua izanik, adin guztietako neskamutikoak animatu dituzte parte hartzera, baita haien gurasoak ere. Karabieta aldera egingo dute pare bat orduko txangoa, herriko plazatik 16:00etan abiatuta. Gero, batutako perretxikoak sailkatuko dituzte udaletxean.

Perretxiko erakusketa ere egongo da jardunaldi mikologikoetan. Domeka eguerdian egingo dute, herriko plazan.

NIRE USTEZ

DAVID PEÑALVER



## Musikaren garai berriak

Ezagutzen nauzuenok sobera dakizue musika zainetan daramadala. Kronika txiki hau idazten dut gehienbat urte hauetan guztietan musikaren munduak jasan duen aldaketaz hitz egiteko. Agian gaur egungo krisi ekonomikoak, alkoholemia kontrolek, garai berri batzuetan bizi garelako, edo ez dakit zerk bultzatuta, baina talde "txikien" —niretako handienak— egoera ez da batere ona ikusleriaren aldetik.

Duela bi urtera arte Elgetako gaztetxera ehun lagunetik gora erraz ekartzen genituen antolatutako kontzertua edozein zela ere. Azken bi urtetik hona, aldiz, oso zail bihurtu da jende kopuru hori lortzea. Hori bost euroko sarrera xumea ipinita. Eta noski, azkenean, kontuak ez dira irteten; ekipoa, taldeak, afaria, kartelak... Aldiz, indarra hartu dute makro-kontzertuek. Izen bat asmatu, atzetik *rock* hitza ipini, eta 5.000 lagun elkartzen dira 30 euroko sarrera ordainduta. Taldeek, gehienetan, ez dute diru sarrerarik izaten, baina promoa lortzen dute. Kronikatxo honekin ez dut nahi jendearen ikuspunturik ez gusturik aldatu. Berdin zait bakoitzak zer egiten duen bere diru eta gogoekin, baina jakin makro -kontzertuetako talde horiek egun batean zuen herrietako gaztetxeetan ibili zirela, eta jendea ikustera joaten zelako irten zirela.

Beraz, animatu eta babestu zuen herrietako gaztetxe eta taberna rockeroak.

**"Jakin jendea ikustera joaten zelako irten zirela"**

### Arotz eta margo lanak egiteko bost hilabeterako lanpostu deialdia egin du Elgetako Udalak

Azaroaren 15ean lanean hasteko lan eskaintza da. Interesatuek udaletxean aurkeztu behar dute dokumentazioa azaroaren 4a baino lehen. Udalak ezarri dituen baldintzak dira: 18 urtetik gorakoa izatea, langabezian egotea eta Elgetakoa izatea. 1.641 euroko soldata gordina eskaintzen dute. Aukeraketa egiteko hainbat ezaugarri hartuko dituzte kontuan: langabezia denbora, dirulaguntza jasotzaile ez izatea, prestakuntza, adina, generoa eta eskatzailearen ardurapean dauden pertsona kopurua.

OHARRAK

**KONTZERTUA ESPALOIAN**

Bihar, zapatua, Smooth Beans eta Kaleko Urdangak taldeen emanaldia izango da Espaloian, 22:00etan. Jarraian, Naken, Sir Gorka eta Rudy DJekin luzatuko dute gaua.

**PODOLOGOA**

Erretiratuek hilaren 24an, eguenean, izango dute urriko podologia kontsulta. Ezinbestekoa da txanda hartzea. Interesatuek 943 76 80 77 telefono zenbakira deitu behar dute.

**PILOTA TXAPELKETA**

Aste bukaerarako herri mailako eskuz binakako txapelketako zortzi norgehiagoka daude iragarrita. Barikuan bost jokatuko dituzte, 19:30ean hasita. Domekan, berriz, hiru partidu izango dira, 11:00etan hasita.

**BIODANTZA SAIO IREKIA**

Biodantza taldea osatu dute Elgetan. Interesatu gehiago balego, saioak eskolako psikomotrizitate gelan egiten dituzte eguenetan, 17:00etan.

LEINTZ GATZAGA

# 25 uso postu adjudikatu dituzte hiru saiakeratan

Zenbakiak esku artean, beraz, adjudikatzeko zeuden 45 postuetatik 25 eman dituzte

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Hiru saiakera egin ostean, uso postuak dira Leintz Gatzagako Udalak adjudikatu dituenak udalerriko ehiza barrutitik. Adjudikatzeko zituen 45etik 25, hain zuzen. Izan ere, gainontzekoak esleitu barik geratu dira, eta horrela utziko dituzte.

Eta egoera berean geratu dira oilagorra ehizatzeko txartelak (zortzi atera zituzten lehiaketara) eta ehiza larria (hogei basurde eta eta hogei orkatz ehizatzeko baimena). Bada, bi kasu horietan, eskaera bat bera ere ez zaio iritsi Udalari; horrenbestez, horiek ere aurten ez dituzte adjudikatuko.

**Oraingo honetan, 11 gehiago**

Leintz Gatzagako Udalak joan den egubakoitzean egin zuen uso postuak adjudikatzeko azkeneko saiakera, prozedura negoziatua erabilita, kasu horretan. Ordura arte hamalau uso postu zituzten adjudikatuta, eta egubakoitzean beste 11 adjudikatu zituzten.

**Osoko bilkura egin behar**

Hain zuzen ere, azkeneko 11 adjudikaziodun horiek oraingo astean aurkeztu beharko dituzte, udaletxean, bete beharreko guztiak. Eta horren arabera, oraingo astearen ondoren eramango dute gaia osoko bilkurara, behin-behineko adjudikazioek behin betiko onespena jaso dezaten, legeak agintzen duena aintzat hartuta. Osoko bilkura horren data, beraz, laster ezarri eta jakinaraziko dute.

**Uso-denboraldia**

Edozelan ere, ezarrita badagoen data usoak ehizatzekoa da. Bestela esanda, uso-denboraldia hasita dago, eta abenduan bukatuko da. Beraz, Leintz Gatzagako Udalaren baimena lortu bezain laster hasi ahal dira ehiztariak usoak ehizatzen. Are gehiago, lehenagotik baimena lortuta dutenak dagoeneko hasita daude jardun horretan.


Iazko lasterketaren irteera unea, Ferixalekuan. | GOIENA.

ATLETISMOA

# Arrasateko kaleak, Tafyd Krosak noiz girotuko zain

## Gaur iluntzekoa (20:00) bosgarren edizioa izango da

**XABIER URZELAI** | ARRASATE
Arizmendik antolatuta egingo dute gaur iluntzean, bosgarren urtez, Gaueko Tafyd Krosa, eta antolatzaileek irteera puntuan 100 lagun inguru batzea espero dute: "Ez pentsa askoz ere gehiago hartzea komeni denik, ibilbidea Arrasateko kaleetan delako, jendea kalean dabilenean, eta antolaketa aldetik horrek hainbat buruhauste sortzen ditu", adierazi zuen Xabi Arriolak Harmailatik saioan. Lan horrek, baina, ordain oso ona du, lasterketa gutxi daudelako atletek gaur besteko babesa jasoko dutenak.

Distantzia aldetik ez da lasterketa batere gogorra, (5,7km) baina egia da aurrealdean ibiliko direnek oso erritmo gogorrean egiten duten proba dela. Horregatik, David Berezibarrek azpimarratu zuen aurrekoek ez daukatela zertan proba baldintzatu: "Aurrekoen erritmoak kutsatzeak normala da; horregatik animatu nahi dugu jendea lasterketan parte hartzera, eta bakoitzak bere erritmoan korrika egitea".

### Opari mordoa

Tafyd-eko lagunek oso garbi dute lasterketa herrikoia dela bultzatu nahi dutena, eta horregatik sariak dirutan emateaz batera beste sari mordoa zozketatuko dituzte: "Asmoa da lasterketara datozenen artean produktu mordoa banatzea, sariak ez daitezela azkarrenendako bakarrik izan". Hala, Arrasateko komertzioen laguntzaz batutako sari multzoa –eta ez dira gutxi– lasterketaren amaieran zozketatuko dute, Ferixalekuan bertan.

### Izen-ematea, gaur bertan

Nahiz eta izena aurrez emateko aukera egon den, azken orduan dabilenak ere aukera izango du gaur gaueko kroseko irteera puntuan egoteko (20:00, Ferixalekua). Horretarako, baina, lasterketa hasi baino lehenago gerturatu beharko du irteera puntura, antolatzaileak han egongo dira-eta izenak hartzen.

### Antxintxika Krosa aurkeztu dute

Azaroaren 2an egingo dute Antxintxika Krosa, eta antolatzaileek eguaztenean egin zuten lasterketaren aurkezpena. Aipatutako kontuen artean, azpimarratu zuten aurtengoan kirol egokituari bultzada eman nahi izan diotela, eta baita, lasterketaren kalitatea hobetzeko ahalegin berezia egiten dabiltzala (izenematea egiteko sartu: *kirolprobak.com* webgunean).

Proban bost modalitate izango dira: krosa, *handbike*-a, gurpildun aulkiena, patinena eta kirol egokitukoa. Ibilbidean ez da aldaketarik izan, eta autobusak egongo dira korrikalariendako, urtero moduan. Handbike eta gurpildun aulkikoak 16:30ean irtengo dira, eta tartekatuta irtengo dira besteak, 17:00etan korrikalariak irtengo diren arte. Eta, plazan pantalla erraldoia jarriko dute iazko irudiak erakutsiz.


Antolatzaile eta babesleak, aurkezpenean. | IRATI GOITIA


Aitor Mendizabal. | GOIENA

PILOTA

# Mendizabalek Ezkurdia izango du lehen kanporaketan

**X.U.** | ARRASATE
Martitzenean Karlos Argiñanoren jatetxea Lau t'erdiko Txapelketako zozketaren lekuko izan zen. Zozketa horretan egon zen ibarreko pilotari baten izena, Aitor Mendizabalena, Antzuolakoak hor egoteko eskubidea kantxan irabazi duelako.

Zozketako emaitzen arabera, domekan jokatuko du Mendizabal III.ak, eta Ezkurdia izango du ostera ere aurrean, izan ere, Bergarako kanporaketan Ezkurdia mendean hartu bazuen ere, txapelketarako errekuperatu dute. Partidua, berriz, Astelena pilotalekuan izango da.

### Hamasei pilotari

Bestalde, hauek dira bi enpresen partetik txapelketan egongo direnak: Aspe enpresatik: Martinez de Irujo, Barriola, Xala, Retegi II.a, Titin III.a, Jaunarena, Mendizabal III.a eta Ezkurdia. Eta Asegarcetik: Olaizola II.a, Idoate, Arretxe II.a, Bengoetxea VI.a, Saralegi, Olaetxea, Urrutikotxea eta Elezkano II.a.

Balmasedan hasiko dute torneoa, gaur bertan, Urrutikoetxeak eta Saralegik.

CROS-COUNTRYA

# Xabi Abasolo eta Gorka Guridi podiumaren lehen koskan

## Arrasatekoak Gaztela eta Leongo lasterketa irabazi du eta Oñatikoak, Euskadiko Txapelketa

**X.U.** | ARRASATE
Espainiako Cros Country Txapelketa irabazteko borrokan jarraitzen du Xabi Abasolo arrasatearrak, eta, joan den astean Gaztela eta Leongo lasterketa irabazi ostean, beste aurrerapauso bat egin du. Ez zen garaipen erraza izan, pilotuek nahiko egoera eskasean zegoen zirkuitua izan zutelako, harriz beteta.

Denboraldi amaiera estua du Bedoñakoak, atseden hartzeko asti barik Galiziara joango da-eta asteburuan, txapelketako azken hirugarren proban parte hartzera. Domekan izango dute lasterketa. Hala, geratzen zaizkion hiru lasterketa horietan lehenengo postura salto egiteko asmoz lehiatuko da Abasolo.

### Gorka Guridi, juniorretan

Bedoñakoa ez da, baina, gurean Cros Countryan ondo lehiatzen dabilen ordezkari bakarra. Izan ere, Gorka Guridi oñatiarrak Euskadiko Txapelketa irabazi berri du junior mailan –eta enduroan bigarren izan da–. Euskadiko Txapelketak zazpi hilabete iraun du, martxoan hasi zituzten lasterketak eta urrian amaitu, eta denbora tarte horretan 21 urteko oñatiarra izan da onena.

Guridiren hirugarren denboraldia izan da motor gaineko diziplina hauetan, eta Narrarte Off Road izeneko taldea ordezkatuz korritu du. Txapelketa irabazteko lehia estua izan du sailkapen nagusian atzetik zetorren pilotuarekin, baina, azkenean, lau puntuko aldearekin nagusitu da oñatiarra. Podiuma osatu dute Gorka Guridik 93 punturekin, Luis Reyk 79 punturekin eta Andoni Erauskinek 65 punturekin. Aipatu behar da hainbat oñatiarrek osatutako taldea dela Narrarte Off Road.

ARETO FUTBOLA

# Luis Ezeizako II. Futbol Txapelketa antolatu dute Eskoriatzan

**X.U.** | ESKORIATZA
Azaroaren 1eko eta 2ko asteburuan jokatuko dute Luis Ezeizako II. Futbol Txapelketa. Iazko edizioak arrakasta polita izan zuen, eta aurreikusten dute aurten ere jendea animatuko dela. Hala, azaroko lehen asteburuan izango den txapelketan jokatzeko dagoeneko zabalik dago izen-emate epea (urriaren 29a izango da izena emateko azken eguna).

### Bailarara zabalduta

Txapelketa ez dute Eskoriatzara mugatu nahi, eta inguruko herrietako taldeek zabal-zabalik izango dituzte ateak. Hala, izena eman daiteke Eskoriatzako Zarauztarra tabernan edota Goiko lokalean (Fontaneria Sanchez, Tesa parean). Talde bakoitzak 100 euro ordaindu beharko ditu eta jokalariek, gutxienez, 15 urte izan beharko dituzte. Informazio gehiago 646 942 866 edota 672 259 221 telefono zenbakietan.

Eskoriatzan azken boladan areto futbola indartzeko lanean dabiltza. Kirol federatutik haratago –Eskoriatzak du areto futbolean ibarrean maila gorenean lehian dabilen taldea– koadrilen artean ere kirol jarduera hori sustatu nahi dute, eta hori da ekimenetako bat.

MENDI BIZIKLETA

# Mendiko bizikleta puntuan ez duenak jai du asteburuan

## Zapatuan egingo dute Arrasaten Besaideko martxa eta domekan eskoriatzarrek hartuko dute erreleboa

XABIER URZELAI | ARRASATE

Joan den astean Iban Altuberen omenezko proba egin ostean, txirrindulariek astebete izan dute bizikleta puntuan jartzeko. Eta nagi ibili denak jai du oraingoan.

Besaide elkarteak biharko antolatu duen martxak ibilbide ikusgarria izango du. Martxa Musakolako kiroldegian hasiko dute (09:00). Kurtzetxiki igo ostean, Izurietatik pasatu eta Ikutixoko jaitsierara iritsiko dira. Jatekoen eta edatekoen ostean Udalara igoko dira; han, sorpresa berriren bat izango dute, eta Enduro Bonus zati klasikoaren ostean, ziklistek Udalatik Arrasateraino jaisten den bidezidor berria estreinatuko dute –izango da aukera errazagoa–. Ibilbide luzeak 35 kilometro eta 1.400 metroko desnibela dauka eta motzak, 27 kilometro eta 1.000 metrokoa. Aurtengo ibilbide ia guztia bidezidorretatik igaroko denez, antolatzaileek "oso martxa dibertigarria" izango dela uste dute.



Aurreko aste bukaeran Oñatin egindako martxa. | JULEN IRIONDO

### Domekan Eskoriatzan

Zapatuan bizikleta apur bat txukundu ostean, domekan lan handiagoa eurendako. Eskoriatzako plazatik irtengo da 24. Mendi Bizikleta Ibilaldia, 09:00etan. Ibilbide luzeak 39 kilometro izango ditu eta ibilbide motza aukeratzen dutenak lasaiago ibili ahal izango dira, 10:30ean hasiko da-eta bigarren martxa hori (11 kilometro izango ditu, gaztetxoendako aproposa). Antolatzaileek argi utzi dute "ibilaldia dela, ez lehiaketa", eta "segurtasun arauak une oro errespetatzea" eskatzen dute.

### Izen-ematea, bertan

Bi probetako izen-ematea egunean bertan egin beharko da, proba hasi baino lehenago.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA, EMAKUME.**
Athletic B-Mondra
Zapatua. 17:00. Lezama.

**EUSKAL LIGA, GAZTEAK**
Real Union B-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Gal.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aretxabaleta-Tolosa
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Hernani
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Vasconia-Antzuola
Zapatua. 17:30. Puio.
Zarautz-Bergara
Zapatua. 16:30. Asti.

**ERREG. PREFERENTEA**
Mondra-Ilintxa
Domeka. 16:30. Mojategi

**OHOREZKO GAZTEAK**
Urola-Mondra
Domeka. 12:30. Argixao.
Lengokoak-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Cesar Benito.
Bergara-Amaikak Bat
Domeka. 17:00. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza: atsedena.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Aretxabaleta-Bilkoin Eredu
Egubakoitza. 20:00. Ibarra.

**SASKIBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-Atletico San Sebastian
20:00. Iturripe.

**MAILA AUTONOMIKOA**
Oreka-Natra Oñati
Zapatua. 19:30. .

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Ford Mugarri-Quiron Askartza
Zapatua. 18:30. Iturripe.

**EUSKADIKO LIGA**
Lau Bide jatetxea-Soraluce BKE
Zapatua. 19:15. Hondarribia.

**ERRUGBIA**

**EUSKADIKO LIGA**
Hernani-Arrasate Kanpantzar
Zapatua. 18:15. Hernani.



GOIENA

**ALOÑA MENDIK HERNANI HARTUKO DU** Oñatiarrek Hernaniren aurka jokatuko dute domekan (Azkoagain, 16:30). Sailkapeneko goiko postuetara salto egiteko aukera ederra dute.


# AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI

Renault Kangoo
• 2011
• Diesela
• 19.340 Km
• Txuria




10.800 €

RENAULT
AUTOBERRI

San andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

• **Renault Kangoo furgoia** 7.500 €
2011 | Diesela | 107.000 Km | Txuria
• **Renault Megane Sport Tourer** 14.850 €
2011 | Diesela | 11.037 Km | Beige
• **Renault Clio** 9.250 €
2010 | Diesela | 23.856 Km | Urdina
• **Renault Clio Grand Tour** 11.850 €
2012 | Diesela | 17.155 Km | Grisa
• **Renault Twingo** 8.450 €
2011 | Diesela | 9.654 Km | Beltza
• **Dacia Sandero** 8.850 €
2012 | Gasolina | 3.560 Km | Grisa

Citroën C4 Aircross 1.8 HDi Exclusive 2WD 150
• 2012
• Diesela
• 10.450 Km
• Marroi iluna

CHAPIME

CITROËN
Debagoieneko kontzesionario ofiziala




28.500 €

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

• **Citröen C3 1.4HDi Business** 9.800 €
2011 | Diesela | 31.000 Km | Gris argia
• **Citröen C4 Grand Picasso 1.6 e-HDI Millenium CMP** 18.000 €
2012 | Diesela | 31.443 Km | Gris iluna
• **Citröen C-Elysée 1.6HDi Exclusive 90** 13.500 €
2012 | Diesela | 4.500 Km | Urdin argia
• **Citröen C-Elysée Vti Exclusive 72** 12.250 €
2013 | Gasolina | 25 Km | Shark grisa
• **Citröen DS3 1.6e-HDI Style** 17.500 €
2013 | Diesela | 325 Km | Gris iluna
• **Citröen DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP** 32.500 €
2012 | Diesel eta elektrikoa | 13.000 Km | Zuria
• **Peugeot 206 1.1i (3 ate)** 8.800 €
2012 | Gasolina | 200 Km | Gorria
• **Peugeot 308 SW 20Hdi Premium** 10.200 €
2008 | Diesela | 140.585 Km | Beltza
• **Ford FT Tourneo 200 S Connect 75** 4.300 €
2005 | Diesela | 129.456 Km | Zuria

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## NAGUSIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

**SAROAN**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 19 – 8. bulegoa
Tel.: 943 10 90 80 - www.saroan.com

## NUTRIZIOA

**LOREA ARANBURU (MEDIKU NUTRIZIONISTA)**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 72 16
Bergara / Ramon M. Lili 2, behea / 943 76 59 39

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA**
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

**BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE**
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA



Aitor Bolinaga oñatiarrak egin du *Ahalegina* margolana.

# Lope de Agirrek baditu milaka aurpegi

- ARTaso elkarteak askotariko ekitaldiak antolatu ditu
- Pertsonaiari buruzko ezjakintasuna argitu guran sortu da

JAGOBA DOMINGO

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | OÑATI

Lope de Agirre ardatz duen *Lope 500* hamabostaldia antolatu du Oñatiko ARTaso elkarteak; Udalaren eta Ulma Fundazioaren laguntzarekin, Lope de Agirreren jaiotzaren urteurrena dela eta.

Ezjakintasun handia dago pertsonaia horren inguruan, ekimenaren bultzatzaileen esanetan: "Araotzekoa dela diote historia liburu gehienek, baina badaude Aramaiorekin lotzen dituzten dokumentuak ere; badakigu Perun 30 urte egin zituela, eta, horrela kontatu badigute ere, ez dakigu han egin zituen *astakeriak* egiazkoak diren edo zelakoa zen; besteak beste, indigenekin zuen harremana", dio Anjel Mari Milikuak, ARTasoko kideak. Horiek guztiak argitzen saiatzeko tresnak prestatu dituzte, bada: erakusketa, hitzaldiak, film proiekzioak eta kale antzerkia. "Beharrezkoa ikusten genuen nazioartean Oñatiko pertsonaia esanguratsuenetakoa denari buruz herrian zerbait egitea; iaz plaka jarri genuen haren izena duen kalean eta hamabostaldia da hurrengo urratsa. Askotariko iritziak eta ikuspuntuak batuko ditugu, atera ditzala gero bakoitzak atera beharreko ondorioak", diote ARTaso elkartetik.

### Herriko artisten begietatik

Iñaki Jauregialtzo eta Anjel Mari Milikua zeramikagileak Lope de Agirreri buruzko arte-lanak egiten hasi ziren orduan. "Zeramikak egindakoan, 'orain zer?', genion, besteak beste, jendaurrean erakutsiko genituen ala ez pentsatzen. 'Zeramikak bakarrik?', izan zen hurrengo galdera. Herrian askotariko artistak daudela ikusita, Loperen inguruan zerbait egiten ausartzen ziren esanaz egin genien hainbati proposamena. Ezezko borobila batzuen erantzuna, baina baiezkoa eman ziguten beste askok", dio Milikuak, gaineratuz hitzaldiekin ere gauza bera gertatu zela eta hasiera baten herriko hizlariak animatu baziren bakarrik, orain, berriz, jende askok gura duela Loperi buruz jardun, baina egitaraua hamabost egunera mugatuko dutela.

Oñatiko kultura etxean dago orain artistei egindako proposamenaren emaitza; besteak beste: 30 margolan, 35 zeramika-lan, 15 eskultura, argazkiak eta beste hainbat bitxikeria ere. "Uste dut faltako direla egile batzuk; Oñatin oraindik oso beldurtiak gara gauzak erakusteko orduan. Askotariko artistak daude: eskarmentudunak edo aurrez erakusketetan ibilitakoak direnak daude, baina gehienak jende arrunta gara, txikiteoan ibiltzen garen horietakoak. Kanpotik etorritako artistenak ere batu ditugu", gaineratu du Milikuak.

Bakarra da gaia: Lope de Agirre, baina punta asko atera dizkiote. Badira Araotz edo Oñatiko inguruetako paisaiak jasota, badira, era berean, Lope de Agirre Hego Amerikan ibili zeneko garaien irudiak ere, baita Lope de Agirreren hainbat buru eta beste hainbat ikur ere. Martitzenean zabaldu zituzten kultura etxean dagoen erakusketako ateak eta urriaren 26ra bitartean dago ikusgai, 18:00etik 20:00etara.

Astelehenean egile eta antolatzaileak elkartu zituzten erakusketa aretoan; han izan ginen gu ere, artisten iritziak eta azalpenak jasotzen. Hona hemen horietako batzuen esanak. Aurrez kontatu moduan, zeramika lanak egin dituzte Iñaki Jauregialtzok eta Anjel Mari Milikuak: Lope de Agirreren bizitzako hainbat pasarte jaso ditu Milikuak, askok etxean dugun argazki *album*-aren itxura emanaz. "Etxetik atera zenetik hasten naiz, Sevillan, moxal hezitzailea izan zeneko garaiekin jarraitu, Ameriketako bizipenekin gero, eta bukatzeko, Loperen heriotzarekin osatu dut bilduma", dio Milikuak. "Agirreko Loperen beste hainbat pasartetan oinarritutako beste serie bat egin dut nik ere", dio Jauregialtzok "Arbelaren gainean jarritako azulejo moduko zeramikazko plaka batzuk dira, besteak beste, buztinarekin egindako lanketa batzuekin", kontatu du Jauregialtzok.

Egurrarekin eta harriarekin egindako bost eskultura erakutsi ditu, berriz, Iñaki Gerekak: "Loperi buruz zerbait egiteko esan zidatenean, Araotzera joan nintzen eta Orkatzategi inguruan, harriak mugitzen hasi eta hantxe agertu zen harri gorri ikusgarri bat. Harrituta geratu nintzen, Loperen aurpegiaren antz izugarria zuen -eta. Ia ukitu gabe dago, txukunketa gutxi batzuk besterik ez nion egin. Nire zain zegoen, antza!", azaldu du Gerekak. Horrez gainera, Lope de Agirreren beste buru bat ere egin du: "Kaiola batetan sartu dut hori; kanpotik gogorra eta barrutik biguna den

*32. orrialdean, jarraipena.*



Esteban Kerexetaren lan bat. | J. D.



Anjel Mari Milikuaren lan bat. | A. A.



Iñaki Gerekaren *Beltza* lana. | J. D.

## Filmak eta kale antzerkia ere bai

Eguaztenean erakutsi zuten, Agustin Goenaga oñatiarrak 1995ean ETBrako egin zuen *Agirreko Lope zatituta* dokumentala. Ez da hori, baina, hamabostaldian jasoko duten Goenagaren lan bakarra; izan ere, urriaren 25ean, 1983. urtean Oñatin egin zuten *Agirre* filma ere erakutsiko dute Antixena gaztetxean egingo duten afariaren aurretik. Ondoren, Werner Herzogen *Aguirre, la cólera de Dios* filma erakutsiko dute, 22:00etan. Afarirako aurrez eman behar da izena. Urriaren 21ean, Carlos Sauraren *El Dorado* ikusteko aukera izango da, Antixenako gaztetxean, 19:00etan.

Oteo Silvaren liburuan oinarrituta eta hainbat herritarrek egindako kale antzerkiak borobilduko du hamabostaldia urriaren 26an, 19:00etan. Lope de Agirre kalean hasi eta Santamaina plazan bukatuko dute haren bizitzari buruzko lau esketxak .



Erakusketan parte hartu duten hainbat artista elkartu ziren astelehenean kultura etxeko erakusketan . | A. A.

*31. orrialdetik dator.*

harri bat da, bihurkin batekin landutakoa". Xabier Santxotena eskultore nafarrak ere Lope de Agirreren buruaren eskultura egin du: "Bi metro neurtzen duen Lope de Agirreren burua egin nuen orain urte batzuk, euskal pertsonaia ospetsuen gaineko bilduma baten barruan. Haren brontzezko zirriborroa da ekarri dudana", dio Santxotenak.

Bitxiak dira, era berean, Joxean Izaren hiru lanak: 1985. urteko litografia bat da horietako bat, Oñatiko Potxo Argitazuloak orain urte batzuk argtaratu zuen Lope de Agirrek Felipe II.a erregeari idatzi zion gutuna jasotzen zuen liburuxkaren azala bilakatu zena geroago. Ikusgarriagoa da, baina, tamainari zein lanaren ezaugarriari erreparatuz, *Lope de Agirreren dekonstrukzioaren berreraikuntza* izenburua duena: "Arkatzarekin egindako antolaketa lana da. 50x70eko moduluak egin ditut eta nire kasara antolatu ditut gero. Lope zatitu egin zuten eta zatiketa hori irudikatu gura nuen. Askatasunari buruzko testu batzuk ere txertatu dizkiot", esan du Izak.

Ikaragarriak dira, baita ere, Aitor Bolinaga oñatiarraren bi margolanak: "Batera egin ditut. *Ahalegina* eta *Hala-beharra* izenburuak jarri dizkiet: Inperio oso bati eta baita Elizari ere gerizpea egiteko ahalegina irudikatu dut lehenengoan; eta *Hala-beharra* lanarekin, berriz, Elvira alabaren irudia eta izkinan dagoen baladun kaxatxoarekin, zera adierazi gura nuen: etsaien emagaldu moduan bukatu aurretik, akaso ez zeukala alaba hil baino aukera hoberik" dio Bolinagak. *Hala-Beharra* margotik gertu dago kokatuta, Urdin Elortzaren *Loperen Autoretratoa*. Loperi indigena itxura eman dio Elortzak.

Herriko margo eskolako ikasle batzuekin ere izan ginen: Miren Zuazolak *Txaman* lanaren azalpena eman zigun: "Hego Amerikan egin zituen urteetan, Loperentzako txamanaren figura garrantzitsua izango zela uste dut, eta horregatik margotu dut. Maria Almeidak ere Hego Amerikako bizipenak jaso ditu: "Hango jendea Loperen bizitzako parte zela uste dut eta horregatik margotu dut emakume indigena hori. Emaztea izan daiteke edo alaba ere bai, zergatik ez", dio Almeidak.

Aipatutakoez gainera, askoz gehiago dira ARTasokoek kultura etxeko erakusketan batutako lanak: "Herriko geologia taldekoek Araotzen aurkitutako harri bi ere badaude: bata, 110 milioi urtetakoa da eta ehunka mila urtetakoa, berriz, bestea. Horrez gainera, herriko Filatelia Elkartearekin elkarlanean atera dugun *Lope 500* hamabostaldiko zigilua eta postala ere badaude; salgai daude kultura etxean, bi eurotan bakoitza. Eta bilduma borobiltzeko, hainbat bitrinatan, Loperi buruz idatzitako hainbat liburu ere erakutsi ditugu", dio ARTaso elkarteko Kepa Elortzak.

**Maitagarria ala gorrotagarria?**

Aldeko eta kontrako iritzi eta sentimenduak sortzen dituen pertsonaia historikoa da Lope de Agirre: maitagarria batzuendako, horien ustetan, iraultzailea eta *libertadorea* zelako; eta indigenen esplotatzaile eta konkistatzailea izateagatik, gorrotagarria, beste askorentzako.

Erakusketan bildutakoen artean galdetu genuen Lope de Agirreri buruz; hona hemen jasotako batzuk. Xabier Santxotena eskultore nafarraren ustez, lehenengo iraultzailea izan zen: "Lotsarik gabe erregea pikutara bidali zuen urrea eta dirua behar bazuen horien bila bera joateko esanaz". Joxean Izaren ustez, berriz, euskaldunon panteoian daukagun heroi galtzaile bat da. Gustuko du Iñaki Gerekak ere: "*Errebeldea* zen, eta gauza ona da hori".

ESANAK

**"Beharrezkoa zen Loperi buruz herrian zerbait egitea"**

ANJEL MARI MILIKUA | ARTASO

**"Bi eurotan daude salgai Loperen zigilua eta postala"**

KEPA ELORTZA | ARTASO

**"Euskal Herriko lehenengo iraultzailea izan zen Lope"**

XABIER SANTXOTENA | ESKULTOREA



Azkueren *Gutuna eta Ezpata*. | A. A.



Jauregialtzoren zeramika lana. | A. A.

## Hari buruzkoak argitzeko, hitzaldiak



Santxotena bere lanarekin. | A. A.

Lope de Agirreren gainean herrian eta orokorrean dagoen ezjakintasuna aintzat hartuta, hainbat hitzaldi antolatu dituzte. Jose Antonio Azpiazuk, Jerardo Elortzak eta Araotzeko abadeak egin zuten, martitzenean, Lope de Agirreren Oñatiko jatorriaz eta garaiko Oñatiren egoera sozio-politikoaz hitzaldia. Urriaren 22an, hurrengo martitzenean, berriz, Aramaioko balizko jatorriaz jardungo du Julen Arriolabengoak, kultura etxean, 19:00etan. Aramaioarrarekin batera Xabier Santxotena eskultoreak ere berba egingo du; Ursuatarrekiko begirada pertsonala azalduko du hark.

Urriaren 23an, kultura etxean, 19:00etan, Anjel Amigo zinema ekoizleak eta Jesus Egiguren politikariak esku artean duten Lope de Agirrereren ibilbidearen gaineko proiektuaz jardungo dute.

# Kantariren laugarrena abiatuko da bihar Arkupen

Diskoteka itxura hartuko du aurten agertokiak; guztira, 600 gaztetxo ikusiko ditugu kantuan

**A. A.** | ARETXABALETA

Bihar, zapatua, ekingo diogu Goienaren Kantari karaoke ikuskizunaren laugarren edizioari. Aretxabaletako Arkupe kultura etxean, 8-12 urte bitarteko Aretxabaleta eta Eskoriatzako 148 gaztetxok hartuko dute parte. 15:30ean hasiko dira grabazioak eta 20:15 inguruan amaitzea aurreikusten da. Guztira, bada, sei saio grabatuko ditugu bihar.

Saioak ikusi nahi dituztenek Arkupeko leihatilan jaso beharko dituzte gonbidapenak, *aforoa* kontrolatzeko helburuaz.

**Diskoteka giroan**

Aurten ere, Amaia Txintxurretak egingo ditu aurkezpen lanak baina oraingoan disko jartzaile lanekin bateratuko ditu; izan ere, itxura berria erakutsiko du Kantariren agertokiak. Diskoteka bilakatuko dute; hori horrela, agertokian zintzilikatutako kristalezko bolak eta Lanbide Heziketako ikasleek egindako saioaren logoa ikusiko ditugu.

**Hurrengo grabazioak**

Biharko saioen ostean, Bergarak hartuko du lekukoa. Ondoren etorriko dira, Oñati eta Arrasate, hurrenez hurren.



Aretxabaletako Arkupen aurreko astean egin zuten entseguko unea. | J. D.

## Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra bihar Txapelketa Nagusiko Legazpiko agertokian

**A. A.** | ELGETA

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko bosgarren kanporaketa egingo dute bihar, zapatua, Legazpin. Ainhoa Agirreazaldegirekin batera Beñat Lizaso, Igor Elortza, Iñigo Manzisidor, Jokin Uranga eta Oihana Bartra izango dira taularen gainean. Sarrera guztiak aurrez saldu dituztenez, ez dute leihatila zabalduko bihar.

Txapelketa hasieran elgetarrak Goienari adierazi zion teknikoki baino gehiago, mamitik egingo duela ekarpena.

**Oionen, debagoiendarrak**

Urriaren 26an izango da, Oionen, azkeneko kanporaketa. Han izango dira Manex Agirre, Maddi Sarasua eta Miren Amuritza. Sarrerak aurrez erosteko: *bertsosarrerak.eu* helbidean.



Ainhoa Agirreazaldegi aurreko edizioko kanporaketa batean. | GALDER IZAGIRRE

# Bailarako txistu doinuen IV. festa Eskoriatzan

11:30ean hasiko da eta egun osoan txistu eta danbolin doinuek herriko kaleak alaituko dituzte


Arrasaten egin zuten azken Txistulari Eguna. | GOIENA

**IMANOL GALLEGO** | ESKORIATZA
Bihar, Eskoriatzak bailarako Txistulari Eguna hartuko du. Ez da egitasmo berria, duela lau urte Debagoienako txistulariek sortu baitzuten ospakizun eguna. Egitasmoa duela lau urte sortu zen Eskoriatzan, eta, geroztik, Aretxabaletan eta Arrasaten izan du jarraipena.

Sortzaileek hasiera batean ospakizun egun hori bailarara mugatu zuten arren, "mugak jartzea astakeria galanta" zela ikusiko ostean, inguruko beste herri batzuetako txistulariak ere gonbidatu dituzte. Parte-hartzailetza irekia den arren, ospakizuneko antolatzaileek "berrogeita hamar lagun inguru elkartzea" espero dute.

**Egitarau xelebre samarra**
Ekimen gehienek egitarau luzea izaten duten arren, artisten bohemio kutsuagatik-edo, Txistulari Egunak misterio handirik gabeko egitaraua izango du. 11:30ean herriko kaleak esnatu eta girotzeko kalejira erraldoia egingo dute eta 13:00etan kontzertua eskainiko dute herriko plazan. Egitarau ofizialak bi puntu besterik ez duen arren, txistulariek beste hitzordu batzuk izango dituzte: "Lehen orduan elkartu eta entsegutxo bat egingo dugu".

Kalejira bera beroketa besterik ez da izango, eguerdiko kontzertua izango baita ekitaldi nagusia. Plazan pieza zahar eta berriak joko dituzte, eta antolatzaileek "sorpresaren bat" egongo dela aurreratu digute. Sorpresaren muina aurreratu ez duten arren, Jon Pagaldaik, batukadak, txistulariek... parte hartuko dutela iragarri dute.

Horren ostean, nola ez, bazkaria egingo dute. Aurrez esan bezala, eguneko egitarauak kartelean azaltzen diren hitzorduak baino mami handiagoa izango du, eta arratsaldean ere entzungo dira txistu doinuak.

Antolatzaileek egitarau xumea egin dutela esan duten arren, elkarren konpainian egun ederra pasatu, aspaldiko adiskideekin elkartu eta herri bat girotzea ez da batere helmuga xumea.

## Ska-reggae jaialdia, zapatu gaua animatzeko aitzakia musikala

**I.G.** | ELGETA
Hiriburu askotan egon ohi diren aisialdi proposamenen alternatiba moduan sortu du David Peñalverrek ska-reggae jaialdi hori. "Gazteria eta musika beti joan dira eskutik", dio antolatzaileak. Urduri baino gehiago, irrikaz dago Peñalver. Kontzertu antolaketan ibilia da, eta soberan daki zapatuko proposamenak oihartzun oparoa izango duela: "Espaloiaren neurriko jaialdi bat antolatu dugu". Ska eta reggae jaialdia den arren, zapatuan hori baino askoz gehiago entzungo da Elgetako kafe antzokian.

**Proposamen anitza**
Kaleko Urdangak eta Smooth Beans taldeek eta hiru DJk osatzen dute ikuskizuneko kartela.


Bergarako Kaleko Urdangak talde ezaguna. | DAVID PEÑALVER

Kaleko Urdanga taldea oi! estiloan sar daitekeen arren, skazaleak izan dira. Dudarik gabe, baina, Smooth Beans Santanderko taldea izango da ikuskizuneko izarra, eta Peñalverrek txantxa gisa egindako Facebook proposamen batetik sortu zen guztia. Hilabete batzuen ostean, taldeak proposamena onartu, eta kartel erakargarria egitea lortu dute. Kontzertura joan nahi dutenek 7 euro ordaindu beharko dituzte; antzokiko bazkide, langabe eta ikasleek, berriz, 5 ordaindu beharko dituzte.


*El sueño de una noche de verano* balleta. | CARMEN ROCHE

## Shakespeare ballet erara

Carmen Roche konpainiak taularatuko du 'El sueño de una noche de verano' obra ezaguna

**I.G.** | ARRASATE
Beste antzoki batzuetan egin duen moduan, Carmen Rocheren konpainiak aho zabalik utziko du Amaia antzokia. Biharko hitzorduak definizio bakarra merezi du: ikuskizun paregabea.

Rochek Shakespeareren gai unibertsalak (heriotza, inbidia, amorrua...) koreografia bihurtu ditu. Dantza da *El sueño de una noche de verano* balletaren muina eta magiak eta mitologiak beteko dute antzokiko oholtza.

Dantzariek fantasiazko istorio bat taularatuko duten arren, pertsonaiek oso gizatiarrak diren sentimenduak espresatuko dituzte. Shakespearek Grezia eta Erroma klasikoko mitologiari beste buelta bat eman zion eta ballet horrek notaz nota idazle ingelesaren asmo guztiak mugimendu bihurtu ditu. Carmen Rocheren koreografo Tony Fabrek nahasmenaren, dramaren, umorearen eta dantzaren bitartez istorioa berrasmatu egiten du, lan benetan borobila osatuta.

**Henry Purcell-en musika**
Publikoak bere izena identifikatuko ez duen arren, kritikarien hitzetan, Erresuma Batuko konpositore onena da. Purcellek Shakespeareren obraren paragrafo bakoitza musika egin zuen, eta bere estilo zainduak idazle ingelesaren obra literarioa aberastu besterik ez du egiten.

Ziur gaude emanaldian Henry Purcell musikagile ingeles entzutetsuak sortutako musikak eta Carmen Rocheren zuzendaritza zainduak publikoaren gozamena areagotuko dutela.

## Udazkena janzteko doinu akustiko lehiaketa

**I.G.** | ARETXABALETA
Ostegun Akustikoak lehiaketa antolatu du Aretxabaletako Udalak. Aste honetan, gainera, izen-emate epea zabaldu dute eta 28an itxiko dute talde eta bakarlari parte hartzaileen zerrenda. Asmoa da parte-hartzaileek azaroko eta abenduko eguenetan herriko tabernetan kontzertuak egitea eta ikus-entzuleen botoen bidez irabazlea hautatzea.

Aurtengo maiatza eta ekaina bitartean Ostegun Bidaiariak lehiaketa egin zen Aretxabaletan. Izandako harrera onak bultzatuta, oraingoan, eguenak musikaz jantzi gura ditu Aretxabaletako Udalak. Hori horrela, Gazteria Sailetik Ostegun Akustikoak lehiaketa ipini dute martxan.

## Oñatiko Su ta Gar taldearen kontzerturako sarrerak salgai

**I.G.** | OÑATI
Eibarko Su ta Gar taldeak urriaren 25ean joko du Oñatiko gaztelekuan. Heavy doinuak euskaraz abesten lehena izan zen talde eibartarra, eta harrera bikaina izan zuen haien musikak. 90eko hamarkadan izen handia lortu zuten eta ordutik hona euskal musikaren erreferente eta enbaxadore izaten segitzen dute.

Kontzertura joateko asmoa dutenak adi egon daitezela; izan ere, dagoeneko hasi dira sarrerak saltzen, zortzi euroren truke, Pako, Ona eta Boga tabernetan. Kontzertu egunean gaztelekuko txarteldegian ere salduko dituzte sarrerak; horiek, baina, 10 eurotan. Kontzertua, ohi den moduan, 22:30ean hasiko da.




Jian Chen Yin, jatetxeko atean. Atzean, jatetxearen izena txineraz (*Harresi Handia* esan nahi du).

JOKIN MUJIKA

**Jian Chen Yin** | Administrazio ikaslea

# "Batez ere, euskaraz edo gaztelaniaz esaten zena txinerara itzuli behar izaten nuen"

**JOKIN MUJIKA** | ARRASATE

Jian Chen Yin (Madril, 1993) Administrazioa ikasten ari da Donostian. Astean zehar ikasten, eta asteburuetan familiak Arrasaten duen jatetxean dihardu lanean. 7 urterekin etorri zen Chen Yin Txinatik, eta 13 urte daramatza Debagoienean bizi izaten. Joan den uztailean, Fagorrera etorri ziren bezero txinatar batzuen bisita zela eta, itzultzaile lana egiteko deitu zioten. Bi aldiz pentsatu gabe baiezkoa eman zien, eta hilabete ibili zen bertan lanean.

**Nola hasi zinen itzultzaile Fagorren?**

Uztail bukaeran deitu zidaten. Berez, Txinara joatekoa nintzen familia bisitatzera, baina Fagorren itzultzaile lanetan ibiltzeko inor ez zuten aurkitzen. Niri deitu eta ea prest egongo nintzatekeen galdetu zidaten. Baietz esan nien, eta, hasieran, ezer kobratu gabe izango zela pentsatu nuen. Egia esan, ez ninduen askorik arduratzen, esperientzia berri eta aberasgarria izango zelako.

**Nola heldu ziren zuregana?**

Goihata itzultzaile enpresaren bidez. Haiek Fagorrekin eta nire gurasoekin harremana daukate. Izan ere, lehenengo, haiei eskaini zieten, baina aita eta ama kanpora joatekoak ziren; beraz, niregana jo zuten. Bi hizkuntzak menderatzen nituen, baina esperientzia falta neukan eta horrek pixka bat beldurtzen ninduen, hori egiten nuen lehenengo aldia baitzen. Kasualitatea izan zela esan dezaket.

**Zein izan da esperientzia berri horren alderik positiboena?**

Jendearekin oso gustura ibili nintzen lanean. Lankideen artean zeukaten giro ona azpimarratzekoa da, eta, azken batean, eskertzekoa. Gazte sartu nintzen, inongo jakintzarik gabe, inor ezagutu gabe... eta bertakoak ondo portatu ziren, oso jende jatorra egokitu zitzaidan. Hasieran, beldur nintzen, txinatarrez hiztegi teknikoa menderatzen ez nuelako, baina, gutxika-gutxika, ikasten joan nintzen.

**Eta alde negatiboena?**

Goiz osoa ematen nuen Fagorren. Gainera, ama kanpoan zegoen, eta jatetxean jardun behar nuen gauero lanean. Lo gutxi egiten nuen, eta hilabete neketsua izan zen. Bestela, ez zait ezer negatiborik gelditu buruan. Nire hiztegia aberasteko aukera ederra izan zen eta gustura egin nuen lan.

**Zein zen gehien itzultzen zenuen hizkuntza?**

Batez ere, euskaraz edo gaztelaniaz esaten zena txinerara itzuli behar izaten nuen. Ia beti Fagorreko langileek hitz egiten zuten, bertan dituzten hainbat proiekturen berri emateko. Baina txinatarren batek dudaren bat bazeukan, hori ere itzultzen nuen.

**Nola moldatzen zara hemengo hizkuntzekin?**

Ondo moldatzen naiz. 7 urterekin etorri nintzen Arrasatera eta euskara eta gaztelania ikasi ditut. Txiki-txikitatik Arizmendi Ikastolan ibili naiz ikasten. Etorri nintzenean, ikaskideek etxean ikasita zeuzkaten euskara eta gaztelania. Nik, ordea, ikastolan, laguntza berezi baten bidez, nahiko azkar ikasi nituen. Egia esan, askoz zailagoa iruditu zitzaidan euskara menperatzea; aditzekin oraindik arazoak dauzkat. Baina nahi bezala komunikatzeko, nahikoa eta soberan. Gainera, hemen integratzeko asko lagundu dit euskara ikasteak, Euskal Herria ulertzeko identitate bat baita.

**Kontratua luzatzeko aukerarik eman zizuten?**

Hasiera baten, otsailera arteko kontratua egitea eskaini zidaten, txinatarrek otsailera arte hemen egon behar zutelako. Baina horrek nire ikasketak alde batera uztea zekarren. Astelehenetik egubakoitzera Donostian egoten naiz ikasten, eta, egun, garrantzi handiagoa daukan zerbait da. Etorkizunean gustura egingo nuke lan hori, eta hurrengo udari begira errepikatzeko prest egongo nintzatekeela esan nien.

**PERTSONALA**

**Zure herriko txoko maiteena:** edozein, lagunekin bada.

**Euskal Herriko gauza politena:** kostaldea.

**Dakizun hizkuntza politena:** euskara, duda barik.

**Pelikula gustukoena:** *Gran Torino.*

**Bidaia gustukoena:** Txinako nire herria, faltan igartzen dut.

**Kirol bat:** Atletismoa.

**Irakurritako azken liburua:** *Guerra mundial Z.*

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** Martokon etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa eta trastelekua. Igogailu eta berokuntzarekin. Dena kanpoaldera begira, bi balkoirekin eta oso eguzkitsua. Zoru eta ateak berriak eta margotu berria. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. 179.000 euro. 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erguin kalean etxebizitza emateko da errentan. Hiru logelakoa. Jantzia, bizitzera sartzeko moduan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 86 71 97

**Bergara.** Etxebizitza atsegina, berritu berria. Lau logela, bainugela, egongela handia eta sukaldea. Dena kanpoaldera begira, ikusmira zabalekin, oso argitsua eta lasaia. Fatxada berritu berria. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635 75 91 19

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Toki Ederren. Hiru logelakoa; nahiko handia. Oso argitsua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 55 14 16

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate edo Bergara.** Etxebizitza handia behar dugu errentan. Hiru logelakoa. Beheko solairua izan behar du. Lau pertsonako familia gara. Gloria. 697 96 45 10

**Arrasate.** Arrasaten alokatzeko pixu baten bila dabilen bikote langile bat gara. 653 72 43 19

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan, bi edo hiru logelakoa. 632 20 48 63

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket gehienez ere. Bi edo hiru logelakoa. 671 84 71 71

**Bergara.** Familia batek etxea behar du errentan. 650 62 12 94 edo 943 76 19 52

**Debagoiena.** Bi pertsonendako etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 26 86 62

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Bikote batentzat egokia. Etxeko gainontzeko lekuak erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 45 33 59

**Bergara.** Logela ematen da errentan erdigunean. Komun pribatuarekin. Sukalde eta egongela, partekatuta. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 26 71 41

**Lasarte-Oria.** Logela ematen da errentan Lasarte-Orian. Eskatzen den bakarra lan-kontratudun pertsona izatea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 644 23 91 52

**Logela partekatzeko.** Arrasate erdialdean logela bat partekatzeko neska edo mutil bat behar dugu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 693 80 64 18

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** 13 metro koadroko garajea salgai Espoloian. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Eskoriatza.** Emakume bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 88 96 81

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Haur Hezkuntzan graduatua den neska euskalduna gertu haurrak zaintzeko. Esperientzia handia. Interesatuok deitu: 618 87 12 97

**Arrasate.** 55 urteko emakume euskalduna, arrasatearra, umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. 943 79 60 89

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu hurrengo lanak egiteko: umeak eta nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta ospitalean gaixoak zaindu. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 54 17 27

**Bergara.** Haur Hezkuntzako irakasle ikasketak dituen neska euskalduna umeak zaintzeko gertu. 615 76 29 25

**Bergara eta Arrasate.** Emakume esperientziaduna umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. 610 34 97 88

**Bergara, Arrasate edo Oñati.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. Egunez zein gauez lan egiteko gertu. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

**Bergara.** 49 urteko emakumea edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 24 79 09

**Bergara.** Emakume arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko gertu. Puerikultura tituluduna. Arantxa. 688 65 30 62

**Bergara.** Lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 52 39

**Bergara.** Neska arduratsua ordukako lan bila, nagusiak zaintzen edo garbitasunak eta abar egiten. 631 43 38 95

**Debagoiena.** Garbiketan edo pertsona nagusien edo umeen zaintzan orduka lan egiteko emakume esperientziaduna prest. 650 62 12 94 edo 943 76 19 52

**Debagoiena.** Gizonezkoa edozein lan motatan eta edozein ordutegitan lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 610 12 49 64

**Debagoiena.** 23 urteko mutila gertu eraikuntzan, gerbiketan edota tabernan lan egiteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 602 48 36 75

**Debagoiena.** 28 urteko neska gertu edadetu zein umeak zaintzeko edota garbitasun lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. Interesatuok deitu telefono honetara: 602 48 36 75

**Debagoiena.** Edozein ordutegirekin garbiketa lanetarako edo pertsona helduak zaintzeko emakumea prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 68 47 59

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egin, atari eta eskailerak garbitu zein nagusi edota umeak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 86 99 51

# ZURE IARAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Debagoiena.** Emakumea lan bila. Garbitasunak egiten, zaintzaile, kamioi gidari, banaketa lanetan, nagusiak zaintzen eta abar. Autoa eta gidabaimena dauzkat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 32 13 69

**Debagoiena.** Emakumea prest edozein ordutegirekin garbiketa lanak egin edo umeak zein pertsona helduak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 664 12 43 25

**Debagoiena.** Gizona etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. Esperientzia handikoa. 602 45 84 63

**Debagoiena.** Goizetan umeak prestatu eta ikastolara eramateko prest. Etxeko lanak ere egingo nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 92 89 23

**Debagoiena.** Mutil arduratsua nagusiak zaintzeko edo besteko lanetarako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 20 48 63

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, legezko agiriak eta pertsonen zaintzan eskarmentua duena, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile jarduteko gertu. 631 00 42 63

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, legezko agiriekin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile aritzeko gertu. Zaintzan esperientzia handia dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 00 42 63

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko eta baita baserriko lanak egiteko ere. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 09 46 26

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Justo Garate 50 m², 2 logela. 10m2 terraza. Oso ondo. 210.350€. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 169.500 €.
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Buztin zuri. 3 logela. Igogailua. Oso ondo.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**Osintxu:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 150.000 €. AUKERA BIKAINA

**Debagoiena.** Mutila gertu laneko. Garbitasunak egiten, nagusiak zaintzen eta abar. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 610 12 49 64

**Debagoiena.** Mutila gertu industrian edo garbiketan lan egiteko. 666 01 13 42

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetan jarduteko. Esperientziaduna eta lege agiriekin. Eraikuntzan ere lan egingo nuke. 631 00 42 63. Dario.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: garbiketan, tabernan zerbitzari zein sukalde laguntzaile, igeltsari, gidari... Mohamed. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna eta lege-agiriak ditut. Oscar. 632 12 40 16

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke. Geriatria ikasketak ditut. 691 03 25 02

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo gerbitasunean lan egingo nuke. Orduka edo egun osoz. Baita asteburuetan ere. 632 18 70 27

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke, astelehenetik egubakoitzera bitartean. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak eguneratuta. 603 22 53 66

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketak orduka egoteko eta nagusiak zaintzen zein pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua, klinika laguntzaile tituluduna, nagusiak zaintzeko, etxeko lanek egiteko edota tabernan lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen esperientzia handikoa. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Neska arduratsua, oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna, lan bila. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Nagusiak zaindu, garbitasun lanak eta abar. Deitu 615 06 28 04 telefonora.

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu zein etxeko garbitasunak egiteko. Baita asteburuetan edo gauetan ere. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 722 32 43 67

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzen, tabernan, garbiketan eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Gidabaimena eta autoa daukat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko ere gertu. 672 07 68 52

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Nagusi zein umeak zaintzen, garbitasun lanetan, tabernatan eta abar. 688 68 12 79

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: etxeko lanetan, ostalaritzan zein nagusiak zaindu eta pasioan laguntzeko. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila gertu etxean bertan bizi izaten, egun osoz, orduka edota baserrietan lan egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak ditut. 733 28 81 24

**Debagoiena.** Mutila ostalaritzan lan egiteko gertu. 699 26 86 62

**Debagoiena.** Mutila prest arratsaldez edozein lanetan aritzeko. 605 44 61 98

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, zaintza lanak egiten edota garbitasunean jardungo nuke, egunez zein gauez. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Gipuzkoa.** Garbitasunean, nagusien zaintzan edota informatika eta webguneen programazioan lan egingo nuke. 628 93 66 05

**Gipuzkoa.** Mutila arduratsua lanerako gertu, nagusiak zaintzen, orduka edo egun osoz. Autoa daukat. 632 20 48 63

**Gipuzkoa.** Mutila gertu zerbitzari edo sukaldari lanetan jarduteko. Ostalaritzako bestelako lanetan ere bai. 610 99 28 55

**Gipuzkoa.** Mutila lanerako gertu: nagusiak zaindu edo denetariko garbitasun lanak. Orduka ere bai. 671 84 71 71

**Gipuzkoa.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen, taberna, atari eta abarren garbitasunean. Orduka edo egun osoz. 600 29 05 24

**Harakina.** Zazpi urteko eskarmentua dut eta harategian lan egingo nuke. Gidabaimena eta lege agiriak daukat. 631 31 17 61 edo 610 91 33 40

**Tabernaria.** 19 urteko mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko. 647 18 73 74 edo 943 75 20 98

**Lan bila.** Garbitasunean, nagusien zaintzan edota informatika eta webguneen programazioan lan egingo nuke. 618 04 54 5

**Lan bila.** Nagusi eta umeak zaintzen eskarmentua dut. Garbiketan ere lan egin dezaket. 618 04 15 45

**Lan bila.** Neska euskalduna goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest. 659 92 89 23 edo 943 79 39 19

**Umeak zaintzeko zein etxeko lanetarako.** Mutil arduratsua umeak zaintzeko zein etxeko lanetarako. Kaixo, Donostiako gazte bat naiz, magisteritzako ikasketak bukatzen dabilena. Haurrekin oso ondo moldatzen naiz eta etxeko lanetan ere nahiko fin nabil. Beraz, laguntza apur bat behar baduzu, ez egin duda eta baldintzak negoziatu genitzazke. Ibai. 646 09 83 90

**Oñati.** Erizain laguntzaile tituluduna, prest nagusiak zaintzeko eta baita etxeko lanak egiteko ere. Goizez. Maite. 677 05 39 06

**Pertsona nagusiak zaindu-ko nituzke.** Bergaran, Arrasaten, Eskoriatzan edo Aretxabaletan zapatu eta domeka goizetan lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu eta bestelako lanak. 696 84 19 51 edo 943 53 29 18

## 5. IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Oñati.** Neska euskalduna Debagoienean eskola partikularrak emateko prest. Desplazatzeko arazorik gabe. LH, DBH zein Batxilergoa. Ingenieritzan lizentziatura eta CAP tituluarekin. Klase indibidualizatuak ematen esperientziaduna. 616 52 50 22.

## 6. MOTORRA

### 602. EROSI

**Mobilete bila.** Mobilete bat hartu, trukatu (bateria elektriko edo gitarra akustiko bategatik) edo erosiko nuke (prezio onean). Papelak eduki ditzala. Mila esker. 615 734 553

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Txakurkumeak.** Ardi txakurkumeak ematen dira Urbiako Fondan. 943 78 13 16

**Txakurkumeak.** Bull terrier eta cocker arteko nahasketa diren txakurkumeak ematen dira opari. Hiru hilabete dute. 686 07 61 60

### 704. BESTELAKOAK

**Arratoi txakurra galdu.** Arratoi txakur beltza eta gaztea galdu da Arrasateko Meatzerreka auzo inguruetan. Mesedez, inork ikusiko balu, eskertuko nuke telefono hauetariko batera deitzea. Eskerrik asko, aldez aurretik. Argazkia: *http://bit.ly/18kD6pJ.* 629 42 25 84 edo 669 13 31 71

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Ohe artikulatua.** Ohe artikulatua, elektrikoa, salgai. 1,05m zabalerakoa. 750 euro. 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

### 802. EROSI

**Bizikletak erametakoa.** Volkswagen Caddy batentzat balio dezakeen bizikletak eramatekoa behar dut, atzeko portoian jartzen den horietakoa. Ez dut bolarik, ezta zapaian jartzeko nahirik ere. Eskerrik asko. 660 43 64 29

**Mendiko bizikleta.** "Mountain bike" moduko bizikleta erosiko nuke, parrilla eta gurpi babesleduna. Deitu zenbaki honetara: 617 21 89 74

### 804. HARTU

**Erradiadoreak.** Etxetik kentzeko dituzun erradiadoreak hartuko genituzke. 626 13 07 56

**Sofak.** Etxean dauzkazun sofak kendu gura badituzu, guk hartuko genituzke. Jasotzera joateko arazo barik. Interesatuok deitu honetara: 646 36 68 02

### 806. GALDU

**Betaurrekoak Urbian.** Joan zen larunbatean, irailaren 21ean, galdu nituen Urbian eguzkitarako betaurreko graduatuak. Aurkitu dituenak deitu dezala, mesedez, telefono zenbaki honetara: 669 15 64 02 edo 943 76 31 01

### 808. BESTELAKOAK

**Autoa konpartitu (Arrasate -Elgoibar ibilbidea).** Astelehenetik ostiralera Arrasatetik Elgoibarrera joaten naiz lanera autoan. Arratsaldez irten eta gauez itzultzen naiz Arrasatera. Elgoibarren lan egin edo IMHko ikasle bazara, adibidez, bidaiaren gastuak konpartitzeko prest nago zurekin. 600 77 05 56

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Saskibaloia.** Saskibaloian jolastu nahi duzu? Astelehenetan, 19:00etan, Almenen saskibaloian jokatzeko taldekide bila gabiltzan 18 urtetik gorako neska talde bat gara. Anima zaitez! Interesatuok idatzi mezu bat saskineski@gmail.com helbidera edo deitu: 653 74 86 26 edo 670 35 79 13

**GARAJE ITXIAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)**

- **Aireztatuak** eta **4 metro baino gehiagoko** altuera.
- **Camper** estiloko **furgonetentzat** edota **kirol materiala** gordetzeko egokia.



INFORMA ZAITEZ!
943 31 68 68

## ASTEA GOIENAN



GOIENA

### Perretxikoen gaineko erreportajea gaur

Perretxikoen mundura gerturatuko gara *AsteOn*-eko erreportajean. Horretarako, perretxikozale batekin egoteaz gain, txakur hezitzaile batekin ere izango gara, eta baita sukaldari batekin ere, perretxikoak nola prestatu ikasteko, Goiena telebistan.

**'AsteOn'**
Egubakoitza, 21:24


EKOGUNEA.NET

### Ortzi Akizu, Ekobidaiaria, gurean

*Ekogune* saioko elkarrizketaren tartean Ortzi Akizurekin izango gara; hura Ekobidaiariak lehiaketako irabazlea izan zen joan den urtean. Eta erreportajean, berriz, Oiartzungo Arraztalo gaixo psikikoen elkartearen kontsumo taldea ezagutuko dugu.

**'Ekogune'**
Eguaztena, 21:22

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 18

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Kantari
**13:30** Bideo klipak
**13:55** Ikusten
**14:25** Planik bai?
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Jaiak: Oñatiko jaiak
**16:03** Zorion Agurrak
**16:09** Planik bai?
**16:33** Berriak
**16:58** Eguraldia
**17:01** Ekogune
**17:31** Bideo klipak
**17:51** Ikusmira
**18:06** Altxorraren bila
**18:36** Planik bai?
**18:56** Zorion Agurrak
**19:01** Berriak
**19:31** Eguraldia
**19:36** Kantari
**20:06** Planik bai?
**20:31** Zorion Agurrak
**20:36** Berriak
**21:01** Eguraldia
**21:04** Planik bai?
**21:24** AsteON
**21:54** Ekogune
**22:24** Planik bai?
**22:44** Berriak
**23:09** Eguraldia
**23:12** AsteON

### ZAPATUA, 19

**10:00** Bideo klipak
**10:30** Ur eta lur
**11:00** Magazinea
**12:00** Planik bai?
**12:20** Berriak
**12:35** Jaiak
**13:05** Onein
**13:35** Bideo klipak
**14:05** AsteON
**14:35** Magazinea
**15:35** Zorion Agurrak
**15:40** Onein
**16:05** Planik bai?
**16:25** Bideo klipak
**16:55** Bertso Txapelketa Nagusia
**17:40** Ekogune
**18:10** Zorion Agurrak
**18:15** Jaiak
**18:33** Altxorraren bila
**19:03** Berriak
**19:18** Magazinea
**20:18** Planik bai?
**20:38** AsteON
**21:08** Planik bai?
**21:28** Ekogune
**21:58** Magazinea
**22:58** Erreportajea
**23:28** AsteON

### DOMEKA, 20

**10:00** Magazinea
**11:00** Zorion Agurrak
**11:05** Ekogune
**11:35** Onein
**12:11** Berriak
**12:26** Planik bai?
**12:46** Magazinea
**13:46** Altxorraren bila
**14:16** Magazinea
**15:16** AsteON
**15:46** Zorion Agurrak
**15:51** Ur eta lur
**16:21** Bertso Txapelketa Nagusia
**17:06** Jaiak
**17:36** Magazinea
**18:36** Bideo klipak
**18:57** Erreportajea
**19:27** Bideo klipak
**19:57** Magazinea
**20:57** Zorion Agurrak
**21:02** Jaiak
**21:20** AsteON
**21:50** Magazinea
**22:50** Berriak
**23:05** Ekogune
**23:35** Berbetan

### ASTELEHENA, 21

**12:00** Magazinea
**12:45** Kantari
**13:15** AsteON
**13:45** Ikusi irratia
**14:24** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Eguraldia
**15:18** Zorion Agurrak
**15:23** Berbetan
**15:57** Zorion Agurrak
**16:04** Onein
**16:36** Berriak
**17:06** Eguraldia
**17:09** Zorion Agurrak
**17:14** AsteON
**17:44** Altxorraren bila
**18:14** Ekogune
**18:44** Erreportajea
**19:00** Zorion Agurrak
**19:05** Berriak
**19:30** Eguraldia
**19:33** Kantari
**20:03** Zorion Agurrak
**20:10** Magazinea
**20:55** Berriak
**21:20** Eguraldia
**21:25** Harmailatik
**22:10** Berriak
**22:35** Eguraldia
**22:38** Magazinea
**23:23** Gurean gaur

### MARTITZENA, 22

**12:00** Magazinea
**12:45** Harmailatik
**13:25** Kantari
**13:50** Erreportajea
**14:08** AsteON
**14:38** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Harmailatik
**15:58** Onein
**16:30** AsteON
**17:00** Berriak
**17:25** Eguraldia
**17:28** Zorion Agurrak
**17:33** Ikusi irratia
**18:12** Harmailatik
**18:57** Zorion Agurrak
**19:02** Berriak
**19:27** Eguraldia
**19:30** Kantari
**20:00** Zorion Agurrak
**20:06** Magazinea
**20:51** Berriak
**21:16** Eguraldia
**21:19** Bertso Txapelketa Nagusia
**22:04** Berriak
**22:29** Eguraldia
**22:32** Magazinea
**23:17** Gurean gaur
**00:07** Magazinea
**01:07** Gurean gaur

### EGUAZTENA, 23

**12:00** Magazinea
**12:45** Onein
**13:05** Kantari
**13:35** Ikusi irratia
**14:14** AsteON
**14:44** Zorion Agurrak
**14:49** Berriak
**15:14** Eguraldia
**15:17** Jaiak
**15:47** Harmailatik
**16:32** Zorion Agurrak
**16:37** Berriak
**17:02** Eguraldia
**17:05** Harmailatik
**17:45** Onein
**18:21** Berbetan
**18:55** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:20** Eguraldia
**19:23** Bideo klipak
**19:40** Baietz asmatu!
**20:10** Magazinea
**20:55** Berriak
**21:20** Eguraldia
**21:22** Ekogune
**21:52** Tertulia
**22:52** Berriak
**23:37** Eguraldia

### EGUENA, 24

**12:00** Magazinea
**12:50** Onein
**13:20** Kantari
**13:50** Ekogune
**14:20** Bideo klipak
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Erreportajea
**15:28** Zorion Agurrak
**15:33** Altxorraren bila
**16:03** Ikusi irratia
**16:42** Berriak
**17:07** Eguraldia
**17:10** Onein
**17:35** Planik bai?
**17:55** Jaiak
**18:25** Ekogune
**18:55** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:20** Eguraldia
**19:23** Planik bai?
**19:43** Kantari
**20:10** Magazinea
**20:55** Berriak
**21:20** Eguraldia
**21:23** Planik bai?
**21:43** Berriak
**22:13** Eguraldia
**22:16** Magazinea
**23:01** Gurean gaur
**00:08** Eguraldia
**00:11** AsteON

## ARRASATE IRRATIA

### Su Ta Gar Oñatin ikusteko sarrerak zozketatuko ditugu

Oñatiko Gaztelekuan izango da hilaren 25ean Su Ta Gar taldea eta kontzertua ikustera joateko sarrerak zozketatuko ditugu Arrasate Irratian. Sarreren zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Hartu parte eta zorte on!

### Asteko gainbegiratua zapatu eta domekan, 10:00etan

Astean zehar, Arrasateko errugbi taldeko Igor Isasi entrenatzailea izan dugu 107.7ko uhinetan denboraldi berriari buruz berbetan. Goienako Gidari buruzko elkarrizketa ere egin diogu Mireia Larrañaga komertzial saileko zuzendariari. Bada, elkarrizketa horiek entzungai izango dituzue.





### Jesus eta Elena

Jesus Olaizolak eta Elena Egigurenek atzo, urriak 17, urrezko eztaiak bete zituzten. Familia guztiaren partetik, zorionak eta musu handi bat.



### Aitor eta Nerea

Aitor Blanco eta Nerea Irureta bergararrak zapatuan ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Topera disfrutatu egun berezi horretaz, guk ere hala egingo dugu -eta! Musu pila bat, lagun guztien partetik!".





### M. Angeles eta Nemesio

Oñatiko M. Angeles Arriaranek eta Nemesio Zubiak zapatuan, urriaren 19an, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. "Zorionak eta ondo-ondo pasatu eguna familia osoarekin. Asko maite zaituztegu".



### Marijo eta Manu

Oñatiko Marijo Aranburuk eta Manu Regueirok urriaren 15ean zilarrezko ezteiak ospatu zituzten. "Zorionak, familiakoen eta lagunen partetik. Musu handi bat".

ESKER ONA

## Antonio Uribesalgo Uribetxeberria



2013ko urriaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Aretxabaletan, 2013ko urriaren 18an.**

ESKER ONA

## Imanol Zabala Iturralde



2013ko urriaren 10ean hil zen, 71 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Elgetan, 2013ko urriaren 18an.**

ESKER ONA

## Karmelo Lazkoz Andueza



Oñatin hil zen 2013ko urriaren 9an, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Oñatin, 2013ko urriaren 18an.**

OROIGARRIA

## Antonio Uribesalgo Uribetxebarria

*Sekula itzaliko ez den*
*izar berri bat piztu da Errotabarrin*
*eta baita gure bihotzetan ere.*

*Adiorik ez, Anton, gero arte baizik.*

*Aurrera bolie !*

**Aitziberren kuadrilla.**
**Aretxabaletan, 2013ko urriaren 18an.**

URTEURRENA

## Mariano Etxaniz Unzueta



Bergaran hil zen 2012ko urriaren 5ean, 81 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Zuk erakutsitakoa ez dugu ahaztuko.*
*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2013ko urriaren 18an.**

URTEURRENA

## Ramon Ambroy Aranzabal



2012ko urriaren 18an hil zen, 76 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Joan zinen, gu hemen utzita*
*baina, jakin ezazu,*
*inoiz ez zaitugula ahaztuko.*

**Zure emaztea, seme-alabak, erraina eta bilobak.**
**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.**

OROIGARRIA

## Berta Ezkurra Guridi



Arrasaten hil zen, 2013ko urriaren 11n, 81 urte zituela.

*Bizitzan zurekin gozatutakoa*
*gure bihotzetan geratuko da.*
*Agur, tia.*

Ainhoa, Oier, Dorleta eta Alex, Olaia eta Ibon, Arnaitz eta Virginia,
Ortzi eta Nekane, Koldo eta Mirari, Eneko, Maddi, Aines, Enar, Unai eta Beñat.

**Arrasaten, 2013ko urriaren 18an.**

URTEURRENA

## Javier Idigoras Villar



Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 19an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2013ko urriaren 18an.**

URTEURRENA

## Mikel Odriozola Igartua



Oñatin hil zen 2005eko urriaren 17an, 50 urte zituela.

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen*
*eta inoiz itzaltzen ez dalako,*
*gure bihotz barruan*
*eramango zaittugu betiko.*

**Etxekuak.**
**Oñatin, 2013ko urriaren 18an.**





## Felisa eta Joxe Mari

Oñatiko Felixa Muruak eta Joxe Mari Arregik Errosaixo-domekan ospatu zituzten urrezko ezteiak familiakoekin. "Zorionak, aitaita eta amama! Segi horrelaxe! Pa!".

URTEURRENA

## Pedro Bengoa Lizarralde



Oñatin hil zen 2012ko urriaren 2an, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 19an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren parrokian.

—

*Nahiz zenbait gauza ahazten zitzaizkizun ia*
*gaur zure oroimenak badu biltegia*
*dela Urzabal edo dela Deguria*
*ondo gordeko dugu zure memoria.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko, bere emazte Frantziska Leteren, seme-alaben eta biloben izenean.**

URTEURRENA

## Rosario Mendizabal Ansoategi



Arrasaten hil zen 2012ko urriaren 22an, 65 urte zituela.

Bere oroimenez lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 20an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Arrasaten, 2013ko urriaren 18an.**



## Iker eta Saioa

Iker eta Saioa gaur, egubakoitza, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ondo pasatu ezkontzan eta asko disfrutatu bidaian. Musu bat, familiakoen eta lagun guztien partetik".

URTEURRENA



## Angel Beitia Zugasti

2012ko urriaren 6an hil zen, 74 urte zituela.

## Angel Agiriano Arriola

2012ko urriaren 30ean hil zen, 83 urte zituela.



Bien oroimenez, domekan, urriaren 20an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian urteurreneko meza izango da.

**Etorriko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko.**
**Eskoriatzan, 2013 urriaren 18an**

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



***maribi 617 44 21 55***
***BERGARA***

**ANTZUOLA Erakusketa**
Arrasateko Ekin Emakumeak taldeak *Debagoieneko emakumeak Gerra Zibilean eta frankismoan* delako erakusketa osatu du. Gara haietako erretratuak batu dituzte. Orduan emakumeek bizi izandakoa erakusteko eta salatzeko argazkiak dira Antzuolan ikusgai daudenak.
Zapatua eta domeka, Olaran etxean, 18:30etik 20:30era.


EKIN EMAKUMEAK TALDEA


GOIENA

**BERGARA Fiachras eta Sumission City Blues taldeen zuzenekoa**
Txapa Irratiari laguntzeko dirua batzeko zuzenekoa egingo dute bi taldeek Bergarako gaztetxean. Sarrera bost euro ordaindu beharko da. Emanaldia Txapa Irratian emango dute zuzenean, FMko 97.2an.
Urriak 19, zapatua, Bergarako gaztetxean, 23:00etan.

# NON-ZER

URRIA 18
URRIA 24

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**OÑATI CC627 taldearen kontzertua**
Punk-rock talde oñatiarra zuzenean ikusteko aukera.
Gaur, egubakoitza, Pako taberna, 23:15ean.

**ELGETA Ska kontzertua, Espaloian**
Smooth Beans eta Kaleko Urdangak igoko dira oholtzara. Jarraian, Naken, Sir Gorka eta Rudy DJak.
Bihar, zapatua, Espaloian, 22:00etan.

**BERGARA Gaztetxoendako DJ jaialdia**
Amaia Txintxurretak animatuko ditu gaztetxoak.
Bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:30ean.

## ANTZERKIA

**BERGARA 'Kar-kartzelan': Txiki eta Jon Plazaola**
Umorezko bakarrizketak Bergarako gaztetxean. Jon Plazaola telebistako aurpegi ezaguna izan arren, askotan egon da Bergarako gaztetxean; Txiki, aldiz, Antiguakoa da, eta saltseroa.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

## DANTZA

**ARAMAIO Euskal dantzak**
Euskal dantzak ikasteko aukera egongo da aurten ere.
Gaur, egubakoitza, San Martin eskolako gimnasioan, 18:00etan.

**BERGARA Dantza afrikarrak**
Dantza afrikarren ikastaroa eskainiko dute gaztetxean. Urriaren 19an egingo dute lehen saioa, eta ondoren, hilabetero bi saio egingo dituzte: lehenengo eta hirugarren zapatuetan.
Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean,16:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**ARRASATE Usaetxeko jaia**
Usaetxe udal ludotekako seigarren urteurrena ospatuko dute. Bertan, karaokea, aurpegi margotzea, jolas erraldoia eta *merendola* izango dituzte.
Gaur, egubakoitza, Usaetxeko ludotekan,17:00etan.

**ESKORIATZA Eskoriatzako EAJ alderdiaren mendeurrena: omenaldia**
Alderdikideei omenaldia egingo diete, plazan. Amaitzean, luncha egingo dute batzokian.
Etzi, domeka, forntoian eta batzokian, 12:00etatik aurrera.

**ARETXABALETA Gastronomia eta folklore jaialdia**
Gaztela eta Leongo, Galiziako eta Errioxako produktuekin gozatzeko aukera egongo da. Hango folkloreak ere izango du lekua. Gainera, XIX. etxeko patxaran lehiaketa egingo dute.
Etzi, domeka, Herriko plazan, 10:00etatik aurrera.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**ARRASATE Egoitz Zubizarreta arrasatearraren Patagoniako abenturen ikus-entzunezkoa**
Cerro Torren (*Ferrari bidea*) eta Poincenot orratzean (*Williams arranpa*) egindako igoerak azkeztuko ditu mendizaleak, Besaideren mendi hamabostaldian.
Urriaren 21, astelehena, Kulturaten, 19:00etan.

## BERTSOLARITZA

**ARAMAIO Lizaso eta Peñagarikano bertsolarien saioa**
Bertso bazkaria egingo dute Sebastian Lizasorekin eta Angel Mari Peñagarikanorekin.
Bihar, zapatua, Kasatxo elkartean, 14:00etan.

## ERAKUSKETAK

**OÑATI 'Lope 500' erakusketa**
Oñatiko 22 artistak egindako margolan, eskultura, argazki eta zeramikak ikusgai. Lope de Agirreren heriotzaren 500. urteurreneko erakusketa da.
Urriaren 26ra arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

**ELGETA Condor legioari buruzko irudiak**
Bisitariak 17 panel izango ditu ikusgai kafe antzokiko hormetan. 80ko hamarkadan Alemaniako Arbeitskreis Regionalgeschichte ikerlari taldeak abiatutako lanaren emaitza da.
Urriaren 31ra arte, Espaloian, 19:00etatik 20:00etara.

**ARRASATE Julio Galartaren lanak**
18 margolan ipini dituzte ikusgai eta horietako batzuk salgai, gainera. Helburu nagusia Galartaren obra ezagutzera ematea da, eta, bide batez, Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkartearendako dirua lortzea.
Azaroaren 17ra arte, Arregi arte aretoan, denda zabalik dagoen orduetan.

**OÑATI Cazenaveren eta Marotoren argazkiak**
Marotoren eta Cazenaveren argazkien arteko elkarrizketak zabaldu du Ilunpetan taldearen argazki festibala.
Azaroaren 3ra arte, Arantzazuko topagunean, 11:00etatik 18:00etara, aste bukaeratan.

**OÑATI Zaloa Fuertesen 'Azala' erakusketa**
Ilunpetan taldeak antolatutako argazki festibaleko erakusketetako bat. Lau argazki erraldoi zintzilikatu ditu Eteo zaharreko fatxadan.
Urriaren 27ra arte, Eteo zaharreko fatxadan.

**OÑATI 'Ispiluak' argazkiak**
Ilunpetan taldeko Txarli Marquezek eta Asier Egañak egindako erretratuak. Oñatiko lehengo eta oraingo erretratuak. Denborak uzten dituen aztarnak jaso dituzte.
Urriaren 27ra arte, Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroan, bulegoak zabalik dauden orduetan.

**BERGARA Zikloaren amaiera**
Organo erromantikoaren nazioarteko zikloa aste bukaeran bukatuko da. Etxeko musikariak izango dira protagonista: Aitor Olea irakaslea izango da organista, eta Airean Ahots taldeak abestuko du. Marije Ugalde musika eskolako irakaslea izango da zuzendaria.
Bihar, zapatua, Santa Marina parrokian, 20:000etan.


ANDONI GOITI

## UMEAK

**ESKORIATZA Eskoriatzako EAJren mendeurrena: umeendako ikuskizuna**
Tor magoak umeendako ikuskizun erakargarria eskainiko du.
Gaur, egubakoitza, Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

**ARETXABALETA Ipuin kontaketa**
Ines Bengoaren eskutik, 4 urte baino gehiagoko umeendako.
Bihar, zapatua, Arkupeko liburutegian, 11:30ean.

**ARRASATE Biblioteka Eguna: 'Kontu kantoi' ipuin saioa**
4, 5, eta 6 urteko haurrei zuzendutako ipuin saioa da.
Urriaren 21, astelehena, Santa Marina auzoko liburutegian, 18:00etan.

**ARRASATE Biblioteka Eguna: 'El guardian de los cuentos' saioa**
La Tartana Teatro taldearen saioa, 6 urtetik gorakoendako.
Urriaren 23a, eguaztena, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan.

## IRTEERA

**ARAMAIO Karrantzara irteera Alaiak elkartearen eskutik**
Besteak beste, bisita gidatuak egingo dituzte Karrantzako Pozalagua koban. Artxandako Abaroa jatetxean bazkalduko dute eta Bilbon emango dute arratsaldea. 19:00etan itzuliko dira etxera.
Gaur, egubakoitza, autobus geltokian, 08:30ean.

**DEBAGOIENA Epeleko araztegira bisita gidatua**
Uraren eta Errekaren Astea Deba Ibarrean ekimenaren barruan. 10:30ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz.
Bihar, zapatua, Epeleko araztegian, 10:30ean.

**ELGETA Perretxikotara irteera**
Mendi irteera haur eta gurasoendako. Elgetako II. Jardunaldi Mikologikoen barruan.
Bihar, zapatua, Mendizaleen plazatik abiatuta, 16:00etan.



CARMEN ROCHE

**ARRASATE 'El sueño de una noche de verano' dantza emanaldia**
Shakespeare egilearen eleberrian oinarritu du Carmen Roche-ren taldeak dantza ikuskizuna. Maitasuna, heriotza, inbidia, amorrua eta beste hainbat sentimendu irudikatuko dituzte dantzarekin eta musikarekin.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean.

**OÑATI Espeleoabentura Arrikrutzen**
Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe konplexu karstikoa ezagutzeko irteera egingo dute. 3-4 orduko irteera da eta derrigorrezkoa da material erosoa, katiuskak eta frontala eroatea. Interesatuek aldez aurretik eman beharko dute izena 943 08 20 00 telefonoan. 16 urtetik gorako 20 pertsona onartuko dituzte taldean.
Bihar, zapatua, Arrikrutzen, 10:00etan.

**OÑATI 'Ubao eta Antzubarko uraren ibilbidea'**
Mendi ibilaldi erraza. Ogitartekoa eramatea gomendatzen da.
Etzi, domeka, Foruen plazan, 08:30ean.

**OÑATI Pirinioak: Sallent ingurura**
Aloña Mendiko mendi sailak mendi ibilaldia egingo du aste bukaeran.
Bihar, zapatua, postetxe pareko geltokian, 08:00etan.

## HITZALDIAK

**OÑATI Loperen balizko jatorri aramaioarraz**
Julen Arriolabengoak, Ibarguen-Cachopin kronikan oinarrituta, Lope de Agirreren balizko aramaioarraz jardungo du. Bestalde, Xabier Santxotenak Ursuatarrekiko begirada pertsonala azalduko die entzuleei.
Urriaren 22, martitzena, kultura etxean, 19:00etan.

**OÑATI 'El duelo afectivo. Cómo afrontarlas'**
Pake Lekuk antolatutako hitzaldia da, Nagusilanekin elkarlanean. Eva Gartzia izango da hizlaria.
Urriaren 22, martitzena, Pake Lekun, 17:30etan.

**OÑATI Anjel Amigo eta Jesus Egiguren**
Lope de Agirreren ibilbideari buruzko dokumental bat ari dira prestatzen Anjel Amigo zinema-ekoizlea eta Jesus Egiguren proiektuaren egilea. Horri buruz jardungo dute biek ala biek, Loperen heriotzaren 500. urteurreneko ekitaldien barruan.
Urriaren 23, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan.

**ELGETA Hondakinak, batzar irekia**
*Zer egiten da gure herriko hondakinekin?* delako berbaldia egingo dute, Debagoieneko Mankomunitatearekin batera antolatuta. Batzarra irekia da.
Urriaren 23, eguaztena, udaletxeko areto nagusian, 19:00etan

**ARAMAIO 'Gure arauak eta mugak: gure seme-alabak heziz' hitzaldia**
Gurasoendako hitzaldia da, eta doakoa. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da, eta, antolatzaileek diotenez, hitzaldia "oso interesgarria" izango da. Bi saio egingo dituzte, urriaren 23an bata eta 30ean bestea.
Urriaren 23, eguaztena, San Martin eskolako liburutegian, 18:00etan.

## BESTELAKOAK

**ANTZUOLA Virginia Imazekin ipuin kontaketa saioa**
Antzuolako erretiratuendako ipuin kontaketa saioa egingo du Virginia Imazek.
Gaur, egubakoitza, erretiratuen etxean, 17:00etan.

**ANTZUOLA Tomas Madinabeitiari omenaldia**
Hil zeneko urteurrenean.
Bihar, zapatua, Antzuolako elizan, 19:00etan.

**ARETXABALETA 'Txilibri' zenaren omenezkoak**
Azkena tabernan elkartuko dira *Txilibri*-ren lagunak, afari-merienda egiteko. Ondoren, kontzertuak: Igor San Juan eta Abar, Bixxxenta eta DJ Txistu.
Bihar, zapatua, Azkena tabernan, 20:30ean.

**ELGETA Pintxoak tabernetan**
Elgetako II. Jardunaldi Mikologikoen barruan. Euro baten truke perretxiko-pintxoak jateko aukera herriko tabernetan.
Bihar, zapatua, 19:00etatik aurrera, eta etzi, domeka, 12:00etatik aurrera.

**ELGETA Perretxikoak sailkatzen**
Irteeran jasotako perretxikoak sailkatuko dituzte. Elgeta II. Jardunaldi Mikologikoen barruan.
Bihar, zapatua, Mendizaleen plazan, 18:00etan.

**OÑATI 'El Dorado' filma**
Lope de Agirreren heriotzaren 500. urteurrenaren harira, Carlos Saurak 1987an zuzendutako *El Dorado* pelikula emango dute. Omero Antonuttik bete zuen Lope de Agirreren papera.
Urriaren 21, astelehena, Antixena gaztetxean, 19:00etan.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Asalto al poder**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30

**Epic**
Domeka: 17:00.

**Perder la razon**
Martitzena: 20:30.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Golpe perfecto**
Martitzena: 20:00

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**El mayordomo**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30 eta 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Gru 2, mi villano favorito**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Mud**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**La mejor oferta**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**El mayordomo**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Zipi y Zape**
Domeka: 17:00

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**El mayordomo**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45.

**Turbo**
Egubakoitza: 16:45, 18:35, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45, 18:35, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Gloria**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Canibal**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Las brujas de Zugarramurdi**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Amares eskuak**
Egubakoitzetik martitzenera: 17:00.
Eguaztena: 16:50.
Eguena: 17:00.

**Gravity**
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 18:45, 20:30.
Eguaztena: 18:25.
Eguena: 18:45, 20:30.

**Zipi y Zape**
Egubakoitza: 16:45.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Prisioneros**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 21:15.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Una cuestion de tiempo**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**GORBEIA**

**Capitan Phillips**
Egubakoitza, domeka eta urriak 24: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 15:30, 18:00, 20:30, 23:00.
Astelehenetik eguaztenera: 18:00, 20:30.

**Turbo**
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 18:10, 22:20.
Astelehenetik eguaztenera: 18:10.

**Turbo 3D**
Zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 20:15.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehenetik eguaztenera: 20:15.

**Las brujas de Zugarramurdi**
Zapatua: 00:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 17:45, 20:00, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 18:30, 20:45.

**Zipi y Zape**
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 17:50, 19:50.
Zapatua eta domeka: 15:50.
Astelehenetik eguaztenera: 17:45.

**2 guns**
Zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 18:45.

**Runner, runner**
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 20:30.
Astelehenetik eguaztenera: 18:45.

**La gran familia española**
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 20:20.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

**Jobs**
Zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 22:00.
Astelehenetik eguaztenera: 19:45.

**Justin y la espada del valor**
Zapatua eta domeka: 16:20.
Egubakoitzetik domekara. eta urriak 24: 18:20.

**Epic**
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 18:30.

**Percy Jackson y el mar de los monstruos**
Zapatua eta domeka: 16:15.

**Gru 2**
Zapatua: 15:45.

**Aviones**
Domeka: 15:45

**BOULEVARD**

**Turbo**
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Zapatua eta domeka: 15:45.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 17:45, 19:45, 21:45.
Astelehenetik eguaztenera: 18:00, 20:00.

**Turbo 3D**
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 18:10, 20:20.
Astelehenetik eguaztenera: 18:30.

**Capitan Phillips**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 18:45, 21:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:10.

**El quinto poder**
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.
Zapatua eta domeka: 16:10.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 18:55, 21:40.
Astelehenetik eguaztenera: 17:35, 20:15.

**Una cuestion de tiempo**
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.
Zapatua eta domeka: 16:20.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 19:95, 21:50.
Astelehenetik eguaztenera: 17:40, 20:20.

**El mayordomo**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 19:00, 21:40.
Astelehenetik eguaztenera: 17:35, 20:10.

**El medico aleman-Wakolda**
Zapatua eta domeka: 16:50.

**The bling ring**
Zapatua eta domeka: 15:35.

**Metallica 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 22:45.
Astelehenetik eguaztenera: 20:30.

**Gravity**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24:18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 18:40, 20:40.

**Gravity 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 20:00, 22:00.
Astelehenetik eguaztenera: 20:15.

**Las brujas de Zugarramurdi**
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 17:50, 20:15, 22:40.
Astelehenetik eguaztenera: 18:05, 20:35.

**Zipi y Zape**
Egubakoitza eta urriak 24: 17:50.
Zapatua: 15:50, 17:50, 19:50.
Domeka: 15:50, 17:50.
Astelehenetik eguaztenera: 17:45.

**Prisioneros**
Egubakoitza eta urriak 24: 20:00, 23:00.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 20:00.
Astelehenetik eguaztenera: 19:45.

**Runner, runner**
Egubakoitzetik domekara, eta urriak 24: 18:00.
Astelehenetik eguaztenera: 18:15.

**Justin y la espada del valor**
Zapatua eta domeka: 16:30.

**Percy Jackson**
Domeka: 16:00.

**Epic**
Zapatua: 16:00.

## KRITIKA

**CANIBAL** ★★★★☆
**Zuzendaria:** Manuel Martin Cuenca.
**Herrialdea:** Espainia.
**Urtea:** 2013.
**Aktoreak:** Antonio de la Torre, Olimpia Melinte, Maria Alfonsa Rosso, Manuel Sola.
**Iraupena:** 116 minutu.



# Heriotza eta maitasuna

*Canibal*–ek Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean parte hartu du, eta argazki onenaren saria irabazi. Filma oso interesgarria da, baina, agian, garai honetan estreinaldi ugari daudenez, oharkabean pasa daiteke zinema–geletatik. Eta pena da, lan gomendagarria delako. Hori bai, filmari buruz ezer entzun edo irakurri ez duenak izenburua ikusterakoan thriller odoltsu baten aurrean dagoela pentsa dezake, baina ez da horrela. Gaur egun egiten den beldurrezko zineman, odolez, irudi desatseginez eta zarata handiz beteriko filmak izaten dira. Bada, Manuel Martin Cuenca zuzendariak ezaugarri horietatik ihes egiten du, eta kontrako film bat egin: erritmoa geldoa da, hitz gutxikoa, musikarik gabe, deskripzioak garrantzi handia du, elipsiarekin eta iruditik kanpo gertatzen denarekin bikain jokatzen du tentsioa modu desberdinean azaltzeko, eta ikara lortzeko modu konbentzionaletatik ihes egiten du. Indarkeria modu lehorragoan agertzen da. Ikaragarria da denborarekin eta elipsearekin ederki jokatzen duen hondartzako eszena luzea.

*Canibal* filmera hurbiltzen denak txip aldaketa egin behar du. Erritmoa geldoa delako eta denbora dezente erabiltzen duelako pertsonaia nagusiaren bizimodua ezagutarazteko. Hasieratik dakigu hiltzaile eta gizajalea dela, eta, horretaz gain, jostuna. Oso gizon metodikoa da: dena kontu handiz egiten du, bakartia, isila eta hotza egiten dituen ekintzak burutzeko. Ez du ematen kontzientzia arazorik duenik, baina egun baten neska bat agertuko da desagertutako ahizparen bila, eta hor gauzak aldatzen joango dira: desira maitasunarekin nahastuko da. Harreman horiek konplexutasun handia emango diote kontatzen zaigun istorio ilunari, eta horren ahalmen aztoratzailea areagotu. Heriotza eta maitasuna elkartzen dira film kezkagarri eta berezi honetan.

ANTONIO ZABALA

## TIRABIRAKA

IÑAKI SAN MIGUEL






## BUKATZEKO

# Pozik bizi izaten ikasi, bi egunean

- Urko Arotzenak UEUn emango duen ikastaroa dagoeneko arrakastatsua da: plazak bukatu dira
- Ametsak interpretatzen ere erakusten du: "Zoriontsu izateko egin behar genukeena esaten digute"

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Entrenamendu mentalaren bidez poziago bizi izan nahi du jende askok; horren erakusgarri da Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) azaroko bi egunerako antolatu duen ikastaroak –*Emozioak eta norberaren gaitasunak lantzen*– izan duen arrakasta. Urko Arotzena musikari eta entrenamendu mentalean adituak emango ditu jardunaldiak, eta, haren esanetan, "hogei lagunendako lekua zegoen eta bete egin da; arrakasta hori dela eta, UEUko arduradunek esan dute balitekeela beste ikastaroren bat antolatzea".

Azaroaren 9an eta 16an izango dira eskolak. Bi egunetan ikas daitezke teknika horiek eta pozik bizi izateko helburua bete? Hauxe diosku Arotzenak: "Teknikak nire blogean daude, edozeinek erabil ditzan. Benetan inplikatu nahi denak gaizki pasatuko du eta negarrez irtengo da ikastarotik, baina bere beldurrei aurre egiteko adorea hartzen duenean, konturatuko da bere buruari zelako mezuak bidaltzen dizkion eta bere burua barkatuko du orain arte halako zoritxarrekoa izateagatik".

Teknika horiek Urkoren blogean daude: *entrenamendumentala.blogspot.com.es*.



Urko Arotzena, ikasgelan. | UEU/AGM

### Konturatzea da giltza

Zoriontsu izaten ikasteko, gure buruarekiko ditugun pentsamenduak aldatu behar ditugu: "Norbaitekin afaltzera baldin bagoaz, gure subkontzientea mezuak bidaltzen hasiko da, besteak niregandik hau eta bestea espero duela esaten, ematen ez badiot zer gertatuko den… Mezu horietaz ohartu hutsarekin, onartu, gainditu eta oso-oso ondo sentitzea lortzen dugu".

Dirudien moduko erraza da? "Bai, aldaketa oso erraza da. Baina beldurra ematen digu onartzea pentsamendu ez onargarri horiek ditugula".

### Subkontzientearen mezuak

Horrez gain, ametsak aztertzeko pistak emango ditu Arotzenak ikastaroan: "Gure subkontzienteak gurekin harremanetan jartzeko erabiltzen dituen moduetako bat dira ametsak. Ametsetan, gure subkontzientea esaten ari da zer egin beharko genukeen zoriontsu izateko. Bere mezua hauetako bat da: "Hau egin beharko zenuke", edo "Egiten duzun hau ez zenuke egin behar". Eta, Urkoren esanetan, bide txarretik baldin bagoaz, "hortik ateratzea oso erraza da".

## AZKEN BERBA

**IDOIA ETXEBERRIA**



# Aro modernoko armadurak

Uhin elektromagnetikoz inguratuta gaude. Ikusezinak dira, baina hor daude. Antenak teilatuetan. Mikro-uhinak gure sukaldeetan. Eskuko telefonoak gure poltsa eta poltsikoetan. Erradiazioa sortzen. Eta gu, etxean salbu gaudela pentsatzen. Gasteizen antena bat kendu dute aste honetan. Ondoan dagoen ikastolakoek protesta egin dutelako. Baina erradiazio maila ez da nahikoa jaitsi. Europako araudia betetzen ez duten antena asko daude. Gehiegi. Herri guztietan neurketak egiten hasiko balira… pufa! Uhinen kontura negozioa egiten ari denik ere bada. Azkenaldian, erradiazioa neurtzeko aparailutxoak saltzen hasi dira. Eta ez hori bakarrik: metalezko zuntzekin egindako arropak ere bai! Ez ei dira oso erosoak, ezta politak ere. Baina uhinak geldiarazten omen dituzte. Aro modernoko armadurak direla diote. Barruko arropa eta pijamak dira gehien saltzen direnak. Puzker usaina xurgatzen duten galtzontzilo eta kuleroekin akordatu naiz. Japonian izan duten arrakastaz. Baina hauek Suitzan eta Alemanian egiten dituzte. Eskaera gora doala diote. 200 euroko pijama jantzi, eta lasai egin lo! Astronauten pare ibili behar ote dugu, jantzi bereziekin?

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2013
urriak 19
Azaroak 16



Antolatzailea: Arrasateko Udala / Ayuntamiento de Mondragón — Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte — Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.